

Goienkaria

2007ko urriaren 19a > Egubakoitza > VII. urtea > 305. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Minbiziaz modu naturalean berba egin nahi dugu, drama barik"

Itziar Baltzategi

Aspanovas elkarteak kidea > 09



G2a

Kantariko umeen zuzeneko saioak bihar > 43-44

MUGIKORTASUNA
Bidegorri sarea eskatzeko bizikleta martxa bihar > 04

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Ibarretxe lehendakariak ireki zuen atzo ikasturte berria > 05

EUSKAL PRESOK
Sasiain bergararren atxiloketa salatzeak bilkura gaur > 25

AZPIEGITURAK > ESKUALDEKO OSPITALE BERRIA ERAIKITZEKO PROIEKTUA AURRERA DOA

Urtea bukatu aurretik hasiko dira eskualdeko ospitalea eraikitzen

HITZARMENA Arrasateko Udalak eman dizkio Jaurilaritzari 2.730 metro koadro ospitalearen eraikin berria egiteko

HIRU FASE Lehen fasearen lanak esleitzear daude; fase horretan eraikin nagusiaren zatia egingo dute

AURREKONTUA Aurreneko fasea 28 milioi euro kostatuko da, eta lehenengo harria azaro edo abenduan jarriko dute > 06

Umeen gaineko gehigarria

GOIENKARIArekin batera, 8 orriko gehigarria umeei buruz, dena koloretan.



AZPIEGITURAK > BIDEGORRIA

18 kilometro bidegorri gehiago

Bergara-Urretxu bidegorri tartea egiteko lursailak erosi dizkio asteon Aldundiak FEVERi. 2008ko ekainerako idatzita egongo da proiektua eta 2010erako erabilgarri.

Tartea 18 kilometro luze izango da; 3,50 zabal, eta oinezko zein bizikletendako. > 04

OSASUNA > UMEAK

Umeen minbizia berbagai

Aspanovas elkarteak jardunaldi irekiak egingo ditu bihar Bergaran > 04

Euskaraz ere joka daiteke Gabonetako loterian, Arrasaten

Gabonetan euskarazko loteria-txartelak saldu edo opari egiteko *Ilusioa euskaraz* izeneko kanpaina jarri du abian Arrasateko Euskalgintzak.

Kanpaina horrekin, besteak beste, aukera eman die Arrasateko 700 establezimenduri euskaraz inprimatzeko Gabonen atarian euren bezeroei saltzen edo opari egiten dizkieten loteria-txartelak. > 19



ARRASATEKO EUSKALGINTZA Besteak beste, Txatxilipurdiko eta AEKko kideek osatzen dute (irudian).

L.BARANDIARAN

AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-08
- Elkarrizketa > 09
- Iritzia > 10-11
- Gutunak > 12
- Herriak > 15-39
- Kirola > 40-42
- Kultura > 45
- Sailkatuak > 46
- Eskelak > 47
- Denbora-pasa > 48
- Gazteak > 50
- Komunikazioa > 51
- Telebista-Irratia > 52
- Non-zer > 54-55

Zure ondoan gaude kalitatezko atsedena eskaintzeko

Kalitatezko ametsak

bede

Koltxoi dendak

Urteurrena ospatzen gaude

Zarugalde 25 / ARRASATE Tel.: 943 77 18 35 • Arrizuri 7 / BERGARA Tel.: 943 76 25 91

Audi A3 Sportback
Automobil hutsa baino gehiago.

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

ONGIZATEA > UMEEN AURKAKO TRATU TXARRAK

Umeeek jasandako tratu txarren arrastoak marrazki bihurtzen direnean

ERAKUSKETA Tratu txar fisikoak eta sexu abusuak jaso dituzten umeek egindako marrazki erakusketa ipini dute Bergarako kultura etxean

PREBENTZIOA Umeekin zuzenean lanean diharduten profesionalak kontzientziatzea da erakusketaren helburuetariko bat

UTZIKERIA Kolpeak eta sexu abusuak baino ohikoagoak dira utzikeria eta maitasun falta kasuak umeen tratu txarrei buruz dihardugunean

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Tratu txarrek haurtzarora eta nerabezarora lapurtu eta hondatu diete. Ezagutzen ez ditugun arren, badakigu 5 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoak direla. Egin dituzten marrazkiek irudikatzen dute sinesten hain zaila izanagatik ume horiek bizi izan duten bortizkeria.

Bergarako kultura etxean izango da ikusgai azaroaren 7ra arte *Tratu txarren arrastoa* erakusketa. Tratu txarrak jasan dituzten neska-mutikoek egindako 37 marrazki eta umeen eskubideen gaineko 12 argazki biltzen ditu erakusketak. Marrazki horiek beren bizitzako pasadizo latzen isla dira. Aurre egin behar izan dieten egoeren aurrean sentitzen duten larritasuna eta amorrua adierazten dute. Marrazki bakoitzari atxikita testu bat agertzen da adin txikikoek jasandako tratu txarren zatiak kontatuz eta marrazkien bidez adierazi nahi dutena azalduz.

PROFESIONALAK KONTZIENTZIATU

Erakusketa Bergarara ekartzearren arrazoia udaletxeko Gizarte-Ongizate Departamentuan azaldu digute. Bergarako udaletxean bada teknikari bat bere lan jardunaren zati bat haur eta gazteen babesari eskaintzen diona, gaiarekiko sentsibilitate berezia dagoelako.

Lan horretan diharduen Gizarte Ongizateko teknikari Jon Lopezek esan digunez, "erakusketa ikusi nuen Donostian eta atentzioa eman zidan profesional modura, baina baita interesgarria izan zitekeelako gazteekin lan egiten duten gainontzeko profesionalendako ere".

Erakusketak marrazkirik deigarrienak edo morbosenak jasotzen dituela esan digu Jon Lopezek. "Tratu txar fisikoak eta sexu abusuak jaso dituztenen kasuak ikusten dira. Marrazkiek sufri-mendua islatzen dute, nahia eta ezina, barne egoera, euren adinarenagatik beste modu batera

azaldu ezingo luketelako. Erakusketa helduendako da, batez ere gaiarekin zerikusia duten profesionalendako. Umeez ez lukete ulertuko, eta, gainera, marrazki batzuk gogorak dira".

FAMILIAKO TRATU TXARRAK

- > **tratu txar Fisikoak**
- > **Utzikeria fisikoa edo zabarkeria**
- > **Tratu txar Psikologiko edo Emozionalak**
- > **utzikeria Psikologiko edo Emozionala**
- > **Sexu Abusua**
- > **Lan-Esplozazioa**
- > **Ustelkeria: Sexu-Esplozazioa eta Delinkuentziara eragitea**
- > **Umearen jokabidea kontrolatzeko gaitasunik eza**
- > **Jaio aurretik tratu txarrak**
- > **Hazkuntza atzerapen ez organikoa**
- > **Etengabe ospitaleratzea**

Saiatuko dira erakusketa gerturatzeko profesionalak: irakasleei, osasun arlokoiei, kirol monitorteei, psikologia eta gizarte hezkuntzako ikasleei... gaiaren gaineko kontzientzia sortzeko eta sentsibilizatzeko.

Tratu txarren aurre-detektiorako tresna modura egokiak izan daitezke profesionalak. "Prebentzioa ezinbestekoa da. Guk irakasleei sarritan esaten diegu eurek ez dutela ezer egin behar, jakinarazi besterik ez, tratu txarren zantzuak sumatuz gero, horren berri eman. Ondoren gizarte zerbitzuek egingo dute dagokiena. Pediatrei ere gauza bera esaten diegu. Haurra lehen urteetan ikusten dute eta informazio asko daukate. Zenbat eta lehenago landu askoz hobe, berandu izan baino lehen, zeren gero mina oso barneratuta izaten dute-eta umeez", esan digu tratu txarrak jasotako haurren laguntzarako Avaim elkartearen boluntario den Maite Gonzalezek.




ERAKUSKETA Marrazkiak ez ezik azalpenak ere oso

GERTUTASUNETIK SUMATU

Sarritan pentsatzen dugu gure inguruan ez direla tratu txar kasuak gertatzen, baina oker gaude. "Datuak eta estatistikak ez

MARRAZKI ERAKUSKETA



7 urteko neska

Sexu abusuak jasaten zituen 12 urteko anaiarengandik. Bere burua marraztean begien tamaina handiak, ahoa ezabatuta agertzeak eta genitalatan emakumezkoarena eta gizonezkoarena azpimarratzeak adierazten du neskatilaren beldurra.




5 urteko neska

Aitarengandik tratu txar fisikoak jasan zituen. Umeez berak eta amak jasotako jipoi eta zauri ikusgarrien lekuko mutu baina esanguratsua da ahoa zabalik garrasika marraztu duen aurpegia. Amorrua eta oldarkortasuna adierazten du.



7 urteko mutila

Tratu txar psikikoak jasan zituen amarengandik, eta neurri txikiagotan baita fisikoak ere. Amak gutxietsi egiten zuen eta umeez barneratuta zuen mezua. Piztiazat zuen bere burua eta piztia bat marraztu zuen amorraren eta enpatia faltaren adierazle.



10 urteko umea

Sei hilabete zituenetik aitak sexu abusuak egin zizkion. Polizia izanik gehiegikerien aurrean babestua sentitzen zen. Marrazkian aita irudikatzen du umeez harendako nahi litzuzkeen torturak jasotzen: kateak, geziak, genitalak mozteak eta abar.



10 urteko umea

Gurasoek tratu txar fisiko eta emozionalak egiten zizkieten eta aitak sexu abusuak egin zizkion susmoa zegoen. Familia irudikatzen zuen ezkerretik eskuinera, anaia, arreba, ama eta aita eta beste orri batean bera; bakardade eta familiarekiko amorraren isla.



gogorak dira; tratu txarrak jasan dituzten umeen beldur, amorruta eta antzerako sentimenduak islatzen dituzte.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ratzeak ez du esan nahi umea nahitaez etxetik atera behar denik. Arazoa hain larria ez bada, baina interbentzio beharra ikusten bada, Udaletik bertatik bideratzen dugu kasua familia hezitzaileen bidez, psikologoekin egindako familia terapien bidez... Kasu batzuk ez dira horren larriak, baina laguntzaren beharra dute", esan digu Jon Lopezek.

Erakusketaren beste helburu bat gai horren inguruan dagoen estigma edo mamu nagusia ezabatzea dela ere azaldu digu Jon Lopezek: "Askok hauxe uste dute: 'Tratu txarrak salatuz gero eta gurasoei umeak kenduz gero, ni izango naiz erruduna'. Baina hori ez da horrela. Guk beti egingo dugu ahalegina gurasoak baliagarriak ez badira beste senideren batekin uzteko umeak, etxean edo bere inguruetik gertu mantentzeko, alegia".

OHIKOENA, UTZIKERIA

Askotan, tratu txarrei buruz berba egiten dugunean kolpeak eta sexu abusuak ditugu buruan, baina utzikeria kasuak, umeak zikin edukitzea, arreta barik, babes emozionalik gabe, oinarritzko premiak ase gabe, maitasun edo afekturik eman gabe... sarriago gertatzen direla esan digu Jon Lopezek. "Kasurik ohikoenak dira, baina era berean detektatzeko eta tratatzeko zailenak. Izan ere, tratu txar fisikoak dauden unean kasua lehertu egin dela dirudi eta beharbada errazago suma daiteke. Beste kasuetan, bizitza dinamika baten barruan sar genitzake tratu txarrak, eta zailagoak dira antzematen. Batzuek diote tratu txarrak jaso dituztenek eurek ere eman ditzaketela, berez ez dago zertan; baina eurek gurasoengandik jaso ez dutena euren seme-alabei ematea zaila da. Are zailagoa laguntzarik jaso nahi ez dutenei. Askok ez dira kontziente arazo bat dutela".

Oso zaila da emaitza positiboak lortzea, baina batzuetan, arazoei konponbidea eman dietela esan digute Gizarte Ongizate Departamentuan. "Inoiz, gainera, hasieran aurreikuspen oso txarra egin eta gauzak hobetzea lortu dugu. Dena den, nik beti pentsatu izan dut nahikoa izango nukeela kasu bat aurrera aterata lanak merezi duela ikusteko", dio Jon Lopezek.

Prebentzio eta kontzientzia bidean erakusketa horrekin beste arrasto bat murriztu da umeen tratu txarren aurka.

Maite Gonzalez >
Avaim-eko boluntarioa

"Umeen tratu txarrak prebenitzeko egiten dugu lan"

I.A. > BERGARA

Marrakzi erakusketa antolatuta duen Avaim elkartearen boluntarioa da Maite Gonzalez. Elkartearen nondik norakoak eta egiten duten lana azaldu dizkigu

Zer da Avaim?

Tratu txarrak jasotako haurren laguntzarako elkarte da. 120 bazkide ditugu eta Donostiako, Gasteizko eta Bilboko ordezkarietan hamar boluntario ari gara lanean.

Zein da zuen lana?

Umeen tratu txarrak prebenitzeko eta jendea gai horren gainean sensibilizatzeko hainbat lan egiten ditugu: marrakzi zein argazki erakusketak, bideoak, informazio gidak...; haurren eskubideak aditzera emateko eta defendatzeko ekintzak ere sustatzen ditugu, besteak beste ikastetxeetan. Bestalde, norbaitek tratu txar arazoren baten berri emanez deitzen dugunean adituengana, udaletako gizarte zerbitzuetara... bideratzen dugu, tratamenduak ez ditugu guk elkartean zuzenean egiten.

Zein jendeak jotzen du zuengana?

Gure elkarte ez da oso ezaguna; hortaz, batik bat guregana etortzen dira profesionalak, euren azterketak egiteko informazioa behar dutenak. Unibertsitateko ikasleak ere etortzen dira. Baina arazoak detektatu eta guri deitzen digutenak gutxi dira oraindik. Erakusketa ikusi eta inguruan antzerako marrakziak egin dituztela sumatu duenik ere etorri zaigu, baina salbuespena dira.



GOIENKARIA

ditugu, baina beste udal batzuetan bezala gurean ere jasotzen dugu tratu txar kasuen berri, Bergara ez da salbuespena. Gainera, tratu txarrena da gai bat zenbat eta gehiago sakondu orduan eta kasu gehiago azaltzen direna", esan digu Lopezek.

Horrelako kasuak nola antzematen dituzten jakin nahi izan dugu eta Jon Lopezek azaldu digu saiitzen direla gertutasunarengatik kontzientzia sortzen hainbat sektore edo taldetan: "Gizarte Ongizateko teknikari naizen aldetik saiitzen naiz gertutasuna lortzen, besteak beste ikastetxeekin, bilerak eta koordinazio lanak egin. Horrela, kasu batzuen jarraipena egiten dugu; beste kasu batzuetan interbentzio beharra sumatu eta interbenitu egiten da. Osasun arloko pertsonekin, epaitegiarekin, ertzainekin... ere elkarlanean jarduten dugu. Kasuak detektatuz gero berehala jartzen dira gurekin harremanetan. Beste eragile batzuk, begira-leak, kirol monitoreak... esaterako, ere etortzen dira niregana".

"Kasuak zenbat eta lehenago tratatu askoz hobez; denbora pasatzen utziz gero mina oso barneratuta izaten dute umeek"

"Ahalegina egiten dugu gurasoak baliagarriak ez badira beste senideren batekin uzteko umeak, etxean edo bere inguruetik gertu mantentzeko"

KASUEN LARRITASUNA BALORATU

Detektatzeaz gain, kasuen balorazioa egitea ere bada haren lana. "Neurtu egin behar da kasu bakoitzaren larritasuna. Horren arabera, batzuetan Foru Aldundira bideratzen ditugu edo guk egiten dugu interbentzioa. Sexu abusuak dagoenean, esaterako, zuzenean bideratzen da kasua Diputaziora. Kasua Diputaziora bide-

SSANGYONG ACTYON SPORTS BERRIA

23.290 €-tik aurrera



MERCEDES-BENZ MOTORRAREKIN 200 XDI 141 Z.P.



SSANGYONG

VERTIZ MOTOR

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99

BIDEGORRI SAREA > ALDUNDIAK LURSAILAK EROSI DU ANTZUOLAN

Bergara-Urretxu bidegorri zatia, 2010erako erabilgarri

Bidegorri horrek 18 kilometro izango ditu, 3,50 metroko zabalera eta oinezkoek zein txirrindulariek erabili ahal izango dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak trenbide zaharraren Maltzaga-Urbina adarreko lursailak erosi ditu Bergara eta Urretxu lotuko dituen bidegorria egiteko. Hain justu, Antzuolako udal barrutiko lurak erosi ditu Aldundiak. Erosketa hitzarmena eguaztenean sinatu zuten, Donostian, Garapen Iraunkorreko diputatu Carlos Ormazabalak eta FEVEko lehendakari Dimas Sañudok. Antzuolako barrutiari dagozkion lurren truke 100.000 euro jaso ditu FEVEk. Eguaztenean sinatutako erosketa horri esker, Aldundiak guztira Ferrocarriles Vascongados trenbide adarra zenaren 107.471 metro koadro ditu, 34,865 eta 43,420 kilometro puntuen artean.

2008RAKO PROIEKTUA IDATZITA

Hitzarmena sinatzeko ekitaldian Garapen Iraunkorreko diputatu Carlos Ormazabalak esan zuen haren departamentua "proiektuaren idazketa esleitzeko fasean" dagoela eta gehitu zuen proiektua gauzatzen denean 18 kilometroko luzera izango duela bidegorriak. Horrekin batera aurreratu zuen



3,50 METRO Zabalera hori izango du eta 18 kilometroko luzera.

ENEKO AZKARATE

proiektua 2008ko ekainerako idatzita eta onartuta egongo dela eta 2010erako zabaldu nahiko lukeela. Aurrekontuari dagokionez, zazpi bat milioi euro izango da.

DATUAK

- > Luzera, 18 km.
- > Proiektuaren idazketa esleitzeko fasean dago eta 2008rako idatzita egongo da.
- > 2010erako erabilgarri egongo da.
- > 3,50 metroko zabalera izango du eta oinezkoendako eta bizikletendako izango da.
- > Bergara-Beasain (29,30 km) bidegorriaren parte da.
- > Zazpi bat milioi euroko aurrekontua du.

BIDEGORRI BIKOITZA

Hain zuzen ere, Bergara-Urretxu bidegorria 3,50 metro zabal izango da, eta oinezkoak eta bizikletak batera ibiltzekoa. Bestalde, zati batzuk ibilgailuek ere erabiliko dituzte inguruko base-rietara joateko.

Trazatuak hamar tunel ditu. Hori horrela, 60 metro baino luzeagoak diren tunelek eta bihurtuak dituztenek argiseinaleak izango dituzte. Argiztapen hori eguzki energiaren bidez sortuko da, Leitzarango tuneletan bezala.

Bergara-Urretxu tartea Bergara eta Beasain arteko bidegorriaren VI. ibilbidearen zati da. Beasainera arteko tartea 29,30 kilometro izango ditu.

OSASUNA > MINBIZIA

Umeen minbizia berbagai Bergaran

Minbizia duten umeen gurasoen Aspanovas elkarteak antolatu ditu jardunaldiak, eta bihar izango dira

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Gipuzkoako Aspanovas elkarteak, haur minbizidunen gurasoen elkarteak, jardunaldiak antolatu ditu biharko, zapatua, Bergaran. Interesa duen edozeinek parte hartzeko aukera dauka, irekiak dira jardunaldiak.

Miguel Altuna institutuan izango dira berbaldiak, 10:30ean hasi eta 13:30ak arte.

Donostiako eta Basurtoko ospitaleetako adituek berba egingo dute, besteak beste, neuroblastoma tumorearen, zainketa aringarrien eta dolu prozesuaren gainean. Jardunaldien hasieran Aspanovas elkarteak kideek elkartearen berri emango dute.

Elkarte hori orain dela bederatzita urte hasi zen lanean eta haren helburu nagusiak dira umearen eta familiaren bizi maila hobea izaten laguntzea, familiek elkarri laguntzea eta gaixotasunaren berri ematea.



MIREN ARREGI

Lan-etenaldiak Arrasateko ospitalean

Joan den eguaztenean, 15 minutuko geldialdia egin zuten Arrasateko ospitaleko langileek. *Gure eskubideen alde* lelopean, atari nagusiaren aurrean elkarretaratztea egin zuten hamarnaka lagunek, 11:00etatik 11:15era. Osakidetzak eskainitako lan hitzarmen kolektiboagatik protestatzeko egin zuten geldialdia.

MUGIKORTASUNA > BIDEGORRI SAREA ESKATZEKO MARTXA

Txirrinka elkarteak antolatuta, bizikleta martxa

Oñati eta Arrasate artean egingo dute martxa eta eskatuko dute bizikletaz eta oinez ibiltzeko bidesare egokiak egitea

AINTZANE IRIZAR > OÑATI

Oñatiko Txirrinka bizikletazaleen elkarteak antolatuta, bizikleta martxa egingo dute bihar, zapatua, Oñati eta Arrasate artean. Errepide nagusian egingo dute ibilbide osoa; izan ere, antolatzaile-

leen esanetan, ez dago ibilbide hori egiteko beste aukerarik. 15:00etan abiatuko dira Oñatiko plazatik. Arrasaten honako ibilbidea egingo dute: Zigorrola-Maala-San Frantzisko-Portaloia-Kontezino-Zigorrola. Martxaren amaieran, 19:00ak inguruan, otordutxo bat emango diete antolatzaileek martxan parte hartu duten guztiei, Oñatiko plazan.

Festa giroan egingo dute martxa, baina aldarrikapenerako ere izango da. Erakundeei eskatu nahi diete Debagoiengan bizikletaz edo oinez lasai ibiltzeko bidesare bat osatzea, horren gabezia larria ikusten dutelako.

TXIRRINKAREN HELBURUAK

Eguneroko joan-etorrietan bizikleta erabiltzen duen oñatiar talde batek sortu zuen Txirrinka elkarteak, orain dela lau bat urte.

Aitor Ugalde elkarteak kideetako batek honela azaldu du elkartearen helburu nagusia zein den: "Oñatin eta inguruetan mugikortasun aukera ezberdinak eta garbiagoak izatea eta horiek erabiltzea da gure helburu garrantzitsua". Horretarako, beharrezkoa ikusten dute erakundeek horren aldeko apustua egitea. Horixe eskatzeko da, hain zuzen ere, bihar arratsaldeko ekitaldia.



BIDEGORRIAK Jende ugari ibiltzen da bidegorrietan; irudian, Bergarakoa.

x.u.

EMUN-EK 10 URTE > ARRASATEKO AMAIA ANTZOKIAN EGINGO DUTE, 17:30EAN

EMUNek urteurreneko ekitaldi handia egingo du eguaztenean

Ospakizun ekitaldian EMUNen bilakaerari buruzko ikus-entzunezkoa aurkeztuko dute

Hainbat lagun ere omenduko dituzte; EMUNen sorrean eta hazkunderan ñagundu dutenak

MIRIAN BITERI > ARRASATE

EMUNek, lana euskalduntzeko kooperatibak, 10. urteurrena ospatzeko egitarauarekin jarraitzen du. Datorren eguaztenean, hilak 24, amaiera emango dio horri, ospakizun ekitaldi batekin. *Elkarrekin bidea egiten... eta elkarrekin ospatuz* leloa aukeratu du kooperatibak horretarako. Hitzordua Arrasateko Amaia antzokian jarrita dago, 17:30ean.

Ohiko agurrarekin ekingo diote ekitaldiari eta jarraian, *Hartu eta Emun* ikus-entzunezkoa ikusi ahal izango dute hara joaten direnek. Ordu laurdenean, kooperatibaren aurkezpena eta urteetan izan duen bilakaeraren berri emango dute horren bitartez.

ORDEZKARI ASKO

Erakunde publikoetako eta enpresetako ordezkarien hitzak ez dira faltako. EMUNeko lehendakari Ima Elexpuruk, Arrasateko alkate Ino Galparsorok, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikak, MCCko lehendakari Jose Mari Aldekoak eta Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olanok hartuko dute hitza esandako ekitaldian.

Omenaldiaren txanda iritsiko da ondoren. EMUNeko zuzendari nagusi Dani Larreak ez du horri buruzko informazio handirik eman gura izan: "Kooperatibaren sorreran eta hazkunderan

zerikusi oso garrantzitsua izan duten erakunde eta pertsonak omenduko ditugu", esan du.

Eguneroko jira-biran bertso antzerkiarekin amaituko da ekitaldia eta horren ondoren, Uar-

kape pilotalekura joango dira gonbidatu guztiak, luntxa izango dute-eta han zain. Urteurrena ospatzeko orain arte egin diren ekitaldien balorazioa ere egin du Larreak. Bi ekimenen arrakasta azpimarratu du bereziki.

ZUMAIARA IRTEERA

Enpresa barrura begira egindako ospakizunetako bat aipatu du Larreak. Irailaren amaiera aldean irteera egin zuten Zumaia-
ra. "EMUN-kide gehienak joan ginen", esan du. Horretaz aparte, *Motibazioa eta euskararen*

normalizazioa lelopean Arantzazun egindako jardunaldiak ere aipatu ditu: "Egitarauarekin asmatu egin genuen, helburu guztiak bete genituen-eta horretan. Hasierako aurreikuspenak gainditu egin genituen", azaldu du. 200 lagunetik gora elkartu ziren jardunaldietan.

Jakinaenez, EMUNek 10 urte bete ditu udazkenean. Lan esparruan euskara normalizatzeko prozesuan lan egiten duen kooperatiba da. Aurretik erronka handiak dituela amaitu du esaten Larreak.

Dani Larrea > EMUNeko zuzendari nagusia

"Lan asko geratzen da egiteke, hastapenetan gaude"

M.B. > BERGARA

10 urte bete ditu EMUNek. Lana euskalduntzeko kooperatibako zuzendari nagusi Dani Larreak orain arteko lorpenei eta hemendik aurrerako erronkei buruz hitz egin du.

Zein izan da urte hauetako lorpen handiena?

Kooperatiba bera gorpuztea eta, horrekin batera, Euskal Herrian zehar hainbat euskara plan martxan jartzea. Merkatuan ez gara bakarrak, baina pisua dugu.

Euskara planez hitz egin duzu. Zaila al da horiek martxan jartzea?

Eraldaketa prozesu bat da, ohitura batzuk alde batera laga behar dira eta beste batzuk hartu. Gazte-leratik euskarara pasatzea, alegia. Eta hori kosta egiten da. Ez da egun bate-tik bestera lortzen.

Horren harira, bezeroengana iristea kostatu egiten zaizue?



GOIENKARIA

Bezero bat lortzeko bat baino gehiago ukitu behar izaten da. Batzuetan bezeroak nahiko luke, baina momentu horretan ez datorkio ondo horretan sartzea. Horrelako kasu asko ditugu. Gaur egun, 160 proiektu inguru ditugu esku artean.

Nola ikusten duzu euskararen egoera lan esparruan? Lan asko geratzen dira egiteke?

Hastapenetan gaude. Egia da euskaraz funtzionatzeko euskara planik ez dela behar. Baina berez euskaraz funtzionatzen dutenak oso gutxi dira. Horrelako prozesu batean enpresen %1 baino ez zeudela sartuta esan zuen orain dela gutxi ELA sindikatuak. Erronka handiak ditugu.

Eta hemendik aurrera zer?

2004-08 epealdi estrategikorako plana bukatzen gabilza orain. Plan hori betetzen ari gara. Erreferentzialtasunarekin lotura duten adibide bi jartze-arren, aipa daiteke uda ostean ia bi milioi euroko lehiaketa bat lortu dugula, justizia administrazioa euskalduntzeko. Euskalgintzan mugitzen den parametroan kopuru polita da hori. Horretaz aparte, beste lokal batzuk zabalitzeko asmoa dugu. Datorren urtea hurrengo lau urteetarako erronkak lantzeko erabiliko dugu.



Arrasateko ekitaldia.

M.B.

POBREZIA

Gosea amaitzea eskatu dute Arrasaten

Ekitaldia egin zuen Zero Pobreziak herritarrek kontzientziatzeko

M.B. > ARRASATE

Pobrezia desagerrarazteko nazioarteko eguna izan zen eguaztenean. Hori dela-eta, ekitaldia egin zuen Zero Pobrezia plataformak Arrasateko Herriko Plazan, arratsalde partean.

Unai Agirre eta Jexux Mari Irazu bertsoariak hasiera eman zioten ekitaldiari. Jarraian, Arrasateko trikitalariak eta Goikobalu abesbatzakoak igo ziren agertokira.

2.700 MILIOI LAGUN

Alberto Iñurrategi mendizaleak gogorarazi zuen munduan, egunero, euro bat baino gutxiagorekin bizi diren 2.700 milioi lagun inguru daudela. Pobrezia ezaba daitekeela eta, beraz, "hiritar gisa presioa egiteko" gonbita egin zuen Iñurrategik.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

AZPIEGITURAK > OSPITALE BERRIAREN PROIEKTUA AURRERA DOA

Eskualdeko ospitale berria eraikitzen hasiko dira urtea amaitu baino lehen

Lehenengo faseko lanak asteotan esleituko dituzte; aurrekontua da 28 milioi euro

Azkeneko bilkuran onartu du Arrasateko Udalak ospitalea egiteko lursaila Jaurlaritzari ematea

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Aurrera doa eskualdeko ospitalea handitzeko proiektua. Arrasateko Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Osakidetzaren artean dagoeneko hitzarmena sinatu dute; hitzarmen horren arabera, Udalak Jaurlaritzari emango dio doan 2.730 metro koadroko lursaila, ospitalearen eraikin berria egiteko. Hitzarmenean jasotzen da, bestalde, Osakidetzak apartakalekuak egin behar dituela ospitalearen inguruan.

LEHENENGO HARRIA, LASTER

Jose Luis Angulo Debagoieneko eskualde ospitaleko gerentek adierazi duenez, proiektuaren lehenengo faseko lanak laster esleituko dituzte. Urriaren 10ean bukatu zen enpresen euren proposamenak aurkezteko epea eta

17 enpresa aurkeztu dira. Bizpahiru aste barru erabakiko dute zein enpresak egingo dituen lanok.

Horren harira, urtea amaitu baino lehen, azaroan edo abenduan, lehen harria jartzeko ekitaldia egingo dute agintariek.

LANAK HIRU FASETAN

Esan bezala, aurten hasiko dituzte lehen faseko lanak; fase horretan, eraikinaren zati bat egingo dute, ambulatioaren atzeko aldekoa, hain zuzen ere. Behin eraikin hori eginda, gaur egungoaren atzeko zatia, zati zaharra, bota egingo dute eta hantxe jarraituko dute eraikitzen. Hirugarren fasean, gaur egungo eraikinaren zati berria egokituko dute. Horrela antolatuta geratuko dira eraikinak: lehenengo fasean eraikiko dutena izango da



LEHEN FASEA Ambulatioaren atzeko aldean hasiko dira eraikin berria eraikitzen.

A.I.

ospitalearen muina: 120 ohe egongo dira hantxe, ebakuntza eta erditze gelak, unitate bereziko (UCI) bost ohe eta larrialdiak, besteak beste. Gaur egungo erai-

kin zaharra dagoen tokian egongo dira administrazioa eta zuzendaritza, laborategiak, egonaldi laburreko unitatea, harrera, ekitaldi-aretoa eta abar. Azke-

nik, gaur egungo eraikinaren zati berria jarriko dituzte kanpoko kontsultak, probak egiteko tokiak eta errehabilitaziorako gunea, besteak beste.



Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako Etengabeko Formakuntzako Ikastaroak
LANEAN ARI DIREN LANGILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROKAK (%100-a subentzionatuta)



HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IRRITIA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Ikastaroak	Orduak	Aurreikusitako datak
FABRIKAZIO ELEKTROMEKANIKOA (2. maila)		
Modulua : Fabrikazio mekanikoko makinaren prestaketa eta programazioa (275 ordu)		
CNC tornuaren prestaketa eta programazioa	40	2007 Azaroa
CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa	46	2008 Otsaila
Modulua : Txirbil-harroketara bidezko mekanizazioa (300 ordu)		
CNC tornoko mekanizazioa	50	2008 Urtarrila
Modulua : Muntatze eta mantentze mekanikoa (160 ordu)		
Krokisak	20	2007 Urria
Makinaren egiaztapena	20	2007 Urria
Mantentze mekanikoa	60	2007 Azaroa
Mantentze pneumatikoa	30	2008 Urtarrila
Mantentze hidraulikoa	30	2008 Martxo
Modulua : Automatismo elektrikoak , pneumatikoak eta hidraulikoak (185 ordu)		
Automatismo pneumatikoak eta elektropneumatikoak	40	2008 Urtarrila
Automatismo hidraulikoak	36	2008 Otsaila
Automatismo elektrohidraulikoak	30	2008 Apirila
Automatismo elektriko kableatuak	45	2008 Apirila
Automatismo programagarriak	40	2008 Maiatza
METAL - ERAIKUNTZAK (2. maila)		
Modulua : Giro naturaleko soldadura (310 ordu)		
Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura	80	2007 Urria
Elektrodo estali bidezko topekako soldadura	80	2007 Azaroa
Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura	80	2008 Urtarrila
Modulua : Giro babestuko soldadura (215 ordu)		
Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura	50	2008 Otsaila
Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura	50	2008 Martxo
Posizio horizontaleko TIG soldadura	50	2008 Apirila
Beste posizio batzuetako TIG soldadura	50	2008 Maiatza

Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Sailak % 100-ean lagundutako ikastaroak
LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROKAK

Telebista eta irrati antenen instalatzailea	310	Azaroa-Martxo
Mekanizatua	500	Abendua-Ekaina
Geriatrico laguntzailea	360	Otsaila-Ekaina

Ikastaroak arratsaldeko 16:00 eta 21:00 artean emango dira • Informazio gehiago eta inskripzioak IEFPS Aretxabaleta GLHBI, Etxebarri auzoa, z/g Tfñ.:943-7979 00
Web orrialdea: www.iaretxabaleta.com



HEZKUNTZA > IKASTURTEARI HASIERA EMATEKO EKITALDIA

MUK 3.684 ikasle izan zituen aurreko ikasturtean

Mondragon Unibertsitateko presidenteak aurreko ikasturteko memoria aurkeztu zuen

Arrasateko Amaia antzokian eginiko inaugurazio ekitaldian aurpegi ezagun asko ikusi ziren

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak 2007/2008 ikasturteari hasiera eman zion atzo, eguena, Arrasateko Amaia antzokian eginiko ekitaldi ofizialean.

Administrazioko eta enpresetako ordezkariak izan ziren inaugurazioan, hala nola Juan Jose Ibarretxe lehendakaria; Gipuzkoako diputatu nagusi

Markel Olano; MCCko presidente Jose Maria Aldekoa; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburu Tontxu Campos; eta Mondragon Unibertsitateko presidentea eta errektorea, Javier Sotil eta Josu Zabala.

Ekitaldiari hasiera emateko, Sotilek aurreko ikasturtearen memoria akademikoa aur-



ORDEZKARIAK Administrazioko eta enpresetako ordezkariak ekitaldiaren buru izan ziren.

M.B.

keztu zuen. Hain zuzen ere, 3.684 ikasle ikasi zuten. 3.554 ikasle etengabeko prestakuntzan jardun zuten eta 121ek, doktoretza programetan.

Eskaintza akademikoari dagokionez, berriz, Sotilek gogorarazi zuenez Mondragon Unibertsitateak hiru ezagutza-ere-

mutan garatzen du jarduera: zientifiko-teknikoa, enpresakoa eta humanistikoa.

Guztira, lehen eta bigarren zikloetako 25 titulazio, graduondoko beste 25 titulu eta sei doktoretza-ikastaro eskaini zituen. 800 ikasle inguruk praktikak eta karrera-amaierako proiektu-

tua enpresetan egin zituzten eta 188 ikasle atzerriko unibertsitateetan ikasi zuten. Unibertsitatearen aurrekontu bateratua 35.221.000 euro izan zen.

Sotilen aurkezpenaren ondoren, Jaione Gantzarain unibertsitateko doktore eta irakasleak hitzaldia egin zuen.

Garaian, teknologia, berrikuntza eta zientziari buruz eztabaidatu dute

Garaia Berrikuntza Guneak Espainiako parke teknologiko eta zientifikoko 120 ordezkari inguru hartu zituen eguaztenean eta atzo, eguena. Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren artean dauden mugak ezabatzen saiatu ziren konferentzien bidez. Aisialdirako astia ere izan zuten. Hala, Fagor eta Arantzazu bisitatu zituzten, besteak beste. Euskal gastronomia probatzeko aukera ere izan zuten. Irudian, Garaiaiko kudeatzaile Andoni Gartzia azaltzen da, jardunaldien berri ematen.



M.B.

ERREPIDEAK > ATZERAPENA AP-1 AUTOBIDEKO LANETAN

AP-1 autobidea zabalduko dute datorren urteko udan

Lanak 8 hilabeteko atzerapena dute; urtarrilean zabaltzekoak ziren

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Eibar eta Gasteiz lotuko dituen AP-1 autobideko lanek zortzi hilabeteko atzerapena dute. Autobide osoa 2008ko urtarrilean zabalik egotea aurrez ikusten bazuten ere, abuztura arte ez dituzte lanak bukatuko.

Oraingoz, Eibartik Arrasaterainoko zatia dago zabalik; gaur egun, azkeneko bi zatiak eraikitzen dihardute: Arrasate-lik Eskoriatzarako zatia eta

Eskoriatzatik Gasteizerainokoa. Arrasate eta Eskoriatza lotzen dituen urtarrilean zabalduko dute. Azkeneko zatia da atzerapena izango duena, 2008ko abuztuan zabalduko dutena. Zati hori da autobidearen zatirik konplexuena eta garestiena, 192 milioi euroko aurrekontuarekin. Konplexuena, batez ere, bi azpiegitura handi hartzen dituelako: Arlabango tunela, 3.377 kilometrokoa; eta Maringo biaduktua, 548 metroko luzerarekin eta 100 bat metroko altuerarekin.

Atzerapenaren arrazoiak azaltzeko agerraldia egingo du datozen asteotan Errepide Saileko diputatu Eneko Goiak Gipuzkoako Batzar Nagusietan.



ADOSATUAK SALGAI ELGETAN

353.000 €-tik aurrera

3 eta 4 gelako 110 m²-ko etxebizitzak

160 m²-ko partzelekin

bi autorentako 30 m²-ko garajearekin

Informazioa: 943 76 72 64



gure artekoak

OPEL ASTRA > Opel Astra automobila aski ezaguna da gure artean, urte mordo darama-eta merkatuan. Hirugarren belaunaldiko Astra automobila da orain merkatuan dagoena.

Mikel Tatiegi > Opel Berezaon kontzesionarioko arduraduna

"Bi automobil baten edukitzea da Opel Astra bat edukitzea"

AINZANE IRIZAR > BERGARA

"Automobil osoa eta orekatua da oso", dio Tatiegik, "oso egokia da automobil serioa nahi dutenendako, baita kirol-automobil itxurakoa nahi dutenendako ere". Barruko aldetik, kirol-automobilaren ukitua dauka, esaterako, kirol-automobilaren xasis baxua, aluminiozko pedalak eta larruzko bolantea.

Prezioa ere aipatzekoa da; izan ere, beherapen kanpaina du Opel etxeak, Oñatiko Berezaon kontzesionarioko Mikel Tatiegik azaldu digunez. Guztira, 4.590 euro merkeago dago automobila. Batetik, 2.750 euroko deskontua egin diote; bestetik, Prever Plana hirukoiztu egiten du Opel (1.440 euro ematen dituzte); eta azkenik, 400 euro aurrezteko aukera dago, 17ko gurpil-hagunak eta aire-girogailua doan ematen dituztelako.

SPORT SWITCH SISTEMA

"Bi automobil edukitzea bezala da Opel Astra bat edukitzea", dio Mikel Tatiegik. Izan ere, estetikari eta diseinuari ez ezik, gidatzeko erari dagokionez ere oso automobil osoa da, kirol-automobilak zein automobil serioagoak gustuko dituztenendako egokia. Sport Switch sistemari esker, automobilaren direkzioa-



Mikel Tatiegi, Berezaon, Opel Astra automobila erakusten.

A.I.

Opel Astra Sport 1.9 120 ZP

Prezioa	18.500 euro
Luzera	4,288 metro
Zabalera	1,755 metro
Maletategia	1,070 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	5,8 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	196 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	10,4 seg.
CO2 isurketak	157 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

ren eta azeleragailuaren jarrerak aldatu egiten dira; botoi bat sakatzea nahikoa da kirol-automobilaren jarrera har dezan automobilak.

Motorrari dagokionez, ez dauka aparteko potentziarik edo indarririk, baina zerbitzu oso ona eskaintzen du, bai kontsumoari bai errendimenduari dagokionez.

Azkenik, segurtasunari dagokionez, teknologia aurreratuenak ditu eta aipatzekoa da EuroNcap-en bost izarrak dituela, gehienezko segurtasunaren bermea eskaintzen duela, alegia.

etxeke leihotik



Iban Arantzabal > Goienako ikus-entzunekeen zuzendaria

Euskal Herriko Toledo diferentia da, sanua

Gustatzen jata Lope de Agirrek bere egin zeban herrixa. Ederra da, herri girua dago, sanua da herrixa eta euskaldun-euskalduna. Bizitzeko aukeratuko neuken herrixetako bat da. Eta diferentea dalako be gustatzen jata.

Diferentia ez dala? Udal webgunetik: *Hizkuntza propioa, nortasun nabaria... berezia da historiagatik, eta ondarea-gatik. Mende askoan Jaurerria izan zen eta geroago Konderria. 1845. urte arte ez zen Gipuzkoan sartu, eta horrek guztiak eman zion herri nortasuna eta herriko izatearen kontzientzia.*

Eta bai, egixa da, *is diferente*. Zuloagak *Euskal Herriko Toledo* (erlijioan pisuagaitik be bai?) deitzen zotzan eta oin *Kuba txikixa*-gaittik be ezagutzen da.

Topikuetatik aparte: Gipuzkoan azkenengo sartu izanaren antzekuak dira Ulma MCCn hain berandu sartu izana, triatloikuak Debagoieneko taldetik aparteko izatia, udal-aldizkarixa dauken bakarrak dira, Debagoieneko udaletan koloria aldatu da, baina herri honetan ez... Diferentia dira bai eta webgunian onartzen daben moduan berezixak. Hobiak? Txarraguak? Ezetz ba! Berezixak. Pittin bat bai, behintzat.

"Euskal Herriko Toledo eta 'Kuba txiki' moduan be ezaguna da herri diferente hau"

> Jaixak, esaterako. Auzune guztietan jaixak egittia ez da nobedadia. Kalietakuak, San Migelak, txikixak be bai... atari bakoitzian jaixak egitten hastia falta. Pentsau, bixamona be ospatu egitten da!

> Bixamon astelehenian mozorro asko kalia eta mozorrotzen dan bakoitzeko 4 euro emoten dittu Udalak. Hau be hantxe bakarrik ezagutu doten ohitturia da. Plazan pasiau eta poteua Udalaren kontura!

begi-bistan



Ama ahatea, umeak oilaskoak (Antzuola) 2007/10/10

Argazkia: Mirian Biteri.
Testua: Ainzane Irizar.

Txanbolin baserrian, ahatea lokatuta zegoela eta, oilo baten bi arrautza jarri zizkioten. Txitak jaio ziren eta familia kurioa osatzen dute orain. Kepak ondo zaintzen ditu guztiak.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxo bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Maidar Egues

KAZETARIA



Ana Landa

UR-BILATZAILEA



Igor Leturia

INFORMATIKARIA

Elhuyarrek ETBrendako egiten duen *Teknopolis* saioaren aurtengo denboraldia aurkeztuko du Maidar Egues arrasatearrak. Hamargarren denboraldia beteko du aurten zientzia eta teknologia saioak. Urriaren 21ean hasiko dira saioarekin, ETB1 eta ETB2 kateetan.

Gaur, egubakoitza, TVE1 kateko *Identity* lehiaketa saioan ikusi ahal izango dugu Ana Landa arrasatearra. Lehiaketan, hainbat pertsonaia ezkuturen lanbidea asmatu behar dute lehiakideek. Hain zuzen, pertsonaia horietako bat da Landa, Arrasateko ur-bilatzaile bat.

Euskalbar informetika programak 3.0 bertsio berria jarri du merkatuan eta Igor Leturia arrasatearrak parte hartu du proiektuan. Firefox nabigatzailean instalatu behar da programa hori eta aukera ematen du hainbat hiztegi erabiltzeko; Bergara aldeko hiztegia ere gehitu diote.

Aspanovas elkarteak, hau da, Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkarteak, jardunaldiak egingo ditu bihar, zapatua, goizean Bergaran. Miguel Altuna institutuko aretoan izango da hori. Elkartearen nondik norakoak azalduko dituzte kideek eta, bide batez, umeen minbizia biziaren gainean berba egingo dute hainbat espezialistak. Jardunaldi irekiak izango dira.

Itziar Baltzategi > Aspanovas elkarteko kidea

"Minbiziaz modu naturalean berba egin nahi dugu, batere dramarik barik"

ENEKO AZKARATE > BERGARA

Edurne Baltzategi bergarra da Aspanovas elkarteko kideetako bat. Orain dela zazpi urte egin zen elkarteko kide, 3 urteko alaba bati antzeman zioten minbiziari aurre egiteko laguntasuna topatze aldera. Biharko jardunaldian elkartearen gaineko azalpenak emango ditu.

Zer da Aspanovas?

Ume minbizidunen gurasoen elkarte da, Gipuzkoakoa. Horrelako arazo baten aurrean aurkitzen diren familiei arreta integrala eskaintzeko, gurasoek sortutako elkarte da. Izan ere, horrelako kasuetan gaixoak ez ezik, inguru guztiak pasatzen du txarto: familiartekoeak, lagunek...

Zer lan egiten du?

Eskatzen duenari laguntza psikologikoa eskaintzen dio elkarteak, terapia taldeak sortzen dira... Kontuan izan behar da minbizia ez dugula denok berdin bizi: batzuek distantzia jarri nahi dute besteekiko; beste batzuek gerturatu egin nahi dute, baina ez dakite zelan... Hala, zeure egoeran edo antzekoan daudenekin harremanetan jartzea garrantzitsua da. Bestalde, arreta integralaz gain, Donostiako Arantzazu ospitalean ere laguntasuna eskaintzen zaio behar duenari. Esaterako, umeak zaintzen dauden guraso edo familiartekoei bazkaria ematen zaie... Gaixoari ez ezik zaintzaileari ere arreta eskaini behar zaio, oso une gogorrek pasatzen baitituzte umearen gurasoek-eta. Bestalde, ospitalean ordenagailu gela bat ere ipini dute... Urteetan lanean jardun ostean gauza asko lortu dira lehen ez zeudenak. Orain, esaterako, minbizia daukaten umeak isolatuta daude...

Boluntarioen bidez egiten duzue lan?

Bai, laguntzaile talde bat dago. Zapatuetan umeekin jolas egitera joaten dira, gurasoak apur bat libratzeko. Edo gurasoek beste zeregin batzuk badituzte, jarduerak ludikoak antolatzen dituzte umeekin. Kontuan izan behar da umeak adin askotarikoak direla: 3 urtetik hasi eta 16 urtera artekoak zaintzen dituzte Arantzazu ospitaleko umeen unitate onkologikoan. Orain nahi dugu 18 urtera arte luzatzea adin muga hori, ze ikusten da 17 urteko neska-mutiko gaixo bat nagusiekin batera egoteak areagotu egiten



Itziar Baltzategi minbizia duten umeen gurasoen elkarteko kide da. Biharko jardunaldietan izango da.

ENEKO AZKARATE

baituela arazoa. Unitate onkologiko infantil baten, berriz, beste alaitasun edo gozotasun bat dago.

Zenbat lagunek osatzen duzue elkarteak?

86 bat familia gaude Gipuzkoan. Debagoienekoak zazpi bat gara. Arazo hau duten ia denak gaude elkartearen, ze ospitalean-eta elkarre honen gainean berba egiten baitiete arazoa dutenei. Gure elkarteko bi langilek astero egiten dute bisita ospitalera eta kasu berriren bat balego, harremanetan jartzen dira haiekin. Gaur egun halako arazoren bat duten ia ehuneko ehun elkarteko kide dira.

Beste herrialdeetan badira zuena moduko elkarteak?

Bai. Araba eta Bizkaiko elkarteekin ere harreman estua daukagu eta baita Nafarroan dagoenarekin ere. Urtean behin gutxienez elkartzen gara.

Beste zer jarduerak antolatzen dituzue?

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

"Minbizia ez dugu denok berdin bizi: batzuek distantzia jarri nahi dute; beste batzuek gerturatu, baina ez dakite zelan"

JARDUNALDIAK

"Minbizian espezialistak diren medikuak etorriko dira, baina oso modu ulergarri, arin, errazean egingo dute berba"

OSASUN ZERBITZUA

"Nire kasuan oso ondo portatu dira pediatrak, medikuak..."

Bihar, zapatua, egingo diren jardunaldiez gain, urtean behin egun bat eskaintzen diegu umei. Aurten Bergaran izango da, abenduaren 15ean. Marrazki lehiaketa egingo dugu elkarteko neska-mutikoekin eta baita ospitalean ingesatuta egon diren beste guztiekin ere. Gero, marrazki horiekin erakusketa egiten da. Meriendatxo bat ere egiten dugu eta amaitzeko umeendako jolas jarduerak... Gipuzkoa osoko ume eta gurasoak elkartuko gara.

Baduzue egoitzarik?

Bai, Donostiako Intxaurrenondo auzoan, Diputazioaren eraikin batean, Txara 1en. Beste elkarte batzuekin batera konpartitzen dugu eraikin hori. Hasiera batean ez daukagu lurraldeko beste herriren baten beste egoitzaren bat irekitzeko asmorik, gure elkartearendako nahikoa da daukaguna, ze dirua baita arazoa. Kontuan izan behar da bi langile dauzkagula eta haiei soldatak ordaindu behar zaizkie-

la. Enpresa laguntzaileek emandako diruarekin, erakunde publikoen diru-laguntzekin-eta finantzatzen gara.

Zein da jardunaldi hauen helburua?

Gure elkarte ezagutzera ematea eta gai honi zabalkundea ematea. Minbiziaz modu naturalean berba egitea, dramarik barik, eta gaixotasun honen gainean ahalik eta ezagutzarik handiena edukitzea. Horixe da helburua. Iaz Ordizian antolatu genuen eta aurten Bergaran. Aurreko urteetan Donostian egin izan dira, eta azkeneko urteetan gabilta eskualdeetara zabaltzen.

Zeinendako antolatu dituzue?

Edozeinendako, bailarako edozein hurbil daiteke bihar Miguel Altuna institutuko aretoa. Umeen minbizian espezialistak diren medikuak etorriko dira, baina oso modu ulergarri, arin, errazean egingo dute berba, edozeinendako interesekoak gerta daitezten berbaldiok.

Zu zeu zelan hurbildu zinen Aspanovas elkartera?

Orain dela zazpi urte nire alaba gaixotu zen udan eta udazkenean jakin nuen elkartearen berri. Sortu berria zen, ia hiru urte zeramatzan lanean eta 10 bat familia zeuden elkartearen. Lau familiak sortu zuten elkarteak.

Zelan antzeman zioten minbizia zure alabari?

Alaba txikiak, Iratik, 3 urte zituela, joan ginen pediatraren gana, Arrate Bengoaren gana, ohiko araketa medikua egitera, eta han antzeman zioten zerbait giltzurrunean. Wilms izeneko tumorea zeukan. Hala, oso azkar egin zituen gestioak eta garaz hartu zuten gaitza. Giltzurruna kendu egin zioten, garbitu eta kimioterapia saioak jaso zituen. Oso ondo ateratu zen dena eta gaur egun ondo dago osasunez, bizi kalitate oso ona dauka, beste edozein ume egiten dituen egiten dituen... 10 urte dauka gaur egun Iratik. Esan beharra daukat nire kasuan oso ondo portatu direla osasun zerbitzukoak, pediatraren gana hasita. Bestalde, Gureto erabakigarria izan zen Aspanovas elkartearen laguntza. Egia da gure kasuan familiak, lagunek, ingurukoek asko babestu gintuztela, baina elkarte oso lagungarria izan da.



zabalik

Estepan Plazaola

Edukazio onekuak

Siguem ben educats: parlem català (Izan gaitezen edukazio onekoak: egin dezagun katalanez) da Ferran Suay Psikologia doktore valentziarrak ematen duen hitzaldi baten izenburua. Eguntan Debagoienan izan da EMUNek (bide batez, zorionak GOIENKARIA egin zioten elkarrizketa interesgarria. Bertan azaltzen zuen goiko esaldi horren zentzua. Koadrillan 10 izanik, batek euskaraz ez jakiteagatik denak erdarara jotzea zela baloratzen zuen galdetzen zion kazetariak eta honakoa erantzun zuen: "Horrek ez du erakusten oso errespetuzkoak garela; oso sumisoak garela baizik. Gainera, etorri berriaren ikuspuntutik, marjinatea edo alboratzea da, ze ez zaio taldearen hizkuntzara hurbiltzen uzten".

Ferran Suayk eta Gemma Sangines bilbotarrak hizkuntza asertibitatea lantzeko TELP (taller d'espai lingüístic personal) izeneko tailerrak eskaintzen dituzte. *Asertibitate* hitzaren esanahi asko eman izan dira, baina honelako zerbait izango genuke: norbere sentimenduak, norbere eskubideak, beldurrik gabe, askatasunez, azaleratu eta defendatu ahal izatea eta besteenak ere halaxe hartzea.

Oso ekimen interesgarria iruditzen zait eta gure taldeetan (lagunartean, ikastetxeetako guraso-bileretan, lantokiko taldeetan...) landu beharrekoa. Besteak beste, adin-tarte batzuetan asko direlako euskaraz ia dena ulertzen dutenak baina beti erdaraz egiten diegunak.

Jakin dut 82 urteko andre bat hasi dela euskaltegian euskaraz ikasten. Emakume horrekin batera beste asko dira euskara hobetzeko ahaleginetan dabiltzanak. Zorionak, denei, eta izan gaitezen *edukaziño onekuak*: egin diezaiegun euskaraz.

"Jakin dut 82 urteko andre bat hasi dela euskaltegian euskaraz ikasten"

"Izan gaitezen edukaziño onekuak: egin dezagun euskaraz"

herritarrak galdezka

ORDUTEGI ALDAKETA NOIZ IZANGO DA?

Laster iritsiko da erlojuari orratzak ordubete atzeratzeko eguna. Horren harira, irakurle batek jakin nahi du zein egunetan izango den hori, eta ea energia aurrezteko egiten den gauza ote den.

Bada, urriaren 27tik 28rako goizaldean aldatu beharko dugu ordua. Hain justu, 03:00etan ordubete aurreratu beharko dugu erlojuak; 02:00etara, hain justu ere. Modu horretan, udako ordutegiari amaiera eman eta negukoari hasiera emango diogu. Bestalde, egunak 25 ordu izango ditu.

Ordu aldaketarena Europar Batasunak ezarritako araua da eta estatuan erregulatzen du 236/2002 Errege Dekretuak. Arautegi horrek zehazten du udako ordutegia hasiko dela martxoko azkeneko domekan eta bukatuko dela urriko azkeneko domekan.

Aldaketa horren aurrekariak bilatu behar dira XX. mende hasieran. Espainiako Estatuan, esaterako, 1918. urtean aldatu zen lehenengo ordua, ikatza aurrezteko helburuarekin. Hurrengo urteetan ere hainbat ordutegi aldake-

ta izan ziren, baina ez zuten urteroko jarraipenik izan; aldizkako aldaketak izan ziren. 1950etik 1973. urtera ez zuten inongo ordu aldaketarik egin.

Petrolioak 1974. urtean jasan zuen krisia izan zen berriz ere ordutegi aldaketei ekiteko arrazoia, Europa osoan. Horretarako argumentazioa izan zen energia aurrezten zela argiztapenean. Ordutik hona Europako herrialdeek aurreratu eta atzeratu egi-

ten dute ordua. Dena den, beti egon izan da honako debatea: benetan beharrezkoa da ordua aldatzea?

2008. URTEKO EGUTEGIRIK ATERAKO DU DEBAGUNEK? **Bergarako irakurle batek egin digu galdera hori. Debagoieneko euskara elkartearen bilguneak datoren urterako egutegirik kaleratuko duen jakin nahi du.**

Galdera horri erantzuteko jo dugu Bergarako euskara elkartera, Jardunera, eta han esan digute baietz, azkeneko urteetan bezala aurten ere aterako duela Debagoieneko egutegia. Abendu hasierarako aterako dituzte, "Durangoko azokarako, seguru", esan dute. Ohi bezala, elkarrekin bazkideek etxean jasoko dute egutegia eta bazkide ez direnek, euskara elkartearen bulegoan erosi ahal izango dute.

Urtero bezala, hilabete bakoitzak antzinako argazki bat erango du lagun. Aurtengo berrikuntza da argazkian ageri den lekuaren gaur egungo argazkia ere jasoko duela egutegiak, lekuak izna duen bilakaera eta eraldaketa erakusteko asmoz.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidalguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrakiz

Unai Busturia



Goienkaria

Argiraratzaillea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Edu Mendibil (Herriak), Aitziber Aranburuzabala (G2a), Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)
Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Aintzane Irizar, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barroso Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Fausto Berazadi, Itxaso Berezibar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilu Unamuno.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxia • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jauriritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Fokuen itzalean

Imanol Murua Uria

www.berria.info/blogak/imanol

Eduardo Zaplanak neurri batean arrazoi du, Zapaterok atzo «ordenamendu juridikoaren orogarririkin» erantzun zuela nabarmendu duenean. Herri galdeketak egiteko Espainiako Gobernuaren edo Gorteen baimena behar duela gogorarazi dio -beraz, Ibarretxeren egitasmoa ez da berez legez kanpokoa, baimena emanez gero legezkoa bailitzateke-, «egin ezin dena» ez

duela egingo ziurtatu du eta, bi gobernuen arteko lankidetzarekin jarraitzeko asmoa duela adieraztean, elkarrizketa horien mugak beti «legaltasuna, Konstituzioa eta Zuzenbide Estatuak» izango direla.

Euskal gatazkari konponbidea emateko Jesus Egigurenek aspaldi proposatutako errezetaren bi osagaietatik bakarrari heldu dio, honenbestez, Zapaterok. Egigurenen errezetan, euskal alderdiek erabakitakoa gauzatzeko legeriak aurreikusitako bideak errespetatuko dituztela hitz eman beharko lukete euskal erabaki esparruaren aldekoek, eta euskal

alderdiek hitzartutakoa Madrilgo Gortean bere horretan onartuko litzatekeela hitz eman beharko lukete, aldi berean, Espainiako erabaki esparruaren aldekoek. Zapatero, atzo, aurreneko partearrekin bakarrak akordatu zen: legalitatea bete beharra. Ez dira beste osagaiari buruz hitz egiteko garaiak, martxoko bozok pasa bitartean behintzat.

Desadostasunak sakonak dira, baina ez PSOEn eta EAJren harremanaren erabat garratzeko beste: izan ere, EAJko negoziatzaileentzat, Zapaterok Ibarretxeri emandako ezezko biribila ez da oztopo

plazara

Eguztenean Pobreziaren Kontrako nazioarteko eguna izan zen. Hala, pobreziaren gainean hausnartu du lerrootan Maitane Igartuak. Haren

esanetan, pobrezia egoera bat da, "edonori gerta dakigukeen egoera bat". Harekin buka daitekeela uste du eta baita borondate han-

dia behar dela ere. Norbanakoen jarrera aldaketak, agintariak estutzeak... lagungarri dira pobrezia-ekin bukatzeko bidean.

Maitane Igartua *

Pobrezia

Pobre geratzen zaizkit hitzak ele honen aurrean. Orri zuri bat parean eta pobreziari buruzko iritzi artikulu bat idatzi beharra, lortuko al dut? Eguzteneko galdera datorkit burura, benetan sinisten al duzue pobreziarekin amaitzea posible dela? Bai ba, posible behar du izan, oraingo orri hau betetzearena bezala, samurra ez, baina lortzeko modukoa bai.

Aurrena informazioa bildu beharko dugu, ingurua aztertu, gertuko ingurua, eta urrunago dagoena baita, zentzumen guztiak adi izanda. Kale ertzean bere traste guztiak inguruan izan eta lo dagoenaz jabetu, amonaren farmaziako kexuez, horren *ararro* berba egiten duen horretaz, beraiekin hitz egin, galdetu, bate-tik eta bestetik informazioa bilatu eta bildu.

Informazioa izanda hausnartu egin beharko dugu, egoeraren zergatia bilatu, zerk bultzatuta dagoen pertsona edo herrialde hori egoera horretan, zer egin dezakegun egoera hori aldatzeko, edo zeini eska diezaiogekun zerbait egin dezan. Agian kalean lo egiten duen Joanek lehen bulegoko lana zeukan eta gaitz luze baten ondorioz lanetik bota zutenean, egoerari aurre egiten jakin ez zuelako dago horrela. Agian amona Faustinak bere pentsio baxuarekin hil bukaerara heltzeko zailtasunak izaten dituelako izaten da beti kezu farmaziara heltzean. Agian, bere herrialdean aurrera egiteko aukerarik izan ez duelako dago Mluaden gurean, eta agian herrien arteko erlazio ez justuak izan daitezke aukeren desoreka hauen arrazoi.



MIKEL ARROIABE

Jendea pobre dela edo pobre ez dela esan baino, pobretuta edo pobrezia egoeran dagoela edo ez dagoela esango nuke, egoera bat dela, edonori gerta dakigukeela momenturen batean pobretuta egotea. Egoera honetan egonda ere, graduak egon daitezke, eta batzuk beste batzuk baino okerrago egon, eta arlo ezberdinetan gainera.

Pobrezia ez da diru sarre-rarik ez izatea soilik, pobrezia hori baino askoz gehiago da. Babestuak izateko aterperik ez izatea da, gaixorik egotea eta sendatzeko medikurik ez izatea, eskolara ezin joan eta horren erruz irakurtzen ez jakitea, askatasun falta, etorkizuz-

"Jendea pobre dela edo pobre ez dela esan baino, pobrezia egoeran dagoela edo ez esango nuke; edonori gerta dakigukeen egoera dela"

"Hitz egin eta hausnartzearekin soilik ez dira egoerak aldatzen; ekintzak behar dira"

naren beldur izatea egunean egunekoa bizi behar izanagatik, eta abar.

Beraz, horretaz jabetu eta hausnartzea ez dago soberan. Baina horrekin ez da nahikoa izango pobreziarekin amaitzeko. Gero, ekintzetara pasa beharko gara. Hitz egin eta hausnartzearekin bakarrik ez direlako egoerak aldatzen, hitzetatik ekintzetara pasa beharko dugu. Badugu saiatzea, jarrera aldaketa txiki askok onura handiak ekar ditzakete. Eta guztiok batzea xede horrekin garrantzitsua da, bakoitzak ekarpen ezberdinak eta guztiak aberasgarriak ditugulako. Jarrera aldaketa pertsonalek, agintariak estutzeak pobrezia desagerrarazteko konpromisoak bete ditzaten, lagundu egingo dute pobreziarekin amaitzeko aurrerapausoak eman daitezen.

Mundu mailan estaturuek Milurtekoaren Garapen Helburuak betetzeko konpromisoa hartu zuten pobreziarekin amaitzeko lehen aurrerapauso bezala. Saiakera guztiak lez, baditu bere akatsak (askotan gertatzen da lehen aldian ez egitea guztia perfektu), baina egin beharra dago, bestela ez goaz eta sekula aurrerantz. Orain, konpromiso hori ez da beharko zen neurrian betetzen ari, horregatik presioa egin behar zaie benetan esandakoa bete dezaten.

Erraza ez baldin bada ere, posible da pobreziarekin amaitzea.

*Maitane Igartua, Arrasateko Zero Pobrezia plataformako kidea

zer deritzozu?

www.goiena.net

Pobreziaren aurka egiten duzu zerbait?

BAI	%25
EZ	%75

> EZ
Nik ez. Egia esan horretan pentsatu ere ez dut egiten eta esango nuke oso jende gutxik pentsatzen duela horretan. Ondoegi bizi gara gu halakoetan pentsatzeko.
Imanol

> EZER GUTXI
Ezer gutxi egiten dugula uste dut. Ezer ez dugula egiten ez esatearren. Askota egiten duguna da sinadura bota Pobreziaren Kontrako Nazioarteko egunean.
Irene

> SAIAITZEN NAIZ
Nik uste dut badela jendea kontzientzia duena eta saiatzen dena pobreagoak direnak laguntzen. Nik, esaterako, umetxo bat Ertamerirako umetxo bat babesten dut.
Alex

> EZ DAGO KONTZIENTZIARIK
Ez dago batere kontzientziarik, eta ni neu naiz hori onartzen lehenengoa. Poltsikoak beteta ditugun bitartean besteak zer axola?
Amaia

DATORREN ASTEKOA: Uste duzu ordua aldatzen dela energia aurrezteko?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

izan Zapateroren aurrekontu proiektuari babesa agintzeko. Zapateroren ezezkoa hain biribiltzat ez daukaten seinale. Edo, karta joko bakarria Ibarretxerena ez duten seinale. Edo, besterik gabe, politikaren bideak antzemanekin diren seinale.

Onkotxipa

Joxe Arantzabal
www.goiena.net/blogak/faroa

Atzo Galdakaoko ospitalean izan nintzen, kontrol eguna nuen-eta. Pozik

itzuli nintzen etxera, azterketen emaitzak onak izan baitziren. Berba bat ere ekarri nuen handik: onkotxipa. Jesus Ojanguren medikuak aipatu zidan giza genoma osatu zenetik, minbiziaren inguruko ikerkuntza izugarri aurreratu dela, batez ere onkotxipei esker.

Onkotxipak txip bereziak dira, biotxip edo ADN txipen aldagai bat, bereziki diseinatuak minbiziaren aztertzeko. Gero jakin dut biotxipak direla beirazko edo beste material bateko xafla txikiak, zentimetro gutxikoak, eta itsatsita daramatela milaka giza gen,

ilaratan eta zutabetan eratuak. Erabiltzen dira lagin bateko gen kopuru handiak aztertzeko (odolekoak, ehunekoak edo tumor batekoak) denak batera, eta oinarritzen dira geneen propietate batean, zeinaren bidez beste gen batzuetara itsasten baitira, berdindin berdinak direnean.

Jesusek esan zidanez, bost urte barru gaur egungo ikerkuntzek emaitza ikusgarriak eragingo dituzte, eta horiek erabat aldatuko dute diagnostikoak egiteko modua eta tratamendua bera ere, kasu askotan. Hala bada, hala biz, eta ez bada, *ora pro nobis*.

koplak

Julen Iriondo

Gurpil zoroa

Sarri esaten dute bakeak ez duela preziorik ta berehala salgai daukate boto sortaategatik.

Bono, bono batzuentzako zer ote da demokrazia herri kontsulta deitu ezkerotankea ta polizia.

Alperrik bidaia Ibarretzek Madrileran egin duna alde aurretik baikenekien eskea ta erantzuna.

Erantzuna izan baldin bazen esperotako bidetik bi ordu zertan egin zituzten jakin gurako nuke nik.

Lenago ere eramane zuten hara Ibarretxe plana atea itxi egin zioten ta hor geratu zan dana.

Beraiekin ezin baldin bada beharko du haiek gabe bultza dezagun denok batera konponbidearen alde.

Alonso...

Mikel Rodriguez
Arrasate

Nork irabaziko du? Niri bost, egia esan. Baina beste behin espainiar chauvinismoa sufritu behar izan dugu hedabideen aldetik. Tele 5, Cadena Ser, egunkari piloak..., denak asturiarraren alde (logikoa), baina ingelesaren aurka txarto esaka ibiliz (ez hain logikoa). Espainiar nazionalismoa berriro ere agerian. Halakorik bada ala? Patriotismo Constitucional deitzen ei diote. Bai, beste hark Frankismoa aparteko lasaitasun aroa izan zela esan duen moduan. Kendu itzazue mozo-roak: ager zaitzete zaretan moduan, ingelesak edo frantziarrak bezala, zuek ere nazionalistak zaretelako, nazionalista espainolak. Eta domekan irabaz dezala onenak. Niri bost nor den.

Auzoa ziki-zikin

Marilu Unamuno
Bergara

Bergarako Agirre auzoko bizilagun bat naiz eta nire kexa azaldu nahi dut gure auzorako sarbidearen egoera dela-eta. Batez ere zikin dagoelako agertu nahi dut kexa. Kontua da auzorako sarbide horretan, Candy enpresaren ondoan, kamioiak egoten direla aparkatuta. Batzuetan errepidearen ertzean (desegoki) eta beste batzuetan ondoko aparkalekuan. Kamioi horiek izaten dira jeneralean kanpokoak, beste herrialde batzuetakoak, Candyra kargatzera datozenak. Eta kamoi gidariei tokatzen zaie behin baino gehiagotan lo-eta bertan egitea.

Beste euskararen festa bat

Ander Etxebarria > Arrasate

Oraingo domekan da Nafarroa Oinez. Hor daukagu beste euskararen aldeko festa bat, ikastolen aldeko festa bat, Nafarroako ikastolen aldeko jaia. Oraindik ahoan daukagu azken Kilometroak 07k utzi zigun zapore gozoa, Bergaran antolatu zen jai bikaina. Bide batez, zoriondu nahi ditut Aranzadi ikastolakoak eta egun horretan zein urte osoan zehar lanean jardun zuten boluntario guztiak. Egindakoagatik, *chapeau!*

Gaur egun ere Kilometroak beharrezkoa den moduan, beharrezkoa da Nafarroa Oinez ere, euskarari bultzada ematea eta hezkuntza proiektu nazionalari bultzada ematea beharrezkoa den moduan. Eta gure babesa eta laguntasuna behar dute Nafarroako ikastolek, batez ere Viana bezalako eremu ez hain euskaldun batean. Horregatik animatu nahi zaituztet domekan Vianara joatera, laguntzera ezin baduzue joan, behinik behin jaiaren parte hartzera eta hangoei babesa ematera.

Eta aparkaleku horretan eta kamino bazterrean zaborra batzen da: plastikozko poltsak, plastikozko ur botilak... dena zikin eta negargarri geratzeraino. Esan behar da Kilometroak egunaren bezperan Cespa enpresako kale-garbitzaile bat aritu zela ingurua garbitzen eta txukun eta garbi laga zuela. Baina handik astebetere hasi dira berriro ere poltsak eta botilak agertzen. Esan beharra dago, era berean, poltsak, botilak eta horrelakoak batzen direla batik bat, baina horrenbeste zabor pilatu denez, telebista, aulki eta bestelako traste zaharrak botatzen ere hasi dela jendea.

Aparkaleku horren jabea nor den ez dakit, Candyrena den edo Udalarena den, baina uste dut biek dutela erantzukizuna. Candyk, bere kamioilariak erabiltzen eta zikintzen dutelako ingurua. Eta Udalak, bere ardura ere badelako herri barruko kaleak bezala auzoak

ere garbi edukitzea. Hortaz, eskatu nahi diet bie ingurua garbi egon dadin neurriak har ditzatela. Hasteko, zaborrontzi, kontainer edo nahi dena jar dezatela, Udalak edo Candyk. Eta, bestela ere, zaborra pilatzen bada, garbitu dezatela. Bide batez, ez litzateke txarto egongo Candyk eskatzea kamioilariak garbiagoak izan daitezela.

Uraren tarifa egokiagoa

Asier Gabilondo
Bergara

Bergaran bizi naiz eta gure herriko bizilagun batzuek daukagun kezka eta ezinegona azaldu nahi dut. Izan ere, Bergarako Udalak dauka zehaztuta gutxieneko ur kontsumoaren tarifa bi hilekoa 40 metro kubikotan, hau da, 40.000 litrotan (etxebizitza

berean bizi diren bi lagunentzako gutxieneko ur kontsumoa: 11 metro kubiko, 11.000 litro).

Gutxieneko kontsumo hau larregikoa iruditzen zaigu, ez datorrelako bat familia askoren batez besteko benetako kontsumoarekin eta ura aurrezteko edozein kontzientziaren aurka doalako. Tarifa horrek ez du aintzakotzat hartzen familia batek egiten duen ur kontsumoa eta gutxieneko gastu bat ezartzen zaio, benetako errealitatearekin zerikusirik ez daukana.

Era berean, kontraesan bat iruditzen zaigu Ur Partzuergoaren fakturan ura aurrezteko aholkuak ematea, gutxieneko kontsumura heltzen ez direnek ere kopuru jakin bat ordaindu behar badute. Hortaz, nahiko genuke Bergarako Udalak tarifak egokitzea familien benetako ur kontsumora; izan ere, horrela ura aurreztera animatuko litzateke jendea eta uraren erabilpen egokiagoa egingo genuke.

Hezkuntza eredu ezberdinak

Aitziber Etxebarria Aranzabal
Bergara

Kataluniako ereduari buruz eta beste hainbat gauzaz jardun zuen Estepan Plazaolak txoko honetan aurreko astean. Iritzi artikulua horretako hainbat puntu argitu nahiko nituzke ondoren.

1. Munduan hezkuntza eredu asko daude, zuk aipatu zenuen bezala Kataluniako ereduak; Finlandiak ere bere hezkuntza ereduak dauka; Alemaniak ere bere hezkuntza ereduak izango du; Quebecen berea; Italiak berea e.a., eta horrela milaka aipatu genitza-

ke. Guztiak interesgarriak izango dira eta guztiak izango dituzte beraien defendatzaileak.

2. Beste puntu batean ikastolen betebeharrak buruz hitz egiten duzu; kalitate hezkuntza eskaintzea, gizarteko sektore ahulenei aukerak eskaintzea, etorkinei ateak zabaltzea, euskararen normalizazioa...

Ados gaude betebeharrak bai eskola publikoan eta bai ikastola kontzertatuetan berdinak direla, baina zuk honen ondorioz laguntza berdinak eskatzen zenituen. Nik formulatxo honi beste ezaugarri bat gehituko nioke, betebeharrak berdinak badira eta laguntzak ere berdinak izan behar badira, gestioa ere berdina izan beharko litzateke.

3. Aipatzen duzu Aranzadi ikastolak 700 ikasle dituela eta bertako ikasleen gurasoek ere zergak ordaintzen dituzuela. Gogorarazten dizut Bergaran Aranzadi ikastolak aparte beste 4 ikastetxe ere badaudela, beste kontzertatu bat, Mariaren Lagundia, eta beste hiru sare publikoan, San Martin Herri Eskola, Ipintza Institutua eta Miguel Altuna Institutua. Bertako ikasleen gurasoek ez ezik, herritar guztiok ere ordaintzen ditugu zergak eta zerga horiekin diru publikoa lortzen da, gestio publikoarekin zerbitzu publikoak bultzatzeko eta ez gestio propioa duten kooperatibak bultzatzeko; gestio propioa dutenak (kasu honetan, kontzertuetaz aparte) finantziario propioa lortu beharra daukate.

Azkenik eta amaitzeko esan beharra daukat gustura eduki dudala iritzi trukaketa hau, baina nik bertan utziko dut ez baitut nahi afera honekin irakurlegoa aspertzea, ondo izan eta beste bat arte.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Hezurren kalitatea zain ezazu. Hezur-dentsitometria orain Arrasaten.

CG

CONSULTORIO GINECOLOGICO



Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 21
Irun: 943 61 78 88



LORTU DUGUNAREN SEINALE



Asko da egiteko duguna
baina 10 urte
hauetako emaitzak
begi bistakoak dira

ESKERRIK ASKO
LANA EUSKALDUNTZEKO
DINAMIKAN MURGILDUTA
ZAUDETEN GUZTIOI



OSPAKIZUN EKITALDIA ELKARREKIN BIDEA EGITEN...

NOIZ: 2007ko URRIAK 24

LEKUA: Amaia Antzokia. ARRASATE

ORDUA: 17:30



Informazio gehiago: www.emun.com/10urte
www.lantalan.com

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4

T: 943 71 25 49

F: 943 71 17 79

asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.

T: 943 71 21 12

F: 943 71 22 68

zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4

T: 943 76 53 53

EKONOMISTAK

ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBARRIA

ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behe

T: 943 533 888

F: 943 533 865

uribe.arrobi@euskalnet.net

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartera esk.

T: 943 79 51 25

F: 943 71 19 85

URIBESALGO@telefonica.net

GESTORIAK

EGUREN

BERGARA / Irala 3

T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma

T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 71 23 91** zenbakira.

MOKAUA

**TALDEA:
LOGELA MULTIMEDIA**

IKUSKIZUNA

Non:

Arrasateko Amaia Antzokian.

Noiz:

Urriaren 21ean, domekan, 20:00etan

Sarrera:

5 €

Sarrera salmenta	
	SERVIKUTXA KUTXAZAIN-SAREA
	943 00 12 00
	www.kutxa.net



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Logela Multimediak aurkezten du

mokaua
multimedia ikuskizuna (live)

 Logela.org



Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **BERGARA**
Irala kaleko lanak Gabonen ostean jarraituko dituzte > **24**



> **ARETXABALETA**
XI. gastronomia eta folklore Jaia ospatuko dute domekan > **32**



> **ESKORIATZA**
Perretxikoen gaineko jardunaldiak aste bukaeran > **35**



> **ANTZUOLA**
Larrugintza Zentroa hurrengo urterako bukatuko dute > **38**

KULTURA > BERGARA

Zabalotegi aretoa egokitze lanak hasiko dituzte hurrengo astean

ZABALOTEGI

122 lagunendako toki izango du Zabalotegiko aretoa

EMANALDIK

Kontzertu txikiak, antzerkia, ipuin kontalari saioak eta zinema jasoko ditu

ZORTZI HILABETE

Lanak ekainerako amaituta egotea espero dute udal arduradunek

EDU MENDIBIL > BERGARA

Datorren astetik aurrera Zabalotegiko aretoa egokitze lanak hasiko dituzte. 2005eko udaberrian Novedades zinema aretoa itxi zutenetik ez dago Bergaran kultura emanaldietarako areto aproposik, eta Enara Minguez Kultura zinegotziak azpimarratzen duen moduan, "kultura mailan dagoen beharra hein batean beteko du Zabalotegik udatik aurrera". Lanak, esan bezala, astelehenean bertan hasiko dituzte eta ekainerako amaitzea espero dute.

122 ESERLEKU

Behin lanak amaitutakoan 122 lagunendako toki izango da Zabalotegiko aretoan. 122 eserleku horietatik bi ezinduendako izango dira. Gaur egungo egiturarekiko nobedade bakarretakoa hauxe izango da: komunak eserlekuen atzealdean jarriko dituztela. Aldagelak, berriz, ezkerreko pasealekuan egongo dira, sarreratik begiratuta.

Goiko solairuari dagokionez, ez da jendearendako erabilgarri egongo eta han kokatuko dituzte bulegoak, biltegia, instalazioen gela eta proiektio gela. Erabilerak guztiz definitzeko dagoen arren, udal arduradunen asmoa honakoa da: kontzertu txikiak,



ZABALOTEGI Egokitze lanak egin ostean, kultura emanaldiak antolatuko dituzte bertan udatik aurrera.

GOIENKARIA

antzerki emanaldiak, ipuin kontalari saioak, txotxongiloak, hitzaldiak, diapositiba emanaldiak eta zinema emanaldiak. Ikus-teko dago zinema proiektioak edo DVD formatukoak jasoko

dituen Zabalotegiko aretoak. "Hori aztertze dago. Dena dela, zinema areto bat baino zerbait gehiago izatea nahi dugu", dio Enara Minguezek. Agertokiak 73,45 m²-ko azalera izango du.

Goitu Eraikuntzak SL enpresak egingo ditu lanak astelehenetik aurrera eta lanen zuzendaritza Estudio y Proyectos SLko Esti Igartuak eramango du. Aurrekontua 349.000 euro ingurukoa da.

Kopuru horri ikus-entzunezkoen materialeko aurrekontua eta ekipamendukoa gehitu behar ko zaio. Ikus-entzunezkoen materiala erosteko Soimua enpresaren aholkularitza izango du Udalak.

Garai bateko areto handien lekua hartu dute ibarrean dauden areto berriek

Atzean geratu dira garai bateko areto handiak; ibarrean Arrasateko Amaia da irauten duen bakarra. Ikuskizun txiki-ertainetarako Kulturateko aretoetako bat erabiltzen dute, gaur egun zaila delako 150etik gorako aretoak kultura emanaldiekin betetzea. Horrela, areto xumeagoak egiteari ekin diote hainbat udal. Aretxabaletan, esaterako, 100 lagunendako lekua izango duen aretoa izango dute laster. Antzuolan, Sagastin egiten diharduten kultura eta gizarte etxean, areto multifuntzional bat egingo dute. Eta Oñatin (kultura etxeko zinema aretoa, Santa Ana, gaztelekua), Eskoriatzan (Ibarraundi eta HUHEZIren aretoa) eta Aramaion areto egokiak dituzte. Elgetako Espaloia Kafe Antzokia da ibarreko *izarretako* bat. Zabaldu zutenetik sendo jarraitzen du, programazio bikaina eskainiz; hainbat kontzertutan 700 lagun batu dira han. Hala ere, tamainak baino gehiago, programazioak izaten du garrantzi handien jendea erakartzeko orduan.



Espaloia Kafe Antzokia 2004ko ekainean zabaldu zuten Elgetan.

GOIENKARIA

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Egubakoitza, 19	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Zapatua, 20	Español	Araba Etorbidea 14	943 79 18 65
Domeka, 21	Ruiz	Maalako Errebala 31	943 79 14 09
Astelehena, 22	Etzeberria	Zarugalde 42	943 77 16 30
Martitzena, 23	Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 15
Eguaztena, 24	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguena, 25	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 22 26

BERGARA

Egubakoitza, 19	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Zapatua, 20	Camacho	Oxirondo 4	943 76 11 74
Domeka, 21	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Astelehena, 22	Zabala	Barrenkale 25	943 76 16 87
Martitzena, 23	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguaztena, 24	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 25	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15

OÑATI

Egubakoitza, 19	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Zapatua, 20	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Domeka, 21	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 22	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Martitzena, 23	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 24	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 25	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

ARETXABALETA

Egubakoitza, 19	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Zapatua, 20	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 21	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 22	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 23	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 24	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 25	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalteingotak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRIAOK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 53 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67

Kiroldegiak

Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53

Udalak

Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urbarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Urbarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Sorluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarretetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietza, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.


ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
07:50	07:50	08:05
09:00	09:00	09:15
10:15	10:15	10:30
11:15	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 20

Larunbatean eguraldi atseginarekin jarraituko dugu. Eguzkia nagusituko da berriro ere; zerua oskarbi edo hodei bakanekin mantenduko da.




Domeka, 21

Domekan haizeak ekialdetik joko du eta oro har laino gutxi izango ditugu. Giro polita baina fresko samarra izango dugu.

EUSKAL HERRIAN

Zapatuan eguraldi ona izango dugu. Eguzkia nagusituko da aste bukaeran. Haizea aldakor ibiliko da, ekialdekoa nagusituz. Tenperaturari dagokionez, minimoek dezentegingo dute behera, barnealdean bereziki. Maximoek aldiz, bere horretan jarraituko dute.



oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> Mendi irteera Besaide elkartearekin

Elkartearen 50. urtemugako ospakizunen barruan egingo dute irteera, oraingo domekan. Biasteri eta Oion arteko bidea egingo dute, GR-38 ibilbideko zati bat.

BERGARA

> Turismo Bulegoa laster zabalduko dute

Urriaren 31n zabalduko dute, hain justu, eta azaroaren 4ra arte egongo da zabalik. Ordutegia izango da: lanegunetan, 10:30-14:00 eta 16:30-19:30 eta domeka eta jaiegunetan, 11:30-14:30. Bisitaldi gidatuak doan egingo dituzte.

BERGARA

> 1953an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 17an egingo dute afaria, Agorrosin tabernan. Gero, dantzaldia egongo da. Izena emateko azken eguna da azaroaren 15a. Horretarako jo Agorrosin tabernara edo ONCEko kioskora. Izenematea da 15 euro.

ARRASATE

> Nortasun agiria egiteko aukera egongo da BAZen

Urriaren 30ean eta azaroaren 6an eta 28an egingo dute nortasun agiria BAZen. Horretarako txanda hartu behar da BAZen bertan urriaren 26tik aurrera. Nortasun agiri hori ez da elektronikoa izango.

DEBAGOIENA

> Kilometroetan egindako zozketetako zerbaki sarituak

Hilaren 8an egin zuten hiru sari nagusien zozketa, notario aurrean. Ford Focus Max autoaren zerbaki saritua da 15.911 eta dagoeneko agertu da sariduna; Getariako Saiaz hoteleko bi egonaldien zerbaki sarituak dira 29.249 eta 32.943. Horiek oraindik ez dira banatu; saridunok jarri harremanetan Aranza-direkin (943 76 90 71).

ARRASATE

> 1957an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Azaroaren 24an egingo dute, Baster-Alde jatetxean -joateko autobusa egongo da-. Izena emateko 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan: 3035 0047 16 0471068086 -izena eta bi abizenak zehaztu-. Izena emateko azken eguna da azaroaren 17a.

BERGARA

> San Antonio auzoan eraikitzen ari diren babes-tutako etxebizitzaren zozketa, zapatuan

Bihar, zapatua, egingo dute zozketa, 09:30ean, udaletxe osoko bilkuren aretoan. Zozketa horretan Etorlur Gipuzkoako Lura SAU enpresa San Antonio auzoan eraikitzen ari den babes-tutako 30 etxebizitzak eta eranskinak adjudikatuko dituztela jakinarazi dute Bergarako Udaletik.

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

TENPERATURAK

MINIMOA
Astelehena, 15 **7 °C**MAXIMOA
Martitzena, 16 **25 °C**ASTEKO EURIA (l/m²) **28,4 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 10	18 °C	13 °C	28,2 l/m ²
Eguena, 11	16 °C	11 °C	0,2 l/m ²
Egubakoitza, 12	17 °C	11 °C	- l/m ²
Zapatua, 13	23 °C	9 °C	- l/m ²
Domeka, 14	24 °C	9 °C	- l/m ²
Astelehena, 15	25 °C	7 °C	- l/m ²
Martitzena, 16	25 °C	7 °C	- l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA URRIAN

Ilbehera 3	Ilberri 11	Ilgora 19	Ilbete 26

toshop bidez (sakontze maila, 30 ordu); hirugarrena, *Software librea: Linux eta OpenOffice* (hasiera maila, 40 ordu); eta laugarrena, *Seguritatea eta antibiotikusak. Zure ordenagailua babesten du. Izenematea da urriaren 17ra arte. Horretarako jo Ikas Hiru akademiara* (943 78 31 03).

OÑATI

> Oñatiko emakumeendako informatika ikastaroa antolatu dute

Gizarte Zerbitzuek antolatu dute eta ofimatika eta mekanografia landuko dira. Bi maila egongo dira: hasierakoa (120 ordu) eta birziklatze maila (36 ordu). Izenematea da urriaren 29ra arte, Ikas Hiru akademian (943 78 31 03).

ARRASATE

> 1956an jaiotakoek bazkaria egingo dute

Azaroaren 17an egingo dute, batzokian. Joan nahi duenak 50 euro sartu behar dituzte Euskadiko Kutxan (izen-abizenak zehaztea komeni da). Izenematea bukatuko da urriaren 27an.

ARRASATE

> 1967an jaiotakoek afaria egingo dute

Azaroaren 10ean egingo dute afaria, Arteaga jatetxean. Izena emateko deitu 943 79 65 56 zenbakira edo Portalo Optikatik pasatu (Mirari).

kale inkesta

Udazken partean perretxikoak jateko ohitura duzu?



Enrike Perez
Langilea
Elgeta

Bai. Onddoak eta niska-loak jaten ditut. Inguruko basoetan ezagutzen ditudanak jasotzen ditut, eta, zalantza izanez gero, teknikariengana noa. Aurten beste urte batzuetan baino gutxiago dago.



Victoria Saez
Erretiratua
Elgeta

Bai, jateko ohitura dut. Txanpinoiak askotan erabiltzen ditut eta modu askotan prestatzen ditut. Ez dut mendira joateko ohiturarik, eta, beraz, dendara joaten naiz perretxikoak erostera.



Francisco Gonzalez
Erretiratua
Elgeta

Bai. Onddoak eta niska-loak jan ditut, ezagutzen ditudanak. Mendira joatea gustuko dut eta denboraldian nik neuk hartzen ditut. Ez naiz askorik mugitzen, inguruko basoetan hartzen ditut.



Juan Bautista Markiegi
Erretiratua
Elgeta

Ahaztuta daukat perretxikoena. Lehen, joaten nintzen, baina orain ez. Inguruetan topatzen nituen, Intxorta aldera joaten nintzen. Onddoak eta gibelurdinak hartzen nituen, gehienbat.



Doro Castillo
Langilea
Elgeta

Aurten jan ditut. Opari egin dizkigute. Perretxiko gutxi dagoela esan didate, baina daudenak oso goxoak daude. Era askotan prestatzen ditut. Olio eta berakatzarekin oso goxoak geratzen dira.

txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

Ferrerias kalean ezin dira autoak aparkatu



Arrasateko Ferrerias kalean arratsalde partean autoak aparkatzen dituztela salatu du herri-tar batek. Zamalanetarako baino ez dela gogorarazi du hark. Kamioiak sartzen direnean arazoak dituzte kalean aurrera egin ahal izateko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

8

Horixe da GOITBko *Kantari* karaoke ikuskizunaren saioen kopurua. Lau herritan bina saio izango dira. Oñatin hasi eta Eskoriatza eta Arrasate-tik pasa ostean, Bergaran emango diote amaiera. Guztira, 570 ume eta gaztetxok parte hartuko dute, asko jota lau laguneko taldetan banatuta.

usteak uste

Mirari Altube

Tipi-tapa, tipi-tapa, goazen oinez

Bost urteko semeak kontatu du gelakide-en aurrean amak baduela gidabaimena, baina ez duela autorik gidatzen beldurtu egiten delako: "Esaten du ahaztu egin zaiola gidatzen", bukatu du. Eta lotsatu egin naiz irakasleak kontatzerakoan; izan ere, zeinek ez daki gidatzen gaur... A ze atzerapausoa!

Hala ere, uste dut autoa uneoro eskura ez izateak baduela onurarik ere. Musika eskolara esaterako oinez joaten naiz umeekin, eta kirol etxera, eta ikastolara... Aretxabaleta txikia da, pentsatuko du baten batek; eta egia da, kilometro eta erdi izango du luzeran, gehienez ere. Hala ere, edonora autoan joaten gara herrian bertan; ohitu egin gara. Ez hori bakarrik, umeak ere autoan ibiltzera ohitu ditugu. Uste dugu bizkorrago iritsiko garela, baina sarritan ez da egia; zalantza barik esaten dizuet ni berandu iritsiko nintzatekeela autoan ere.

Kontzientziazio kontua da, sentsibilitate kontua, baina batez ere ohitura kontua. Eta musika eskola, supermerkatu eta ikastola inguruan ordu batzuetan sortzen diren nahasketengatik bakarrik uste dut merezi duela oinez ibiltzea. Izan ere, gure herria ez da hain handia...

5 galdera...

Ane Lasagabaster

Hortz klinikako arduraduna
Arrasate

1. Espainiako Gobernuak 7 eta 8 urte bitarteko umeak dentistarengana dohainik joateko neurria onartu berri du. Ibarrean nola eragingo du horrek?

Ez du eraginik izango, Euskal Herrian aspaldi daukagu eta hori, PADI bezala ezagutzen den planaren bidez. 7 urtetik 15 urtera arteko umei eragiten die horrek. Behin betiko haginak betetzen ditu, esnedun haginak ez dira horren barruan sartzen.

2. Zer adinetik aurrera hasi behar dute haurrek dentista bisitatzeko?

4 urtetik aurrera etortzea gomendatuko nuke. Gurasoek, hala ere, lehenago hasi behar dute seme-alabak kontzientziatzen. Hortzak garbitu behar dituztela gogorarazi eta noizean behin hortzak nahiz haginak nola dauden begiratu behar dute. Gainean egon behar dute. Etor-tzen diren 4 urtetik beherako umeek ez dute gurekin kolaboratzen, izututa etortzen dira.

3. Adin horietan zer nolako arazoak izaten dituzte umeek?

Ezin da orokortu. Umeekin nagusiekin bezala gertatzen da. Batzuek oso hagin onak dituzte eta beste batzuek, berriz, ez. Mila faktore daude. Nire iritziz, genetikak eragin handia du.

4. Zer nolako aholkuak ematen dizkiezu haurrei?

Egunean haginak hiru bider garbitu behar dituzte. Gertatzen dena da gaur egun gehienek ikasketxeetan bazkaltzen dutela eta batzuetan debekatuta izaten dutela hortzak garbitzea. Ez nago batere ados horrekin. Heziketa barruan joan beharko luke.

5. Asko kexatzen al dira umeak zuengana joaten direnean?

Ez. Nagusiak baino lasaiago etortzen dira normalean. Ez datoz beldurtuta. Gure gurasoek asko sufrizten zuten dentistarengana joaten zirenean, astakeria asko egiten ziren orduan. Orain, beste modu batean egiten dugu lan.



OBRAK > GELMAKO ETXEAK

Gelmako etxeak errentan emateko aukera aztertzen

Lehen blokeko etxe libreen %90 ez badituzte saltzen, errentan hartzeko aukera emango dute

Salmentak "geldo" doazela onartu dute enpresa eraikitzailetik

UBANE MADERA > ARRASATE

Azkenaldian zurrumurrua zebilen Arrasateko kaleetan Gelmarena zen orubean eraikitzen dabilen etxebizitzetako batzuk ez ote dituzten merkaturatu behar alokairuan hartzeko.

Bada, etxe horiek eraikitzen dabilen Obenerreka enpresaren gana jo dugu informazioa konfirmatzeko. Eta GOIENKARIari honakoa konfirmatu diote: merkatuak hala agintzen badu, Gelmako etxebizitzetako batzuk errentan hartzeko moduan merkaturatuko dituztela.

"BEREZ, GUZTIAK SALGAI"

Edozelan ere, Juan Lartzabalek, Obenerrekako gerenteak, argi utzi gura du etxebizitza guztiak salgai daudela oraingoz: "Berez, guztiak daude salgai. Orain gauden saltzen lehen blokeko etxebizitzak; guztira, 143 etxebizitza gabiltza eraikitzen bloke horretan, etxebizitza libreak; eta horien erdia salduta ditugu dagoeneko. Gainerako %50ak zelan saltzen diren ikusi behar dugu orain. Bloke horretako etxebizitzak saldu artean, gainerakoak ez ditugu salgai ipiniko. Hori horrela, bigarren blokea eraikitzen bukatzen dugunean oraindik ez baditugu lehen blokeko etxebizitzak saldu (%90, gutxienez), orduan alokairuan merkaturatuko ditugu. Guztia dago merkatuaren menpe. Hori bai, etxebizitzaren prezioetan ez da aldaketarik aurreikusten.



ERAIKITZEN Dagoeneko igar daiteke Gelmako etxeek izango duten itxura; 1. eta 4. blokeak ia bukatuta daude.

U.M.

SALMENTA, "GELDO"

Hori bai, horrenharira, Juan Lartzabalek onartu du etxeon salmenta eritimoa geldoa dela. Bateatik, berez, "merkatuaren koinuntura orokorra" horixe delako,

"interes altua dago, besteak beste". Eta bestetik, Lartzabalek nabarmendu du bere ustez Gelmaren etxebizitzaren inguruko zurrumurruek ez dutela batere lagundu etxeok saltzen.

PREZIOA "EZ DA LARREGIKOA"

Hori bai, Lartzabalek ez du uste salmenta geldo dabilela, askok dioten moduan, etxeon prezioa larregikoa delako: "Etxeon prezioa da kalitatearen araberakoa. Nik uste dut jendeak ikusten dituen etxeak, erosteko aukera ona direla pentsatuko duela. Oso dotoreak izango dira. Eta gainera, Gelmako etxebizitzaren prezioak ez du behera egingo. Bestalde, etxeon metro karratua 6.000 eurotan saltzen gabiltzala esatea ere ez da erreala. Datu hori eman zutenek prezio horren barruan sartu zituzten garaje, trasteleku, notariako gastuak eta beste. Baina etxebizitza horien prezio erreala da, batez beste, 4.156 euro metro karratuko. Eta esan beharra dago Arrasaten, adibidez, badirela prezio hori baino gehiago kobratzen diren etxebizitzak".

KONTUAN HARTZEKO

Etxebizitza libreak eta babes ofizialekoak

Gelmaren orubean 2005ean hasi ziren etxeak eraikitzen. Hain zuzen ere, 2005eko maiatzean fabrika zaharra bota zuten eta urte bereko urrian hasi ziren etxeak eraikitzeke zozka prestatzen. Lau etxebizitza bloke eraikiko dituzte: hiru bloke etxebizitza libreenak eta laugarrena, babes ofizialekoena.

Gaur egun dabilen eraikitzen lehenengo eta laugarren blokeetako etxebizitzak, 143 eta 131 etxebizitza, hurrenez hurren. "Lanak oso eritimoan doaz. 2008ko bukaeran bi blokeak amaitzea dugu aurreikusita; dena den, babes ofizialekoen entrega ez dago gure esku; Udala zozketak egiteko irizpide berriak finkatzen dabil eta hori egin arte, ezingo dira etxeak eman", dio Juan Lartzabalek.

Bigarren blokean eraikiko dituzte 80 etxebizitza eta hirugarrenean, 114. "Bigarren blokeak aurreikusitako eritimoa segituko du, 2009ko apirilera bukatzea da aurreikuspena; hirugarrena, berriz, gainerako menpe dago".

AZPIEGITURAK

Gazteluondo eta Arrasate pasealekua lotu nahian

Bidea egin gura du Udalak, ibilgailuendako eta oinezkoendako

U.M. > ARRASATE

Gazteluondo eta Arrasate pasealekua lotzeko bide berria sortu gura du Arrasateko Udalak. Bide hori izango litzateke ibilgailuendako zein oinezkoendako.

ABADE ETXEA INGURATZEN

Hirigintza Saitetik helarazitako informazioaren arabera, errepide berria aterako litzateke Gazteluondoren atzeko aldetik eta abade etxea inguratu eta gero iritsiko litzateke Arrasate pasealekuraino.

Hori egin ahal izateko, baina, espazioa hartu behar dute gaur egun eraikinak eta bestelako elementuak dauden lekuetan. Horren ondorioz, besteak beste, abade etxearen inguruan dagoen fabrika zahar bat bota egin beharko dutela jakinarazi dute.

LUR AZPIKO APARKALEKUA

Horrez guztiaz gainera, Udalak aztertu gura du ea proiektu hori egin behar dutela aprobetxatuta, aukera egongo litzatekeen lur azpiko aparkaleku bat egiteko han inguruan.

Edozelan ere, horiek guztiak asmoak besterik ez da oraingoz. Edo, hobeto esanda, Arrasateko Alde Zaharreko Egitamu Berezian Udalak lehenagotik aurreikusita duen gaia da.

Oraingoz, Udalak aurrengo pausoa eman du: oraingo asteke tokiko gobernu batzordeak bi proiektu horiek egiteko asistentzia teknikoa kontratatzeke lehiaketa abiarazi du. Bost hilabeteko epea ipini du eskaintzak entregatzeko. Lanon aurrekontua, berriz, 40.000 eurotan mugatu du.

ad **ibabe**


IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

PUB HAIZEA



UGARTE
AROTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

Mirari Arando > AED elkarteko kidea

"Euskaraz komunikatzeko gauza direnei zuzenduta dago hemengo euskalkiaren gaineko ikastaroa"

UBANE MADERA > ARRASATE

AED elkartearen eskutik, Arrasateko euskararen gaineko ikastaroa hasiko dute astelehenean, urriaren 22an. 20 orduan landuko dute Arrasateko euskara. Interesa duenak astelehenean bertan AEDren egoitzara (Pablo Uranga kalea) bertara joan besterik ez du. 40 euro ordaindu behar dute AEDko bazkideek; 50 euro, gainerakoek.

Zein zentzutan landuko duzue Arrasateko euskara, idatzizko arauak, ahozkoak...?

Ahozko euskara izango da gure jomuga. Leintzeko euskara landu, zaindu eta maitatu gura dugu eta ikusten genuen hutsunea zegoela Arrasateko euskararen inguruan, komenigarria zela ahoskera landu eta bultzatzea.

Eduki aldetik, zer izango da?

Erdarakadak, gure altxorak, aditzak, morfologia, sintaxia... Irakaslea izango da Joserra Agierreurreta, Udal Euskaltegia.

Edozein joan ahal da ikastaroa ala bada baldintzaren bat?

Dago zuzenduta euskaldun zaharrei, B erudian euskaldun direnei eta euskaldun berriei, baina azken horien kasuan, komunikatzeko gauza izan behar dute.



Mirari Arando AEDko kidea Arrasateko berbak idazten.

U.M.

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Gabonetan, loteria-txartelak euskaraz

Arrasateko Euskalgintzak *Ilusioa euskaraz* kanpaina abiatu du, Gabonetan euskarazko loteria txartelak bultzatzeko. Bi norabidetan egin du kanpaina: batetik, Arrasateko 700 establezimenduri postala idatzi die adieraziz aukera dutela saltzen edo oparitzen duten loteria euskaraz inprimatzeko. Bestetik, loteria-txartelak saltzen edo inprimatzen dituzten establezimenduekin izan dira euskarazko loteria eskaini dituzten.

Trentoko bisita, Arizmendik gonbidatuta

Joan den urriaren 14az geroztik, Trento probintziako (Italia) ikasle talde bat Arrasate eta inguruan ibili da; oraingo asteko eguaztentera arte Elkartrukea egingo dute Arizmendi Ikastolako ikasleekin. Hain justu ere, hemengo ikasleak martxoaren 6tik 14ra bitartean joango dira Tione di Trentora.



ARIZMENDI



FERRERIAS Casinok utzitako tokian egingo dute plaza berria.

U.M.

OBRAK > AZPIEGITURAK

Ferrerias kalean plazatxo berria egin gura du Udalak

Ferrerias eta Erdiko kalea lotzea da, besteak beste, plaza horren helburua

egun Ferrerias kalean dagoen antzerakoa. Udalak Alde Zaharrerako Egitamu Beregian aurreikusita zeukan plazatxo bat egin behar zutela Erdiko kalea eta Ferrerias kalea lotzeko.

Bada, orain, plazatxo berri horrekin lotutako lehen pausoa eman dute. Izan ere, asteleheneko tokiko gobernu batzarrek lehiaketa publikoa deitza onartu zuen, proiektu horren asistentzia teknikoa kontratatzeko. Lau hilabeteko epea izango da muga. Aurrekontua, berriz, 17.000 euro da.

U.M. > ARRASATE

Ferreriasko plazatxo berria Casinoko elkarteko gastronomikoa bota zutenean utzitako espazioan egin gura dute, Irati tabernaren ondoren, hain zuzen ere.

Hirigintza Siletik jakinarazitakoaren arabera, gura dute sortu plazatxo bat gaur

EKONOMIA > DIRULAGUNTZA BANAKETA

Euskara Sailak 480.000 euro pasatxo banatuko ditu

Elkarte, partikular eta enpresen artean banatuko dituzte dirulaguntzak

euren irudi korporatiboa eta errotuluak euskaratzeko ematen zaizkien laguntzak.

Kopurutan begiratu, eta handienetik txikienera eginez, Goiena Komunikazio Enpresak eskuratuko du diru gehien: 228.975 euro. Arrasate Irratia dator gero, 105.781 euroekin. Bestelako adibide batzuk ipintzearen, berriz, Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteari 86.310 euro bideratuko dizkio Udalak, Txatxilipurdi elkarteari 33.068 euro, Erdu-AEK euskaltegiari 21.780 euro eta Euskalani 7.268 euro.

U.M. > ARRASATE

Oraingo astean onspena jaso dute Euskara Sailaren dirulaguntzek. Horren arabera, 480.000 euro pasatxo banatuko dituzte herriko elkarre, partikular eta enpresen artean. Tartean dira partikularrei ematen zaizkien bekak eta enpresei



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

arbolapeta



BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



'MOKAUA' Logela multimedia taldeak etzi Amaia antzokian eskainiko du ikuskizuna.

GOIENKARIA

'MOKAUA' IKUSKIZUNA > LOGELA MULTIMEDIAREN ESKUTIK

Irudiak eta musika bat Amaia antzokian

Musika, irudiak eta mugimenduak sinkronizatuta etzi Amaia antzokian

A.ARANBURUZABALA > ARRASATE
Mokaua da Elorrioko Logela Multimedia egiten duen adin guztietarako aproposa den ikuskizun dinamiko eta interaktiboa.

Agertokian hiru musikari eta bideo-jockey bat daude: Ander Garaizabalek abestu eta sekuen-

tzia lantzen ditu zuzenean, eta, horrez gainera, kantu batzuetan bateria eta perkusioa ere jotzen ditu; Gorka Mulerok, berriz, gitarra eta teklatura jotzen ditu; Karlos Gomezek baxuaren eta kontrabaxuaren ardura du; eta Imanol Garaizabalek, azkenik, irudiak

zuzenean eta denbora errealean nahasten ditu. Ez da kontzertu soila, 11 abesti eta bost esketx umoretsu biltzen dituen ikuskizun multimedia koloretsua baizik. Irudiak eta pertsonen mugimenduak sintonian jartzen dituena.

IKUSKIZUN INTERAKTIBOA

Sukalde batean hasten da ikuskizuna. Musika tonu atseginean helarazten da, estridentziatik urrun eta freskotasunetik gertu.

Kantuek irudiak lagun dituztela, hainbat istorio kontatzen dituzte: mudantza baten gainekoa, ametsei buruzkoa, itsu baten istorioa, presarik gabe bizi denarena, ardoarekin jolasen dagoenarena...

Irudiek eta kantuen esanahiek harreman estua dute; irudiek dimentsio berri bat ematen diote abestiei. Era berean, musikariak pantailaren atzean jartzen direnean, sortzen duten gerizpeak ikusten dira irudiekin batera.

ELORRIKO LAUKOTEA

Elorrioko lau gazte sortailek osatzen dute Logela Multimedia-ren muina: bi musikari-informatikarik, musikari-teknikari batek eta bideo-animazio sortaile batek. Esperientzia luzea dute multimedia alorrean.

2001. urtean egin zuten lehen ikuskizuna eta harrezkero laugarrena dute otsailean estreinatu zuten *Mokaua*. Hitzordua, bada, etzi, Amaia antzokian; sarrerak 5 euroren truke.

FANTZINEA

Gaztetxearen 16. 'Trikili-Trakala' fantzinea kalean da

Gazte Asanbladak hilero kaleratzen duen doako aldizkaria da

A.ARANBURUZABALA > ARRASATE
2006eko apirilean kaleratu zuten Arrasateko gaztetxearen *Trikili-Trakala* fantzinearen lehen zenbakia. Harrezkero, abuztuaren izan ezik, hilero kaleratu dute; asteburuan banatuko dute 16. zenbakia.

Zenbaki bakoitzeko 100 ale argitaratzen dituzte eta dohainik banatzen dituzte erdiguneko gazteen tabernetan, liburutegian eta baita gaztetxean ere.

PARTE HARTZERA ANIMATU

Herriko gazteak aldizkarian parte hartzeri animatu nahi dituzte agerrikari bultzatzaileek. Hain zuzen ere, gazteei eragiten dieten gaiak direla, kezka politikoa edo sozialak direla edo beste proposamenen bat dela, bidali honako helbidera: *trikili-trakala@gaztesarea.net*.

Des-kontrol taldea diskoa grabatzen ari da

Baga-Biga diskoetxearen estudioan hasi zen atzo boskotea diskoa grabatzen. Taldearengan eragina izan duten hamar bertso batuko dituzte (Zakarrak, Iskanbila, RIP, Puñetazo, Johnny Cash...).

Durangoko azokan argitaratu nahi dute diskoa. Hogeitabat egun izango dira estudioan.

CDarekin batera, taldearen ibilbidea laburbilduko duen DVDa ere argitaratzeko asmoa dute.



GOIENKARIA

ERAKUSKETA > MARGOLANAK

Fernando Martinezen lanak Harresi aretoan ikusgai

Arrasatearraren hogeitabat natura hil daude ikusgai gaur hasi eta 28ra arte

golari onenaren saria eskuratu du, eta orain, bakarkako lehen erakusketa jarri du.

NATURA HILAK

Haurtzarora gogora ekartzen diotelako margotzen ditu natura hilak Martinezek. Pintura akrilikoak dira, eta testurekin lan egitea gustuko du.

A.ARANBURUZABALA > ARRASATE

Txikitatik du zaletasuna Fernando Martinez margolari autodidaktak. Azken lau urteak izan ditu emankorrenak; hori horrela, aurtengo sanjuanetako lehiaketan herriko mar-

Erakutsitako lan batzuk eskuratzeko bidea izango da, eta tamainaren arabera salneurria izango dute: 300 eta 700 euro bitartean.

EXPRES

Ogitartekoak
Errazioak
Pintxoak

Maalako Errabala 8
Arrasate
Tel.: 943 79 85 14

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK

AGR
García Ripa

ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiak


BASATI
TABERNA

943 711768

Marsans taldeak 73 Airbus erosi ditu eta bere flota handitu du.

Hauetatik 4 A-380 modeloak dira, bidaiarien munduko hegazkinik handiena.

“Diario Vasco, urriak 12”



Kubara hegaldia

520 € bakarrik + tasak + bisatua.

Itsas bidaiak:

%20ko deskontuak - dena barne, urrian erreserbatuz gero.

Halloween:

Santu Guztien zubia: 4 gau, ostatu eta gosari erregimena, 4 egunerako Port Aventuraarako sarrerak, afari tematizatua pertsonaia ezberdinekin - 275 eurotik aurrera. Ausartenentzako, Halloween gauerako gela guztiz tematizatuak.

Zatoz eta informa zaitez gure eskaintza zabalaz.

Lidergoan jarraitu nahi dugu, zuk gure prezio baxuak eta kalitate handia aprobetxa ditzazun.

AUTOKARABANA ESKAINTZA BEREZIA

* Eguneko eta pertsonako 20 €-tik aurrera.

- Bizikleta-eramatekoa
- Eski-eramatekoa
- Berria



* prezio hori 6 pertsonen hartutako McLouis 2.11 autokarabanetan

Arrasate Bidaiak

CIE 2214

BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA



marsans
viajes

> SASKIBALOIA
**Juniorrek etxean
jokatuko dute,
zapatuan**

Mondragon Unibertsitateko junior mailako taldeak etxean jokatuko du asteburuan, Atletico San Sebastian taldearen kontra (zapateria, 10:00). Joan den astean Easoren kontra 87-76 galduta, zapatuan garaipen bila kantxaratu dira MUko mutilak.

Juniorrekin batera, kade-teek ere etxean jokatuko dute, Sein mutilak taldearen kontra (zapateria, 16:00). Horiek ondo hasi dute liga, Zarautz 46-66 mendean hartuta.

> MENDIA
**Mendiko irteera
antolatu dute
domekarako**

Besaideren 50. urteurreneko ospakizunen barruan, oraingo domekan mendi irteera egingo dute Besaideko menzizaleek. Hala, oraingoan Biasteri eta Oion banatzen dituzten kilometroak egingo dituzte oinez, GR-38 ibilbideko zati bat.

Eta, mendi zeharkaldia- ren ondoren Errioxan bertan egingo duten bazkariarekin biribilduko dute domekako jardunaldia.

> MENDIA
**Besaidek liburua
aurkeztuko du
hurrengo astean**

Besaidek mende erdia betetzen du liburua aurkezpena egingo dute datorren egubakoitzean Kulturaten (19:00). Jose Ramon Fernandez Urriategi arrasatearrak idatzi du liburua eta anekdotak, efemerideak, elkarrizketak, erretratu zaharrak eta abar batu ditu.

Diapositiba emanaldiei dagokienez, Itoitz Armendariz eskoriatzarrak hilaren 23an egingo du berba txakur leren gainean (Kulturate, 19:00) eta hilaren 25ean Aratzen eta eskaladaren gainean egingo du berba *Pali*-k, ordu eta leku berean.

ARETO FUTBOLA > ZALDIBARKO ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Urriaren 27an hasiko dute Zaldibarko Txapelketa

Antolatzaileak datorren astelehenean izango dira izenak hartzen, Kulturaten

Aurten ere liga, kopa eta 24 orduko txapelketa antolatzea izango da helburua

XABIER URTZELAI > ARRASATE
Datorren asteko asteburuan, hilaren 27an, hasiko dute Zaldibarko Txapelketaren 46. aldia. Eta, datorren astelehena da, hilak 22, txapelketan izena emateko eguna.

Horretarako, astelehenean antolatzaileak Kulturaten izango dira, 18:00etatik 19:30era, taldeen izenak hartzen. Talde bakoitzeko ordezkariak 225 euro ordaindu beharko ditu; 175 euro izena emateko eta beste 75 euro fidantza modura. Hala, urtero moduan, txapelketan zigorrik jasotzen ez duten taldeek bueltan jasoko dute fidantza.



IRIZTU ETA BETRAYER Irudian 2006ko finaleko jokaldi bat, Iritzitu erasoan. 2007an Dribling izan da onena.

XABIER URTZELAI

WEBGUNEAN ERE BAI

Internet bidez ere badago txapelketan izena emateko modua, www.zaldibarkofutbitotxapelketa.com webgunean. Gainera, izena ematearekin batera, urtean zehar webgune horretan izango

dituzue txapelketako gorabeheren berri: sailkapenak, ordutegiak, txapelketako erretratuak, zigorrak...

Antolatzaileek aurten dituzten asmoen berri ematerakoan, Jose Angel Tenak azaldu digu

mantentzea dela helburua: "Iaz oso denboraldi polita izan zen, liga, kopa eta 24 orduko txapelketa antolatu genituelako. Azken txapelketa horrek erantzun oso ona izan zuen, eta aurten gauzak berdin irteten badira, pozik".

Fatxako lepoan egindako erretratu

Asteburu luzea aprobetxatuta 36 lagun animatu ziren Besaidek proposatutako mendi zeharkaldia egitera. Izan zuten eguraldiak lagunduta (argazkia ikustea baino ez dago), ederto ibili dira Pirinioetan. Hala, azkeneko egunean ateratako erretratu da hori, Respumoso gainean.



MIKEL ZUBILLAGA

**Monte
taberna**

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50


MENETA
taberna

- Eguneroko menua
- Bazkariak eta afariak enkarguz aste bukaeretan
- Pintxoak
- Errazioak

Domeka gauetan
sukaldea itxita

Gipuzkoa Etorbidea 48 • Tel.: 943 79 65 31 • 20500 Arrasate

bote prontuen

Manu Fernandez > Irudi Sport gimnasioko arduraduna

"Ibarrean kirola egiteko ohitura dago"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Lanpetuta dabil Manu Fernandez azkenaldian. Arrasateko Irudi Sport gimnasioko arduraduna da hura, Mertxe Valdiviesorekin batera. Arrasatekoarekin nahikoa ez eta beste gimnasio bat zabaldu du Oñatin. Fernandezekin egon gara, ibarrean kirola praktikatzeko ote den jakiteko. Kirola egiteko ohitura errotuta dagoela ikusteko, "errepidera baino ez dugu irten behar", aipatu du.

Hilabete ona da ikasturte hasiera gimnasioan izena emateko?

Bai. Irail hasieran jende asko etorri zen informazioa eskatzera eta dagoeneko eskolekin hasi gara. Indartsu hasten da jendea beti, baina denborarekin hasierako gogo hori txikitzen joaten da eta gutxiago etortzen da.

Beti esan ohi da jendea Gabonen ostean joaten hasten dela gimnasioetara, bikini operazioa dela-eta...

Hori aldatu egin da dagoeneko. Gero eta jende gehiago dago kirola urte osoan egiten duena. Lehen, Aste Santuan joaten zen jende gehien gimnasioetara eta eskola gehiago jarri behar genituen horri aurre egiteko. Irudi kontuagatik etortzen ziren. Orain, berriz, osasunaz arduratzen dira.

Kirol kulturarik badago ibarrean?

Bai. Debagoienean kirola egiteko ohitura dago. Errepideetara irten besterik ez duzu, bizikletaz eta korrikalariz gaiezka daudela ikusteko.

Irudi Sporten, zein da interes handien bereganatzen duen ekintza?

Pilatesa modan dago orain. Kalean entzuten denaren arabera aldatzen da, hala ere, eskaera.

Eta zuri zein da gehien gustatzen zaizun kirol mota?


Body balance delakoa. Urte asko daramat lan honetan eta ez dut neke sentsaziorik sentitzen kirol hori egin ostean.

Nondik ateratzen dira ekin-tzen izenak, batzuetan zaila izaten da-eta gogoratzea?

Guk ez ditugu asmatzen, zorionez. Zeelanda Berritik datoz eta batzuk nahiko zailak dira.

Zenbat ordu izerditan egunero?

Eskoletan hiru ordu ematen ditut, baina, guztira, gimnasio eta guzti, hamabi bat orduan egoten naiz kirola egiten egunero. Ez da astuna egiten, ekintza asko daude-eta.



bere ustez



Jokin Etxebarria

Hemen da futbolaren guda

Askotan pentsatu izan dut, gaur egun futbola, erromatarren garaien zirkoa bezalakoa dela. Jokalariak talde batetik bestera doaz, zirko ezberdinetan jokatzen, esklaboak bailiran, euren jabearen nahiak betetzera. Hau da: kontrarioa txikitu eta zuri ordaintzen dizunarendako dirua irabazi.

Oraindik ere gladiadoreek masa bereganatzeko sekulako indarra dute. Bekcham, Ronaldinho eta konpainiak, Russell Croweren antza dute *Gladiatorren*. Baina, zirko moderno

"Jaume Rourasen taldeak azken guda galdu egin du, baina guztia nola bukatzen den ikusi beharko"

honetan, diferentziak nabarmenak dira kristoren garairenekiko. Gaur egun, esklaboek ondo kobratzen dute eta euren arteko borroka ez dira hil ala bizikoak.

Gainera, orain borroka areetatik telebistetara egin du salto. Zaleak pozik zeuden astean hiruzpalau partida irekian eta dohainik ikusteko aukera zutelako. Mediaprok erabaki hori hartu nahi zuen Audiovisualen aurkako gudan irabazi ahal izateko.

Hori bai, Jaume Rourasek zuzentzen duen taldeak azken bataila galdu egin du, baina, azkenean, guztia nola bukatzen den ikusi egin beharko. Gauza bakarra daukat argi, "Ander Mendiak"-ek ez duela guda honetan jarraituko eta "Andere Mendiak"-i emango diola paso.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

((112))
SOS DEIAK



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Tbilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak



IRALA Lau hilabetez lanean jardun ondoren urbanizazio lanak joan den apirilean eten zituzten; Gabonen ostean, urtarrilean, jarraituko dute lanekin.

E.M.

URBANIZAZIOA > IRALA KALEKO PROIEKTUA

Irala kaleko lanak Gabonen ostean jarraituko dituzte

Hasieran urrian hastekoak baziren ere, dendariak urtarrilerara arte itxoiteko eskatu diote Udalari

EDU MENDIBIL > BERGARA

Irala kaleko dendariak eskatuta, Gabonen ostean jarraituko dituzte Irala kaleko urbanizazio lanean. Gogoratuko duzue, Lasarteko Ozio enpresak hasi zituen aipatutako lanak aurreko abenduan; hala ere, lanak eten egin zituzten apirilean, Ozio enpresak uko-agiria aurkeztu zuen-eta.

Jarraian, ordura arte egindako lanak tapatzea erabaki zuen Udalak apirilean, berriro lanekin hasi bitartean eta, besteak beste, herriko jaiak gertuan zirelako. Dendariengan eta herritarrengan sortutako kalteak nabariak ziren, kexa ugari jaso baitzituen Udalak sasoi hartan.

HASIERAN, KILOMETROEN OSTEAN

Ondoren, udako oporren aurretik, Aretxabaletako Construcciones Amaral de Sousa enpresari adjudikatu zizkioten lanak, 1.379.220 eurotan. Aranzadi ikastolaren aldeko Kilometroak jaia urriaren 7an ospatzen zenez, lanak geroko uztea erabaki zuten Udaleko ordezkariak.

DATUA

8

HILABETEKO LANAK

Iaz eten zituzten lanak jarraipena izango dute 2008ko urtarrilean; hain zuzen, Iralako urbanizazio lanek zortzi hilabete iraungo dute.

Hala ere, orain arte sortutako kalteak direla eta, dendariak eta bizilagunekin bilera egin nahi zuten Udaleko arduradunek. Bilera hori urriaren 3an egin zuten eta hantxe izan ziren, besteak beste, Agurme Barruso

alkatea eta Enara Minguez Gobernazio batzordeburua, Iralako proiektua egin duen BEB Arkitektoak enpresako ordezkariak, Eli Zubeldia Udaleko Obra eta Zerbitziburua, Juan Inazio Galdos Hirigintzako teknikari orokorra eta Amaraleko ordezkariak. Bilera haren ostean lanak berriro atzeratzea erabaki zuten.

DENDARIEN GALERAK

Dendarien partetik Josu Arteaga Tantana dendakoak hau adierazi digu: "Dendariok galera mordoa jasan ditugu azken urtebetean eta iaz egin zuten moduan, onena Gabonen ostean lanekin jarraitzea da, ordura arte behintzat kalea txukun samar egoteko".

> ETXEBIZITZA

San Antonioko etxebizitzaren zozketa bihar udaletxean

Udalak aditzera eman duenez, bihar larunbata, urriaren 20an, Etorlur Gipuzkoako Lurra SAU enpresa San Antonio 7 helbidean eraikitzen ari den 30 etxebizitza eta eranskinak adjudikatzeko zozketa egingo da Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 09:30ean.

> ERLIJOA

Santa Marina: katekesi eskolak gaztetxoendako

Santa Marinako Haur Katekesiko ikasleek ikasturte berria hasi dute jadanik. Martitzenetan, 17:15etik 18:15era, 1. eta 2. mailetakoak Sierbetan elkartuko dira eta eguaztenetan, 3., 4., 5. eta 6. mailetakoak, ordu berean. Argibide gehiago 943 76 11 98 telefono zenbakian.

> TAKILLAKKTA TALDEA


Meza andinoa eguaztenean Santa Marinan

Santa Marina Parrokiak meza andinoa iragarri du eguaztenerako, urriaren 24rako, 19:00etan. Limatik datorren Takillakka musika taldeak hartuko du parte, mezan zehar hainbat kantu eskainiz. Juan Kruz Mendizabal parrokoak gonbidapena luzatu nahi die herritarrei.

> LAN ISTRIPUA

Eibarren hildako langilearen aldeko kale bilkura

Aurreko astean Eibarren gertatutako lan istripua salatze-ko kale bilkura egin zuten astelehenean Bergaran, LABek deituta. Istripuaren erruz hildako langilea Bergaran bizi zen. LABek eta ezker abertzaleko hainbat erakundek egin zuten kale bilkura.



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

HEZKUNTZA > MIGUEL ALTUNA

Mekatronika lehiaketan txapeldunak

Sergio Outeiriño eta Asier Gorriño, World Strills nazioarteko lehiaketan Euskal Herriko irabazleak

EDU MENDIBIL > BERGARA

Sergio Outeiriño eta Asier Gorriño Miguel Altunako ikasleak Mekatronikako World Strills nazioarteko lehiaketan Euskal Herri mailako txapeldunak izan dira. Finala urriaren 2tik 4ra bitartean jokatu zen Errenterriko Tknika Berrikuntza Teknologikoko Gunean. Han hiru ikasketxe izan ziren lehiaketa, eta bergararrak izan genituen irabazleak. Aurretik, joan den

azaroan, Bilbon lehiaketa izan ziren 15 ikasketxeren artean, bigarren tokian sailkatu ziren Gorriño eta Outeiriño. Biak ere azken ikasketurtean ari dira Miguel Altuna institutuan, erregulazio sistema eta kontrol automatikoaren zikloan, hain zuzen.

KASU ERREALAK LANTZEN

Mekatronika arloan ikasleek kasu errealak lantzen dituzte maketen bidez. Muntaiak, des-



TURISMOA Miguel Altunako zuzendari Iñaki Larrañaga, Asier Gorriño, Sergio Outeiriño eta Alberto Bolinaga irakaslea.

E.M.

muntatzea eta elementuen doitzea lantzen dituzte, besteak beste. Alberto Bolinaga tutorearen hitzetan, "ikasleek presiopean lan egiten ikasten dute, azken baten lanean aurkituko dituzten arazoei aurre egin behar dietelako horrelako probetan".

Miguel Altunako zuzendari Iñaki Larrañaga pozik azaldu da lortutako emaitzarekin. Saria irabaztearen 105.000 euro balio duen mekatronikako ekipamendua jasoko dute. Azken urtean gogor lan egin dute bi ikasleek: Alberto Bolinaga tutorearen


laguntzarekin eskola orduetatik kanpo 250 ordu inguru eman dituzte lanean. Saria ez da makala: azaroaren 12tik 20ra Shizuokara, Japoniara, joango dira eta hango Word Skills lehiaketan zer egiten den bertatik bertara ikusteko aukera izango dute.

ATXILOKETA > BERGARAN ATXILOTU ZUTEN MARTITZENEAN

Antxon Sasiainen atxiloketa salatu dute

E.M. > BERGARA

Antxon Sasiain bergararra atxilotu zuten martitzenean Bergaran. Askatasunaren arabera, kaleko jantzitako guardia zibilek burutu zuten atxiloketa Sasiainen etxean, 07:30ak aldera. Jarraian Martuteneko espetxera eramane zuten, Auzitegi Gorenak ezarritako bost urteko espetxe zigorra bete dezan. 2002tik 2005era Frantziako hainbat espetxetan egon zen Sasiain eta 2005ean estraditatu zuten. Auzitegi Nazionalean epaitu zuten Arakako Guardia Zibilaren kontrako atentatuan parte hartzeaz akusatuta. Absolbitua izan arren, fiskaltzak errekurtsioa ezarri zuen eta kolaborazio delitua leporatuta bost urteko zigorra ezarri zioten. Defentsak



SASIAIN Martutenen dago orain.

epaia errekurritu du Konstituzio Epaitegian, baina, bitartean, ezarritako zigorra betetzeko atxilotu dute. Zigorren 14 hilabete bete dituzte jadanik.

Antxon Sasiainen atxiloketa dela-eta, manifestazioa egingo dute gaur, egubakoitza, Bergaran, 19:30ean.

ISTILUAK > BI LAGUN ATXILOTU ZITUEN ERTZAINTZAK

Ertzaintzaren eta herritar talde baten arteko istiluak zapatuan

Gauerdian hasi ziren istiluak eta kolpeak, eta borra-kolpeak izan ziren tartean; atxilotutakoak astelehenean epaituko dituzte Bergaran

E.M. > BERGARA

Zapatuan, gauerdian, istiluak izan ziren herritar talde baten eta Ertzaintzaren artean. Ertzaintzaren arabera, istiluak 00:15 aldera hasi ziren Kruz Gallastegi kalean, hainbat herritar kaleko jantzita zihoan Ertzaintzaren patruila bat iraintzen hastean. Ertzaintzako prentsa bulegoak adierazitakoaren arabera, "txaku-

rrak, zipaioak eta halako irainak entzun zituzten ertzainek". Horren ondorioz, pertsona bati identifikatzeko eskatu zioten. Handik aurrera, Ertzaintzaren eta zenbait herritarren artean istiluak areagotu ziren. Ertzaintzaren beste bi patruila joan ziren bertara eta Ertzaintzak eztanda hutsezko hiruzpalau tiro jaurti zituen jendea sakabanatzeko.

Istiluen ondorioz, hiru ertzain Arrasateko ospitalera eramane zituzten: batek hortz bat apurtuta zuen eta beste bik kolpeak bizkarrean, betiere Ertzaintzaren iturrien arabera. Ertzaintzak bi lagun atxilotu zituen: A.B.E eta I.A.I, gizonetakoak biak. Beste lagun bat ere salatu zuten eta emakumezko bati identifikatzeko eskatu zioten.

KOLPEAK ETA BORRA-KOLPEAK

Bertan izan zen herritar batek adierazi digunez, "jendea kantuan ari zela, sekretu auto bat etorri zen gutako bati identifikatzeko eskatuz. Identifikatuko ginea baina beraiek zeintzuk ziren jakin nahi genuela erantzun genien. Istilu larriak hasi ziren orduan, eta gutako askok kolpeak eta porrazoak jasan genituen. Hamabost bat lagun izan ginen kolpatuak. Burdinazko barra bat erabili zuen ertzainteko batek. Euren jokabidea gehiegizkoa izan zen". Bi lagunek Ertzaintzaren aurkako salaketa jarri zuten.

Astelehenean, atxilotutako bi lagunak epaituko dituzte Bergarako epaitegian, autoritatearen kontra atentatzeagatik eta desobedienciaz gatik.

Orain IGAROn

kirolarien prestakuntzan espezializatutako profesionalak

Gorputz hezkuntzan titulatuak • Kirol kiromasajista eta terapeutikoa • Oinen erreflexologia

Mendi lasterketetan Euskadiko selekzioaren masajista
Elite zein 23 urtez azpiko mailetan hainbat txirindulari taldeetako masajista.

Kirol masajea eta terapeutikoa

Muskulu-gainkarga • Bizkarreko mina • Muskuluetan mina • Kontrakturak • Kontusioak • Tendinitisa
Tortikolisa • Lunbagoa • Lunboziatika • Artikulazioetan mina • Meniskoan mina • Bihurrituetan mina • Eta abar

Informaziorako: 943 76 17 27

Estetika zentroa



Igaro

Barrenkale 35
BERGARA





'LIBURUEN ALTXORRA' Irakurketaren ludikotasuna bultzatu nahi du Galtzagorri elkarteak.

ARTXIBOA

HEZKUNTZA > LIBURUAK

Angiozarko eskola 'Liburuen altxorra' ekimeneko partaide da

Galtzagorri elkarteak 130 liburu dituen kaxa bat ipiniko du eskolako eskura eta saioak egingo dituzte irakurzaletasuna bultzatzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Eskola txikiek liburuei eta liburutegiei dagokienez baliabide gutxi izaten dutela kontuan hartuta, Galtzagorri elkarteak *Liburuen altxorra* izenpean liburu mailegu zerbitzu berezia ipini du abian; eta Angiozarko eskolako Haur Hezkuntzako zortzi umek bat egin dute horrekin.

Ikasturtea hasi eta ekainera bitartean liburuz betetako gupildun kutxak iritsiko dira dinamizatzaile baten eskutik ikaste-

txeetara, eta eskola bakoitzak hilabetez izango ditu kutxa horiek, liburuekin askatasun osoz gozatu ahal izateko. Galtzagorrikoen nahia da "irakurketaren ludikotasuna eta magia sustatzea".

MOTIBAZIO SAIOAK

Liburuak eramateaz gain, irakurzaletasuna piztea ere bada Galtzagorrikoen nahia. Hortaz, dinamizatzaileak motibazio literarioa sustatzeko saioak egingo

ditu haurrekin. Dramatizazioak, ipuin kontaketa, hitz jolasak, poema oinarri duten dinamika... landuko dituzte kutxan dauden liburuekin lotuta. Hurrengo dinamizatzailea doanerako, gainera, haurrek irakurketetan oinarritutako marrazki, ipuin, poesia... emango dizkiote.

Liburuen altxorra urtarrilaren 10ean iritsiko da Angiozarko eskolara, 130 liburu ingururekin. Baina ibarrean beste eskola batzuek ere izango dute Galtzagorrikoen bisita: Eskoriatzako Luis Ezeiza ikastetxean urriaren 29an hasiko dira; Arrasateko Andra Mariaren eskolan abenduaren 3an; eta Elgetako eskolan maiatzaren 9an.

> MUSIKA

San Joxepe abesbatza eta Zumarragako Goizaldi abesbatza izango dira zapatuan Santa Marinan

San Joxepe erretiratuen elkartearen kultur hamabostaldiaren barruan musikak ere izango du lekua. San Joxepe elkartearen entseguak egiten dituen abesbatzak, Joxe Patxi Azkaratek zuzenduta, Gotzon Murok zuzentzen duen Zumarragako Goizalde abesbatza izango du lagun zapatuan, 20:00etan, Santa Marina parrokiaren egingo duten emanaldian.

> MUSIKA

Udal Musika Bandak hileroko kontzertua eskainiko du domekan pilotalekuan

Bergarako Udal Musika Bandak, hileroko ohi duen moduan, kontzertua egingo du domekan, urriaren 21ean, Udal Pilotalekuan. 12:30ean hasiko da kontzertua eta Alfredo Gonzalez Chirlaque-ren zuzendaritzapean honako piezak joko dituzte Bandako musikariek: J. Francoren *Agüero* pasodoblea; Pierneren *Ramuntxo* euskal rapsodia; Sparkeren *Merry go round*; eta Bizeten *L'Arlésienne* bigarren suitea.

> MUSIKA

Naroa Intxausti sopranoa eta Loreto Aramendi organo-jolea arituko dira zapatuan San Pedron

Organo erromantikoaren nazioarteko zikloak Bergaran azken saioa izango du zapatuan, urriaren 20an. San Pedro parrokiaren emanaldia egingo dute, 20:00etan, Naroa Intxausti soprano bilbotarrak eta Loreto Aramendi Orioko organo-joleak. Biek ala biek goi mailako musika ikasketak egin dituzte, eta baita sari eta aipamenak jaso ere.

> MUSIKA

Udo eta Primal Fear taldeek kontzertua eskainiko dute zapatu iluntzean Jam aretoan

Zapatuan, urriaren 20an, 19:30ean zabalduko dituzte Jameko ateak eta sarrera aurrez erosi ez dutenek 30 euroren truke eskuratu ahal izango dute. Taula gainean bi talde alemaniar izango dira eta metal doinuak eskainiko dituzte: Udo eta Primal Fear. Azken horiek *New Religion* lan berriko kantuak joko dituzte, besteak beste.



MIRIAN BITERI


Kultur hamabostaldia San Joxepen

Adiskidetzeari lelotzat hartuta urriaren 15ean hasi zuten San Joxepe erretiratuen elkartearen kultur hamabostaldia. Hamabostaldia iragaritzeko Fernando Azkaratek eta Jose Antonio Laskurainek gertatutako kartela aurkeztu zuten zuzendaritzak. Orain, bi asteen barrera erakusketak, antzerkia, hitzaldia, jokoak, irteerak, musika... izango dituzte.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA



Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



**Irrintzi
kafetegia**

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26



ARETXABAETA 1950 • 2007 ARRASATE



Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

Etxetresna elektrikoekin ez zarela moldatzen?
Har ezazu momentu!
Arkauz etxean guztiz maiteminduko zara.

Arkauz zure etxea da.

expert banatzaile ofiziala



ANDAMIORIK GABEKO LANAK



680 641 401
676 952 968
www.nanarri.com

Fatxaden eta barruko patioen berrikuntza eta pintaketak

Teilatuak • Kanaloiak • Bajanteak
Tximiniak • Altuerako kimatzeak

> MENDIA

**Azaroaren 18an
egingo dute azken
irteera Pol-Polekoek**

Pol-Pol mendi elkarteko beterranoek azaroaren 18an egingo dute urteko azken irteera, eta, mendi irteera horrekin batera, baba-jana egingo dutela gogorarazi gura izan dute.

Dagoeneko ohitura bilakatu da urteko azken irteera egun osokoa izatea, eta urtea bazkari on batekin agurtzea.

> FUTBOLA

**Lazkaoren kontra
jokatuko du bolada
onean den Bergarak**

Azkeneko bi jardunaldiak jarraian irabazi eta gero, Bergarak bolada onari heldu dio, eta mahoneroak zortzigarren postuan dira dagoeneko. Asteburuan, bosgarren lekuan dagoen Lazkao hartuko dute.

Bigarren erregionalean, BTLS taldea inoiz baino liderrago da; Ikasberriren zelaian jokatuko dute asteburuan.

> ATLETISMOA

**Trenbidekuak
taldeak jantziak
aterako ditu**

Bergarako Trenbidekuak taldeak jantziak aterako ditu herriko atletismo zaleendako, besteak beste, Behobia-Donostia lasterketan bergararrak ondo bereizteko.

Interesatuta daudenek, jakin, Agorrosingo gimnasio-ko arduradunak dituela neurri guztietako elastiko eta praka motzak, probatzeko. Eta, gero egin ahal izango dira eskaerak.



HAMABI TALDE Kopuru horrekin txapelketa polita egin daitekeela aurreikusitako antolatzaileek. Irudian, Eskoriatzan egindako areto futbol txapelketa bat. x.u.

> ARETO FUTBOLA > LABEGARAIETAKO TXAPELKETA

Domekan hasiko dute txapelketa izena eman duten 12 taldeek

Antolatzaileak martitzenean batzartu ziren taldekideekin, domekan dena gertu izateko

lazko talde kopuru bera izango du aurtengo txapelketak; antolatzaileak pozik agertu dira

XABIER URTZELAI > BERGARA

Domekan hasiko du Labegaraie-tako areto futbol txapelketak ibilbide berria. Hala, aurtengo txapelketarako iazko talde kopuru berak eman du izena, baina taldeak ez dira berdina: "Iaz, hiru talde txapelketa hasi eta berehala utzi zuten bertan behera, eta

bagenekien horiek aurten ez zutela izenik emango. Hala, guretako sorpresa izan da hiru talde berrik izena eman izana", adierazi du txapelketako antolatzaile Pedri Zafrak.

Hain zuzen, talde kopuru horrekin txapelketa polita egin daitekeela gaineratu du: "Pozik

gaude, baina antolatzaileok badakigu datorren urterako ahalegin handiagoa egin behar dugula. Txapelketa iragartzeko lan handiagoa egin, ea horrela Bergarako eta inguruko herrietako talde gehiago animatzen diren".

DOMEKAKO PARTIDUAK

Domekan 09:30ean hasiko dute aurtengo txapelketa. Errota-gain eta Alex taldeek egingo dute estreinaldia. 10:30ean, berriz, Irish Pub taldeak Los Blus hartuko du. 11:30ean Irubideren eta Hamaika Jintxi taldeen arteko lehia egongo da ikusgai eta goizeko azken partiduan, 12:30ean,

Belengua eta El Malpet izango dira aurrez aurre. Arratsalderako bi partidu gorde dituzte antolatzaileek: 17:00etan jokatuko dute Los Carboneros eta Komando Piperrak taldeek eta 18:00etan Niu Tim eta Tiki-Taka taldeak izango dira zein baino zein gehiago.

HITZORDU BAT ZINTZILIK

Gogoratu behar da iazko kopako finala jokatzeke dagoela oraindik: "Finalistek partidua atzeratzeko eskatu zuten, eta gero ez genuen une egokirik aurkitu, Ipintzako txapelketa hasi zen-eta. Dena dela, final hori jokatuko egingo da".

Pol-Polekoak Ayllongo mendizerran

Pol-Pol mendi elkarteko beterranoak Soria aldean izan dira asteburuan, Ayllongo mendizerra ezagutzen.

Guztira 42 lagun izan dira mendi taldeak antolatutako bidaiari; hala, mendian ibiltzeko aprobetxatu dute: egubakoitzean Quesera portutik Riazara egin zuten, tartean Buitreratik (2.089 metro) igarota. Eta bigarren Queseratik Somosierrara egin zuten Pico del Lobo (2.272 metro) eta Tres Provincias gainak igarota. Azkeneko eguna, berriz, inguruak bisitatzeko aprobetxatu zuten.



JUAN MARI SASIGAIN

Bergararrak kanpoan

Sara Usabiaga > Moda diseinatzailea da
Madrilen bizi da

"Madrilen batzuetan dagoen intolerantzia ez dut gustuko"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Sara Usabiaga bergararra Madrilen bizi da. Sei urte darama han eta oso gustura dagoela aipatu du, besteak beste "gauza ezberdinak ikusteko" aukera ematen dio-eta hiriak.

Bergara goiz utzi zuen Sara Usabiagak. 18 urte baino ez zituen Madrileran joan zenean. Lehenengo aldia zen etxetik irteten zena. Bakarrik bizi izan zuen esperientzia hura eta ez zen damutu, "oso positiboa" izan zen-eta. Madrilen zegoela beka bat lortu eta Alemanian urtebete eman zuen ikasten.

Espainiako hiriburuan oso ondo moldatzen da. Hasieran kos-

tatu egin bazitzaion ere, denborarekin tokiak eta pertsonak ezagutu zituen: "Eta horrek asko lagundu zidan". Moda diseinatzailea da Usabiaga.

Astegunak oso mugituak direla esan du. "Madrilek mugimendu izugarria du, eta hori asko igartzen da", aipatu du. Astebu-

"Madrilek mugimendu izugarria du eta hori asko igartzen da; hemen beti dago zerbait egiteko"



Irudian, Sara Usabiaga.

ruak lasaigoak dira. Buelatxo bat emateko, ariketa fisikoa egiteko, afari on bat izateko edo lagunak ikusteko erabiltzen ditu. "Hemen beti dago zerbait egiteko", dio.

GOMENDIOAK

Horren harira, zenbait proposamen eman ditu. Hala, afaltzeko Ortega y Gasset kaleko El Rincon de Jaen jatetxea, bakarriketak entzuteko Velazquez kaleko La Chocita del Loro eta bapozeko bainu lasaigarri bat hartzeko San Bernardo plazako Medina Mariterra joateko gomendioa egin du.

Ezagun asko egin ditu urte hauetan guztietan. Eta ez madrildarrak bakarrik, mundu guztikoak baizik. Aniztasun hori gustuko du. Gorroto du, bestalde, "Madril barrenean batzuetan dagoen intolerantzia".

Bergarara gero eta gutxiago datorrela esan du. Horren harira, besteak beste, jaioterriko bizitza, lasaitasuna, jendea eta janari goxoa faltan igartzen dituela adierazi du azkenik.

bere ustez



Jose Angel Mikeo

Kartzelaren gaia

Kartzelako gaia da bertso-laritzan tentsio handiena sortzen didan gaia jartzeko era. Bertsolariak kartzelan sartu eta inkomunikatuta daudela, gai jartzaileak deitzen die barruan daudenei inork ezagutzen ez duen gaiari buruz kantatzeko.

Ez dago elkarrizketarik, ez eta aukerarik. Halaxe iruditzen zait gabiltzala berriz ere Euskal Herri honetan. Ez gai libre, ez hamarrek handi ez txiki, kartzelako gaia da nagusi eta gai jartzaileak beti gai bera dauka ohol-ta-epaitegian: "txunda-txunda-tatxunda doinu eta neurrian kanta iezaio-

"Ez dago elkarrizketarik, ez eta aukerarik. Halaxe iruditzen zait gabiltzala"

zu Espainiako Konstituzioari. Berriz esango dut...".

Kartzelaratzeko arrazoia bertsolariak, kantatzerakoan, elkarren berri ez dezate izan da. Batak bestearen ideiak ez ditzala aberastu. Ez dadila pasa bakoitzak bere bertsoa kantatu beharrean, guztien artean aurrean dagoen jendearen gustuko den bertso eder, sakon eta hunkigarri horietako bat bakarrik botatzea, gaia eta gai jartzailea ere inongo protagonismorik gabe utziz.

Garzon gai jartzaileak bertsolarietako batzuk kartzelaratu ditu. Kanpoan geratu direnak hara hurbilduko direla ere esan dute, ea denen artean zerbait egin dezaketen bertso berria asmatzeko. Bitartean denbora koplatan pasako zaigu, aterik gabe, noraezean.

Hau be badaukogu



GOIENKARIA

Montijoko abesbatzak aste bukaera bikaina pasa zuen inguruan turismoa egiten

Montijoko abesbatzakoak izan ziren aurreko aste bukaeran Bergaran. Joan den egubakoitzean iritsi ziren eta zapatu goizean turismoa egiten ibili ziren, Arizeta abesbatzako kideekin batera. Getaria eta Zarautz ezagutu zituzten eta bazkaltzera Soraluze aldera joan ziren, Armendia jatetxera. Bazkaldu ostean eta

Bergarara bueltatu aurretik, ondoan dagoen argazkia atera zuten. Arratsalde partean, kontzertu bikaina eskaini zuten Santa Marina elizan. Arizetakoeke esan dute primeran ibili zirela, eta, bi abesbatzen arteko harreman onaren ondorioz, elkartrukeekin jarraituko dutela.

EDEL
TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

SANTOS
RENOVE PLANA



%10eko DESKONTUA eta ordain ezazu 10 hilabeteetan interes gabe!

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95




iKER Fagor sukaldeko altzariak, %**25**eko deskontua lau modelotan. Azaroaren 18 arte.
Zatoz eta ikus itzazu!

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR 



RKUZ
GRUPO
ARETXABAETA 1950 • 2007 ARRASATE

RKUZ
ELECTRODOMESTICOS
Andramari auzunea
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAR
Araba etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

RKUZ
COCINA INTEGRAL
Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA

RKUZ
MUEBLER
Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA

Harrituta utzi nahi dituzu zure txikiak?
Har ezazu une bat...
Arkautz etxearekin, amets zoragarriak
izango dituzte.

Arkautz zure etxea da.

HIRIGINTZA > BIRIBILGUNEAK

Arrasateko mugako biribilgunea maila bat gorago egitea proposatu du Udalak

Garagartzatik datorren errepidea Arrasate-Aretxabaleta saihebidarekin lotzea izango du helburu Aldundiak egingo duen biribilgunea

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Arrasate eta Aretxabaletak bat egiten duten elkargunean, GI-627 saihebidetako sarreran, biribilgunea egiteko asmoa dauka Foru Aldundiak. Horren arrazoia da errepidea egingo dutela Garagartza auzotik aipatutako elkargunera; GI-2620 Arrasateko saihebidetako berria izango da, hain zuzen. Hala, Aramaio-Santa Ageda-Garagartza errepidea zuzenean lotuko dute Arrasate-Aretxabaleta saihebidarekin, Arrasate erditik pasatu barik. Izan ere, Garagartzan dauden lantegi eta industrialdeetako langileen txanda aldatetako hain-



MUGA Saihebidetako sarrera Arrasate eta Aretxabaletako mugan.

M.A.

bat zirkulazio arazo sortzen ditu, Arrasate erdigunean batez ere, eta uste dute errepide berri horrek arindu egingo duela autoen joan-etorria.

BI MAILAKO BIRIBILGUNEAK

Aldundiko Bide Azpiegiturak Departamentuak egindako proiektua aztertzen jardun du Aretxabaletako Udalak azken

hilabeteotan, eta iradokizuna aurkeztea erabaki du. Proposatu dio biribilgunea bi mailatan egitea zirkulazioa hobeto bideratzeko. Hala, Garagartza-Ber-

gara-Donostia ibilbidea egingo duten automobilek eta Garagartza-Eskoriatza-Gasteiz egingo dutenek goiko mailan egindako errepideari jarraituko liokete zuzenean saihebidetara; eta Arrasate eta Aretxabaleta arteko zirkulazioak eta tranbiak gaur egun dagoen bidetik jarraituko lukete.

Aldundiak aurreikusitako proiektuak aurrera egingez gero, biribilgunean tranbiarendako igarobidea egin beharko litzatekeela adierazi digute Udaleko Hirigintza Saileko arduradunek: "Eta semaforoak jarri beharko litzateke".

DESJABETZEAK EGITEN

Biribilgunearen proiektua egin da daukate Bide Azpiegiturak Departamentuan, eta desjabetzeak egiten dabilta orain. Horregatik, inguru horretan lurrak dituen aretxabaletar batek ere alegazioa jarri dio proiektuari. Hirigintza Saileko arduradunek uste dute urtea bukatu aurretik esleitu gurako dituela lanak Aldundiak.

> BERBALDIA

Bularreko minbizia izango dute berbaei martitzenean, hilak 23

Bularreko minbizia bizkor antzemateak duen garrantziaren berri emango die Aretxabaletako emakumeei, bereziki 50 eta 69 urte bitarteko emakumeei, Katxalin elkarteak, Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Emakumeen Elkarteak. Maria Jesus Mitxelena Donostiako Institutu Onkologikoko medikua etorriko da argibideak ematera.

Martitzenean, hilak 23, izango da berbaldia, 18:00etan, Iralabarri plazako 6. atarteko bideo gelan.


Konponduta Urkulura doan bidegorriko zuloak

Lurrak behera egin eta izugarriko zuloak zeuden Aretxabaletatik Urkulura doan bidegorriko: txabolak pasatu eta gero, askaren inguruan eta Urkulura iristean. Oinezko zein bizikletan doazenendako arriskutsuak direla ikusita, konpondu egin ditu Udalak. Gainera, onartu du mantentze-lanak aldiro egin beharko dituela egora onean izateko.



M.A.

propaganda kartelak
kartak
jai egitarauak
pegatinak
liburuak
etiketak
txartelak
errekordatorioak
gonbidapenak
errebistak
inprimakiak



EGUSKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxes: 943 792 941

E-mail: info@eguskigraf.com

1979urtetik
zure zerbitzura

OSPAKIZUNA > GASTRONOMIA ETA FOLKLOREA

XI. gastronomia eta folklore jaia domekan Herriko Plazan

XIII. patxaran lehiaketa egingo dute, eta domekan bertan aurkez daitezke etxean egindako patxaranak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Gastronomia eta folklore jaia ospatuko dugu gurean domekan. Beste herri batzuetako jateko eta edatekoak dastatzeko paregabe-ko eguna da, eta Herriko Plaza bete egingo da, urtero legez.

JATEKO ETA EDATEKOAK

Lau autonomiatako ordezkariak etorriko dira gurera. Laudiotik San Fernando taldeak egingo digu bisita, eta Gaztela eta Leongo dantzen erakustaldia egingo dute. Jatekoen artean, osteria, ezti, zezina eta erroskillak eskainiko dituzte. Donostiako Casa Galiciako kideek, berriz, dantzan egingo dute eta olagarroa, enpanadak eta era guztietako orujoak izango dituzte.

Casa La Rioja taldeko donostiarrek ardoa eta hestebeteak eskainiko dituzte, eta Arrasateko Corazon de Encina extremadurarrak urdaiazpikoa eta txixi-burruntziak ekarriko dituzte, besteak beste. Eta adimen urri-



JATEKOA Txorizoa, urdaiazpikoa, urdaia eta beste jateko batzuk Herriko Plazan, iaz egindako jaialdian.

ARETXABALETAKO UDALA

tasuna dutenen alde lan egiten duen Aratz taldeak Aretxabaleta ordezkatu du. Gazta, odoloste eta txorizoarekin egindako mokaduxoak eskainiko dituzte.

Goiza, gainera, Errioxatik etorritako musika taldeak girotuko du: Jovenes Juglares Riojanos de Guitarra y Pua. Eta arratsaldean, hainbat ukitutako musika

egiten duen Nahasiak taldeak eskainiko du kontzertua: Galizia eta Gaztelako doinuak, zelta eta Erdi Aroko musikarekin.

PATXARAN LEHIAKETA

Domekan, XIII. patxaran lehiaketa egingo dute. Egunean bertan aurkeztu behar dira norberak etxean egindako patxaranak,

11:00etatik 14:00etara, Herriko Plazan. Bakoitzak botila bi aurkez ditzake, eta botilaren orijinaltasuna ere kontuan hartuko d epaimahaiak. Hiru onenei garai-kurra eta diru saria emango diete, eta antolatzaileen eskuetan geratuko dira patxaran irabazleak. Gainontzekoak herritarrek proba ditzaten eskainiko dituzte.

AGURRA > DUNIXE ZUAZABEITIA

Duni Zuazabeitia agurtu dute Tril taldekoek

Langile fina, apala eta umoretsua, herriko kontuen gainean gehien zekienetako; urriaren 4an hil zen, 88 urte zituela

M.A. > ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkarte barruan dagoen Tril emakume taldeko kide Dunixe Zubizarreta urriaren 4an hil zen. Emakume apal, langile fin eta umoretsuari agur esan gura izan diote Trileko kideek:

Duni, auskalo hor be nora begira zazen! Masari goxo-goxo formie emuten dutzuzun bitartian hurrengo enbajadaren bat

preparatan! Painelue buruen, tximaren batzuk ihesien eta zuri gustetan jatzun moduen, goitik behera biher dan moduen jantzitte! Izen be, beti gustau jatzu zuri papelian sartzie... antzerkiko urte horreik etzien alperrik joan! Garai baten espaloiz bestalde alde eitten euen hareik gustora jango zittuen zuk eiddako taluak. Bueno, Trileko talo txosnan be zeu izen zinen hasierako metxie jarri zeueneta-

kua...nola ez! Zeu moduko emakume asko biher dittugu hau aurrea atarateko... gaztetatik saltsera eta urtien pisuai kasu ein barik beranduau be ilusiñua eta gogua beste danei kontajietako. Eta oin zer eitteko asmua dauketzu? 88 urte bete dittuzunian gugandik independizetia erabaki dozu. Loramendiko telefono gorrixan linea zabalik eukiko dozu proposamenen bat ein gura dozunerako!

IKASTAROA

Barrea eta umorea landuko dituzte

Emakumeendako da eta eguenetan egingo dute, hilaren 25ean hasita

M.A. > ARETXABALETA

Barre eta umorearen onurak izeneko ikastaroa antolatu du Udaleko Gizarte Zerbitzuak, emakumeendako. Ere-mu psikosozialean lan egiten duen Lahar elkarteak eskainiko ditu eskolak; Ana Perez eta Marieta Vicente kideek, hain zuzen. Urriaren 25ean hasi eta azaroaren 29ra bitartean elkartuko dira, egunero, 17:30etik 19:30era, Iralabarriz plaza 6. atartean.

UMOREA EGUNEROKOTASUNERA

Autoestimua gainera ikastaroa antolatu izan dute azken bi urteotan Gizarte Zerbitzuek, eta iaz egindakoaren ostean azaldu zuten emakumeek barrearen gainean zer bait egiteko interesa: "Umorea norberaren bizitzara eta egunerokotasunera zelan eroan erakutsiko dute, eta ikastaro praktikoa izango da", argitu du Mirari Aias-tui gizarte laguntzaileak.

Edozein emakumek eman dezake izena; horretarako, udaletxeko Gizarte Zerbitzuetara joan behar da urriaren 25a baino lehen.

TXAPELKETA

Banakako billar txapelketa bihar

Eta azaroaren 10ean mahai-futbol txapelketa; biak Loramendi E Erek

M.A. > ARETXABALETA

Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta banakako billar txapelketa jokatu dute bihar, zapatua, Azkena tabernan. 16:30ean hasiko dute txapelketa, eta izena emateko aurretik joan behar da tabernara.

Azaroaren 10ean, osteria, mahai-futbol txapelketa egingo dute Haizea tabernan. 17:00etan hasiko dute txapelketa hori, eta izenematea 16:00etan izango da.



DUNI Orain dela urte batzuk San Migel jaietan taloarendako masa egiten. LORAMENDI ELK.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

RaijinTattoo



MANTENDU DEBAGOIENA
EDERRA!
TATUATU ZAITEZ!

Iralabari plaza 1, behea
Aretxabaleta
Tel.: 610 85 91 54
www.myspace.com/raijintattoo

JAIK > BALORAZIOA

Jaien balorazio positiboa egin du Udal Kultura Sailak

Jaien gaineko balorazio positiboa egin dute Udal Kultura Sailak eta baita ezker abertzaleak ere

MIREN ARREGI > OÑATI

Eguraldi ona lagun izan da aurtengo San Migel eta Errosaio jaietan. Hala, jendearen parte-hartzea ikuskizun eta ekintzetan handia izan da jaiak iraun duten bi asteburuetan. Esaterako, Tirri Tarra fanfarre ikuskizunean 1.500 lagun inguru batu ziren Herriko Plazan eta lepo bete da plaza eta txosnagunea beste hainbat kontzertu eta ekitaldirekin ere, Kultura zinegotzi Amaia Inzak dioenez: "Jendearen parte-hartzea handia izan da, jendea kalean egon da eta oso giro polita izan dugu jaietan. Pena izan zen irailaren 30ean Kora talde senegaldarren gaueko ikuskizunean euria egin zuela. Hori dela eta, jendea etxean gelditu zen".

Berrikuntzek ere izan dute arrakasta aurtengo jaietan. Hala adierazi du Amaia Inzak: "Zaldi hezitzaileen ikuskizunak jende ugari bildu zuen plazan. Kalegoieneko gunean kapoeira emanaldia



HERRI EGUNA Argazkian jendea ganadua ikusten .

GOIENKARIA

ipintzea ere oso ideia ona izan zen, zaldi hezitzaileen ikuskizuna amaitzean jendea hara joan baitzen". Horrez guztiaz gainera, auto klasikoen erakusketan, gazetxoentzako parkean, Tirri Tarra ikuskizunean eta Scura Splats valentziarrek eskainitako kale ikuskizunean ere herritar asko elkartu ziren.

Parrokiako pintaden gainean ere esan ditu hitz batzuk Kultura zinegotzi Amaia Inzak: "Egin duenak jakingo du zein onura atara duen. Horrelako eraikinetan pintadak ikustea benetan da deitoragarria eta penagarria".

Bestalde, azken urteen antzera, arratsaldeko sokamuturrak luze jotzeak herritarren kritika

asko piztu ditu. Kexa orokorra izan da, Amaia Inzaren esanetan, eta Kultura Sailak aurrera begira arratsaldeko sokamuturra laburtzeko aukera aztertuko du. Hala, iluntzeko ekitaldiak aurreratzeko aukera izango da, eta beste emanaldi batzuk eskaintzeko aukera ere bai.

EZKER ABERTZALEAREN IRITZIA

Oñatiko ezker abertzaleak ere egin du jaien balorazioa. Euren arabera, oro har ondo joan dira jaiak, inolako gertakizun berezirik gabe. Txantxikuaren jaitziera ekitaldi garrantzitsuenetarikotzat jo dute, jende askok lagundu zion-eta txantxikuari jaitzieran.

Preso, errefuxiatu eta iheslari politikoen aldeko ekimenen gainean ere eman dute iritzia ezker abertzaleko kideek. Marijo Altubek esan du herritarrek erantzun oso ona eman dutela ekimen horietan, preso eta iheslari eta euren familiei elkartasuna erakutsita.

Plazako agertokiaren kokapen berria begi onez ikusi dute, baina segurtasun neurriak zorrotz egin beharko lirartekeela esan dute, haur bat erori zen-eta agertokitik. Azkenik, jai giroa herriko beste zenbait gunetara zabaltzeko eskaria egin dute.

IKUSKIZUNA

Ipuin kontaketa, txikienei zuzenduta

Urriaren 23an eta 25ean egingo dute 'Haur kabareta' haur liburutegian

M.A > OÑATI

Udal Liburutegiak antolatuta, 8 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendutakoa izango da. Bi saio izango dira, biak ere arratsaldeko seieta. Tailer formatua izango du ipuin kontaketa saioak. Hau da, haurrek ipuinak entzuteaz gain, aktiboki parte hartuko dute saioan, panpina bat eginaz. Tailerra Anthony Brown-en *Kezkamuxelak* liburuan oinarrituta dago eta liburua, era berean, Guatemalako *Quitapenas* izeneko panpina baten. Guatemalako haurrek txotxekin, oihal zatiekin eta hari pusketekin egiten dute panpina hori eta hango umeak kezkarik gabe esnatzen dira, *Quitapenas* panpinari esker.

> AISIALDIA

Usakoko bainugunea egokituko du Udalak datorren urterako

Usakoko gunea bainugune bihurtuta dago eta horrek hainbat zerbitzu beharrezko egiten ditu. Hala, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak bidalitako idatzi bati kasu eginez, Usakoko bainugunea Osasun Sailak ezarritako osasun neurriak betetzeko baldintzetara egokituko du datorren urtean Udalak. Besteak beste, gune arriskutsuak edo salto egiteko guneak seinalizatuko dituzte, bainatzeko orduetan zaintzailea ipiniko dute eta inguruan, dutzak eta edateko ura ematen duten iturriak ipiniko dituzte.

TOPAKETA > 'ARANTXAK ARANTZAZUN'

Hilaren 28an egingo dute topaketa

Euskal Herriko Arantxa, Arantza eta Arantzazu guztiei zabalduta diete antolatzaileek Arantzazuko topaketara joateko gonbidapena

Aurten bosgarren aldiz antolatu dute 'Arantxak Arantzazun' topaketa

MAIDER ARREGI > OÑATI

Euskal Herrian bi mila Arantza, Maria Arantzazu, Arantzazu eta Arantxa inguru daude. Hain zuzen, *Arantxak Arantzazun* topaketako antolatzaileek guztiei zabalduta diete gonbidapena.

Egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek. Lehenengo, meza egingo dute 12:00etan. Meza amaitu ostean, trikitilariak jai giroa alaituko dute eta Arantzazuko basilikako eskaileratan argazkia aterako dute. 13:30ean, bazkaria izango dute Sindikan eta bertan, Arantxa nagusienari eta

gazteenari opariak banatuko dizkiete. Gainera, Euskadiko Kutxak emandako 110 bat sari zozketatuko dituzte. Bazkalostean dantzaldia izango da. Iñaki Beristain Arantzazuko apaizak 17:00etan eskainiko dituen hitzekin amaituko da topaketa.

TOPAKETAREN JATORRIA

Arantzazun egin zuten topaketa batean, norbaitek Arantxa izena oihukatu zuen eta izen bereko emakume askok buelta eman zuten. Eta hori da, hain zuzen, jai edo topaketa horren jatorria.



ARANTZAK laz ateratako argazkiak Arantzazun.

GOIENKARIA

Izena emateko epea bihar, urriak 20, amaitzen da. 35 euroko diru sarrera egin beharko dute interesa dutenek Euskadiko Kutxako kontu zenbaki honetan: 3035 0170 54 1701019652.

BOSGARREN TOPAKETA

Aurtengoa Arantzazun egiten den bosgarren topaketa da: lehenengoa 1956ko uztailaren 15ean

egin zuten, basilika berriaren inaugurazioa aprobetxatuz. Bertan, 400 bat lagun elkartu ziren; bigarren topaketa 1996an egin zuten eta 2.000 elkartu ziren; hirugarrenean, 2001. urtean, 500 bat lagun bildu ziren Arantzazuko Frantziskotarren V. mendeurrena ospatzeko. 2005ean egin zuten laugarren eta azken topaketa eta 300 elkartu ziren.


ALZU
Ehiza, arrantza eta mendi artikuluak
Arantzazu kalea 2 - Oñati
Tel.: 943 78 30 67



IBILGAILUEN ZERGA Potentzia handia duten ibilgailuei zerga handiagoak ezarri gura dizkie EAE-ANV taldeak.

IKER BARANDIARAN

OGASUNA > UDALEKO ORDENANTZA FISKALAK

Hilaren 31n onartuko dituzte Udaleko ordenantza fiskalak

EAeren asmoa da uraren, ibilgailuen eta ondasun higiezinaren arloetan aldaketa sakonak egitea

Atzo, eguena, batzartu ziren batzordean eta hainbat adostasun lortzeko asmoa zuten

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Atzo, eguena, Udaleko Ogasun azpibatzordeak batzarra egin zuten ordenantza fiskalak erabakitzeke. Hilaren 31n osoko bilkuran onartuko dituzte.

Ordenantza fiskalen barruan daude zergak (trukean zerbitzu zuzenik jaso barik ordaindu beharrekoak); tasak (zerbitzu zuzen baten truke direnak); eta udal zerbitzuen prezioak. EAE-ANVk aldaketa nabarmenak egin gura

dizkie Eskoriatzako ordenantza fiskalei. Pedro Lasagabaster alkaterearen esanetan, helburua da "gutxienez duen gehiengoari erraztasunak eman, eta gehien duen gutxiengoari gehiago ordainarazi".

ONDASUN HIGIEZINAK

EAeren asmoa da ondasun higiezinaren gaineko zerga jasotzeko familiaren unitate kopurua eta baita soldadak ere, biak, kontuan hartzea. Gainontzeko alderdiek,

berriz, familia osatzen duten lagun kopuruari erreparatu diote batez ere.

Bestalde, energia berriztagarriak instalatzen dituenari zergatako kopuru bat kendu egingo diote. Horren barruan, EAEk geotermikoak, eolikoak eta orhar etxebizitza bioklimatikoaren ereduaren alde egiten duten sistemak sartu ditu.

POTENTZIA HANDIKO AUTOAK

Ibilgailuei dagokienez, EAEk zerga handiagoa ezarri gura die potentzia handiena dutenei. Horrez gain, 120 gramo CO2 kilometroko baino gutxiago isurtzen dutenei bonifikazioa egin gura die. Gainontzeko alderdiek KPIren pareko igoera ezartzearen aldekoak dira.

ESPEKULAZIOAREN GAINEAN

Lasagabasterrek gidatzen duen taldearen beste asmo bat da hiri izaera duten lurren balio igoreraren gaineko zerga ezartzea: hain zuzen ere, lursail bat erosi eta urte gutxira berriro kalifikatzen bada, saltzerakoan tasa handiagoa kargatzea.

GEHIEGIZKO KONTSUMOA ZIGORTU

Alderdi guztiek bat egiten dute uraren gehiegizko kontsumoa kontrolatzeko asmoarekin, baina bide desberdinak dituzte horretarako: EAEk hiru hilabeteke 20 metro kubikotan jarri du tasa txikiena ordainduko duen gehieneko kopurua. EAEk eta EBk gurago dute azterketa sakona egitea; eta EAJren ustetan, hobe da erabilitakoa ordaintzea.

EUSKARA

Berba egiterakoan zuzendu beharrekoak

'Geuria, txarto esanak zuzenduz' eskuorria kalean izango da hileroko

I.B. > ESKORIATZA

Leintz Udal Euskaltegiak, Eskoriatzako Udalarekin eta herriko ikastetxeekin elkarlanean, *Geuria* ekimena abiarazi du.

Hain zuzen, familia euskaldunei zuzenduta dago, eta helburua da euskaraz berba egiterakoan egiten ditugun ohiko akatsak ahal den neurrian zuzentzea.

"Gero eta akats gehiago egiten ditugu berba egiterakoan, eta horiek inork ez badi-tu zuzentzen, ohiko bihurtzeko arriskua dute. Askok ez dakite txarto esanda daudenik, eta horri konponbidea eman behar zaio", azaldu zigun Leintz Udal Euskaltegiko Karmele Agirregabiriak.


HILERO ARIKETAK EGITEKO

Arazo horri konponbidea emateko, hileroko-hileroko ikastetxeen bitartez eskuorri batzuk banatuko dituzte. Eskuorri horiek *Geuria*, txarto esanak zuzenduz izena dute. Bertan, ohikoa den akats baten gaineko azalpena emateaz gainera, bina ariketa eta denbora-pasa bat sartuko dituzte.

Ikastetxeetan umerik ez dutenek ere aukera izango dute Udaleko Euskara Zerbitzuan eskuorri horiek eskuratzeko. Horrez gain, jakinarazi dute otsail aldera ariketa guztien errebasoa egiteko eskuorri berezia kaleratuko dutela; eta horrekin lotuta zozketak egingo dituztela.

EUSKALKIAN ETA BATUAN

Ariketa horiek euskalkian eta batuan egin dituzte, bietara. Norberak gura duena har dezake ikastetxeetan.



FAGOR 

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01



AZKOAGA

ESTANKO A

943 71 48 77

Zure
Zerbitzura

AISIALDIA > 'Ezkurtxorekin JOLASEAN' EKIMENA ZAPATUAN

Apotzaga ezagutu eta Ezkurtxorekin jolastuko dira herriko txikienak

Herriko 2 eta 10 urte bitarteko ume eta gaztetxoei zuzenduta dago aisialdiko ekimena

Apotzagan egingo dute aurtengoa, eta, jolasteaz gainera, auzoa ezagutuko dute

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, *Ezkurtxorekin jolasean* ekimena egingo dute herrian. Arizmendiko Jose Arana eta Almen guneek antolatu dute eta herriko 2 eta 10 urte bitarteko ume eta gaztetxo guztiei zuzenduta dago.

Aurtengoa Apotzagan egingo dute, eta horretarako autobus bat bueltaka ibiliko da Jose Arana gunetik elizate horretara, 15:30ean hasita.

ANTZINAKO JOLASAK

Ezkurtxorekin lotutako ekimena aspaldi asmatu zuten Jose Arana gunean. Helburua zen herriko txikienendako ipuinekin eta irakurketarekin lotutako ekimen bat egitea. Zortzi urtean egin zuten jarraian: bata erdigu-

nean eta beste zazpi elizateetan. Horren ostean, atsedean hartzea erabaki zuten.

Iaz, berriz, ekimena berreskuratzea erabaki zuten. Baina izaera aldatu zioten ekimenari: ipuinekin lotu beharrean, antzinako jolasak berreskuratze ahalegina egitea erabaki zuten.

Iaz erdigunean egin zuten, baina orain elizaterik elizate joango dira, eta aurtengoa Apotzagan egingo dute.

APOTZAGA EZAGUTZEKO AUKERA

Apotzagara igo ahala, ume eta gaztetxoak taldetan banatuko dituzte, eta hainbat jolas egiteko aukera izango dute: goitibeherak, soka saltoka, boloak, taldeeskia, tiragoma eta dagoeneko erdi galduta dauden beste batzuk.



UMEEN MASKOTA Ezkurtxoren laguntzarekin, antzinako jolasak ezagutu eta ondo pasatzeko aukera izango dute.

ARIZMENDI

Bide batez, Arizmendikoek erdigunea eta elizateak erakutsi gura dizkiete herriko ume eta gaztetxoei. Hala egingo dute Apotzagan, auzotar baten laguntza-

rekin. Hain zuzen ere, kanposantua, eliza eta beste ezagutze aukera izango dute.

Gaztetxoenak jolasean arituko diren bitartean, txikienei ipui-

nak kontatuko dizkiete auzoan bertan. Eguraldi ona egiten badu, ekintza guztiak kanpoan egingo dituzte; bestela, aterpeak erabiliko dituzte.

AISIALDIA > PERRETXIKOEN GAINEKO JARDUNALDIAK

Perretxikoen gainean gehiago jakiteko jardunaldiak asteburuan

Urtero moduan, Luis Ezeiza eskolako gurasoen elkarteak perretxikoen gainekeo jardunaldiak egingo ditu, eta herritar guztiei zabalik daude

I.B. > ESKORIATZA

Asteburuan, perretxikoen gainean gehiago jakiteko aukera izango da Eskoriatzan. Hain zuzen ere, Luis Ezeiza eskolako gurasoen elkarteak jardunaldiak antolatu ditu biharko, zapatua, eta etzirako, domeka.

Jardunaldi horiek ohitura bihurtu dira, eta urtero herriko ume, gazte eta heldu ugari batzen dira perretxikoak batzeko.

ZAPATUAN, PERRETXIKO BILA

Bihar, zapatua, 09:00etarako egin dute hitzordua Gorosarri plazan. Handik autoetan mendi aldera



PERRETXIKOAK Herritarrek perretxiko erakusketan.

GOIENKARIA

abiatuko dira ahalik eta perretxiko gehien batzera: jatekoak eta bestelakoak. Hala jakinarazi dute, denetakoak hartuko dituz-

tela. Horren arrazoia da gero perretxiko horiek guztiak, sailkatu ostean, erakusgai jarriko dituztela.

Mendi buelta bazkalordura arte egingo dute. Aurreko urteetan Hiruerreketa aldera joan izan dira, Leintz Gatzagako lurre-

tara, hain zuzen ere. Aurtengoa, berriz, oraindik ez dakite nora joko duten.

DURANGOKO ADITUAK

Behin perretxikoak eta haien inguruko belarrak jasota, Luis Ezeiza eskolako jangelara eramango dituzte. Han, Durangoko Errotari mikologia elkarteak kideak zain izango dituzte. Durangarren zeregina izango da perretxiko horiek guztiak sailkatu eta izendatzea.

Arratsaldean ibiliko dira zeregin horretan eta gura duten herritarrek Luis Ezeizara joan ahal izango dute sailkatzea ikustera edota adituei gura duten galderak egitera.

DOMEKAN, ZOZKETA

Eta eskoriatzarrek jasotako perretxikoen erakusketak egingo dute Herriko Plazan domekan. Horrez gain, beste perretxiko batzuk dastatu eta zerbait edateko aukera izango da eguerdian. Horrekin batera, perretxiko otarra zozketatuko dute antolatzaileek.

bere ustez



Fernando Lete

Eman diezaiozun bidea bakeari

A mets gaiztoa berriro geureganatu da eta esperantzaz jarraitu genuen bake prozesua ia hilik ikusten dugu, barne sentimenduak ahul eta noraezean, samina, desilusia eta gorrotoa berriro geure artean.

Egoera honen aurrean hasiak dira erruak batak besteari ezartzen eta nik ere badut nire zerrendatxoak. Hasieratik dena apurtzen saiatu direnak; aukera eta ardura izan eta nahikoa egin ez dutenak; betiko bideetara bueltatu direnak; beti interes

"Hasi dira bata besteari errua botatzen eta nik ere badut nire zerrendatxoak"

propioak denen gaineratik jartzen dituztenak; giza eskubideak bakarrik *etxeokentzat* defenditzen dituztenak; erabakitzeko eskubideari baldintzak jartzen dizkietenak; bere *Zutabe* beldurgarrietan zerrenda beltzak agertzen dituztenak; askatasun eta herriaren izenean sarraskiak egiten dituztenak; biolentzia egoeran lasai edo gustura bizi direnak; boterearen poderioz herri ametsak ukatzen dituztenak; atxiloketa, errepresio edo biolentziarekin konponbidea ekarriko dutela uste dutenak; eta azkenik herritar denok, mahaian eserita egon direnean lokartuta egon gare-lako, bake prozesua bultzatu eta babestu beharrean. Nahikoa da, emazioe, eman diezaiozun bidea bakeari.

((112))
SOS DEIAK



SAGASTI Datorren urteko udaberrirako bukatuko dute gizarte eta kultura etxea izango dena eraikitzen.

A.I.

GIZARTE ETA KULTURA ETXEA > BISITALDIA ELKARTEKIN

Sagastiko eraikina eta Telleria bisitatu dituzte

Gizarte eta kultura etxea izango denaren eraikina datorren urteko udaberrirako bukatzea espero dute Udaleko arduradunek

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Atzo, eguna, kultura batzordeko kideek eta kulturaren munduko hainbat eragilek gizarte eta kultura etxearen lanak ikusteko aukera izan zuten. Baita Telleria etxe lanak ere; han egingo dute Larrugintzaren Interpretazio Zentroa.

Valen Moñux Udaleko aparejadoreak eta Juanlu Aranburu Kultura teknikariak eman zizkieten Sagastiko eraikinaren

gaineko azalpenak. Beheko solairuan egongo dira anbulatorioa, liburutegia, aldagelak eta erabilera askotariko aretoa. Areto hori erabiliko da hitzaldiak, antzerki eta zinema emanaldiak eta erakusketak egiteko, besteak beste. Lehenengo solairuan eguneko zentroa eta erretiratuaren lokalak egingo dituzte. Azkeneko solairuan babespeko lau etxebizitza egingo dituzte, adineko jendearendako.

Eraikinaren lanak udaberrirako bukatzea espero dute Udaleko arduradunek. Aurten bukatzeak ziren, baina atzerapena izan dute. Eraikina bukatuta, gero geratuko da egoitzak hornitzea eta jarduerak martxan jartzea.

LARRUGINTZA ZENTROA

Ondoren, Telleria etxean egingo duten Larrugintzaren Interpretazio Zentroa bisitatu zuten, Josu Tellabide proiektuaren arduradunaren laguntzarekin.

Udaleko arduradunek espero dute egoitza bukatuta egongo dela 2008. urterako, eta hurrengo urterako zentro hori irekitzeko asmoa dute.

HERRI IKASTETXEA > GURASO ELKARTEA

Pausoka gurasoen elkarteak azaroaren 12an, astelehena, egingo du urteko batzar orokorra

Elkartearen batzordeko kide berriak aukeratzeko lehenengo bozketa gaur, egubakoitza, egingo dute

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Oraingo astean banatu dituzte gurasoen artean batzordeko kide berriak aukeratzeko zerrendak. Hautagai diren guraso guztien izenekin banatu dituzte orriak eta

gaur, egubakoitza, da botoa emateko azkeneko eguna. Datorren astelehenean, urriak 22, bigarren itzulira pasatu diren gurasoen zerrendak banatuko dituzte. Zerrenda hori osatuko dute gaurko bozketan boto gehien jaso dituzten gurasoek; gela bakoitzeko bozketa egingo dute azaroaren 12an, astelehena, Pausokaren urteko batzar orokorrean.

BATZARRA

Urteko batzar orokorrean lehendakari berria ere izendatuko dute: Paco Cabrera izango da,

orain arte lehendakariorde izan dena. Horrela, Nerea Irizarren lekua hartuko du Cabrerak.

Batzordekide berriak izendatzeaz gain, aurreko ikasturtean egindakoaren berri eta ikasturte berrirako egitasmoen berri emango dute.

Aipatzekoa da, bestetik, datorren ikasturteari begira Pausokak erabaki duela urteko batzar orokorraren data aurreratzea; irail hasieran egingo dute batzar hori aurrerantzean.

Etorkizunari begira, eskolak duen espazio arazoa izango da Pausokaren erronketako bat.

> FUTBOLA

Bigarren postura igo da erregional mailako taldea

Aurreko asteburuan garai-pen garrantzitsua lortu zuen erregional mailako futbol taldeak. 1-4 irabazi zion Legazpiko Iintxa taldeari, Legazpin. Aitor Godoyk, Iker Cabrerak, Josu Zubikaraik eta Iban Unanuek sartu zituzten golak.

Hain zuzen ere, bigarren postuan daude antzuolarrak. Hasiera oso ona eman diote denboraldiari, batez ere kon-tuan hartuta maila berria dela antzuolarrak. Andoni Azkargorta entrenatzailea oso pozik azaldu da orain arte lortutako emaitzekin.

Datorren asteburuan Eztalan izango dute partidua, Urolaren aurka. Zapatuan izango da hori, 16:30ean.

> HAURRESKOLA

Hezitzaile berri bat hasi da oraingo astean Haurreskolan

Ikasturte berria hasi zenez, lau hezitzailek jardun dute lanean Haurreskolak Partzuergoak Antzuolan duen haurtzaindegian. Oraingo astean hasi da lanean bosgarren hezitzailea, Alaitz Jauregi antzuolarra, hain zuzen ere. Iaz ere hezitzaile lanetan jardun zuen Jauregik Haurreskolan.

Gaur egun, guztira, hemezietzi ume daude Haurreskolan; horietatik 13 urtebete eta bi urte bitartekoak eta gainerakoak urtebete baino txikiagoak. Azaroan beste lau ume hasiko dira; hiru hasiko dira hilabete hasieran eta beste bat bukaeran. Horrela, plaza guztiak beteta geratuko dira Haurreskolan, guztira 23 ume-rendako tokia dago eta.

> GAZTEGUNEAK

Hiru begirale berrirekin hasi dute ikasturtea

Gaztegunek, gaztetxoendako aisialdi zerbitzuak, hiru begirale berrirekin hasi du ikasturtea: Leticia Cuevas eta Ariane Vargas antzuolarrak eta Oihana Irure dira begiraleok, hain zuzen ere.

Azkeneko bi asteotan ez da jende askorik ibili, baina ikasturteak aurrera egin ahal gaztetxo gehiago espero dituzte. Zapatu eta domeketan zabalduko dute Errekaldeko lokala, honako ordutegiarekin: zapatuetan, 16:00etatik 20:00etara eta 21:00etatik 23:00etara; domeketan, 16:00etatik 21:00etara. 12 eta 15 urte bitarteko gaztetxoek zuzenduta dago Udalaren zerbitzu hori.

> ERRETIRATUEK IRTEERA
**Eguaztenean, hilak 24,
Aixola Errekara
egingo dute txangoa**

Elgetako erretiratuen elkarteak txangoa prestatu du datorren asterako. Eguazten arratsaldean egingo dute, hilaren 24an.

Aixola Errekara joan eta bertan presari buelta ematea proposatzen dute elkartetik. 14:30ean abiatuko dira, Herriko Plazatik. Autoetan egingo dute Urbedeinkaturainoko bidea. Bihar duzue azken eguna txango horretan izena emateko. Interesatuak Pedro Mari Uberarengana jo behar dute.

> LUDOTEKA ZERBITZUA
**Izena emateko epea
zabalik 2-12 urte
bitarteko umeendako**

Udalak azaroaren 6an jarriko du martxan ludoteka zerbitzua. Apirilaren 30era arte egongo da zabalik, asteleheneetik barikura bitartean.

Zerbitzua 2-12 urte bitarteko umei zuzenduta dago, eta interesatuak udaletxean eman behar dute izena azaroaren 5a baino lehen. Hilean 16 euro ordaindu behar dira umeko. Bi anai-arreba izanez gero, 11 euro hilean eta hiru izanez gero, berriz, 9 euro hilean.

> ELGETA F.T.
**Domekan Zestoaren
aurka jokatu dute,
19:00etan Unben**

Oraingo asteburuan, domekan jokatu du txapelketako norgehiagoka Elgetako taldeak. Hiru puntu lortzeko aukera polita du aurrean herriko taldeak; izan ere, Unben jokatu du eta taldeko azken sailkatuaren aurka, Zestoa B taldearen aurka, hain zuzen ere.

Bost partidu jokatu ditu oraingoz Elgetako taldeak. Bat irabazi du, bi galdu ditu eta beste bi berdindu. Bost punturik sailkapeneko zazpigarren postuan dago kokatuta.

> LORE SIKUEN SAIOA
**Zapatuan umeendako
ikastaroa egingo du
Pili Arinek, 17:00etan**

Arrakasta handia izan du herrian lore sikuen ikastaroak. Helduen ikastarorako 17 lagunek eman dute izena eta astelehen eta eguenean egingo dituzte saioak, 18:30etik 20:30era.

Eta bihar, zapatua, umeendako saioa egingo du Pili Arinek. 17:00etan batuko dira kultura etxean eta bi orduko ikastaroa izango da; saio bakarreko ikastaroa izango da, eta 16 umek eman dute izena.

SALBADOR KALEA > EUSKO JAURLARITZARI ESKATUTAKO DIRULAGUNTZEN ZAIN DAGO UDALA

Salbador kalean egitekoak diren lanei begira Torrealdeko etxebizitzetara ura eramateko

Oxel Erostarbe alkatea:
"Aurreko Udalak ez ditu bere garaian hartutako konpromisoak bete eta orain guk konpondu beharko ditugu gauzak"

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Elgetan hirigintza lan handiak daude iristear. Salbador kalean ur hoditeria, gasa, argindarra, zuntz optikoa eta ur zikinen hoditeria sartu behar dira. Garrantzitsua da lanok lehenbailehen egitea. Ur hoditeria sartu ezean Torrealdeko babes ofizialeko etxebizitzetarako Ur Partzuergoak ez du ur lizentziarik emango. Gerta daiteke horrenbestez, etxebizitzak amaituta egotea, baina bertan bizi-erik ez izatea.

"Aurreko Udalak ur hoditeria sartzeko konpromisoa hartu zuen,



TORREALDEA Babes ofizialeko etxeak bukatuta edo bukatzeaz daude.

L.Z.

baina ez du bete", azaldu du Oxel Erostarbe alkateak. "Argindarrarekin ere gauzak gaizki egin dira. Printzipioz ez gara ur eta argindar barik etxebizitzetara horietan bizi-erik baimena ematearen aldeko-

ak". Udalak lehenbailehen egin nahi ditu Salbador kaleko lanak, baina guztiak batera egin nahi ditu. Lanok egiteko Eusko Jaurlaritzara eskatuta dituen dirulaguntzen zain dago.

PILOTA

Herriko pilota txapelketa hastear

Gaur, barikua,
jokatu dira
lehenengo
norgehiagokak

L.Z. > ELGETA

Gaur, hilak 19, jokatu dira Udal Pilotalekuan helduendako herri mailako lau terdiko pilota txapelketako lehenengo norgehiagokak.

Zortzi bikotek eman dute aurten izena txapelketan, tartean iazko txapelkun Alex Arantzabal eta Alberto Telleriak. Arantzabalek, baina, min hartu du eta seguruenik ordezko batek jokatu beharko du haren ordez. Horiekin batera pilotan egingo duten beste bikoteak honakoak dira: Jabier Bolinaga-Iñaki Izagire, Luis Antonio Alkorta-Gorka Bolinaga, Pello Larrea-Mikel Elkoro, Asier Morales-Fernando Zenitagoia, Iñaki Ugarteburu-Jose Mari Zubiaurre, Joseba Arbulu-Mikel Arkarazo eta Koldo Goenaga-Roberto Basauri.

FINALA URTEZAHAR EGUNEAN

Gaur, txapelketako lehenengo partiduak jokatu dituzte, 20:15ean. Finala, urtero legez, Urtezahar egunean izango da.



L.Z.

35 ume aurten eskola kirolean

Asteon eman diote hasiera Elgetan Eskola Kirola programari. Hiru taldetan banatuta 35 umek jarraituko dituzte saiook maiatzera bitartean. Benjaminurrekoetan 11 umek eman dute izena, benjaminetan 15 dira eta alebinetan bederati. Kiroldegiko gimnasioan egiten dituzte saioak, Oskar Carrascal, Jose Mari Zubiaurre eta Iñaki Ugartebururen gidaritzapean.

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR
ER
Enpresa
Erregistratua
ER-0182/2/95
ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

bere ustez



Sebastian Arantzabal

Betiko gurpilari buelbaka

Hemen gertatzen dena Birmanian gertatu bazen, diktadura bortitz baten izugarrikeria izango zen. Gu, ordea, europar demokrazia baten bizi ei gara.

Azken urteotan eskaera ugari egin diote ezker abertzaleari, politika soilik egiteko beste bideetatik urrunduz. Hori errazteko, zuzendaritzako gehienak kartzelan sartu dituzte. Garzonen autoari erreparatuz, gainera, oso material arriskutsua atzeman diete atxilotuei: 07-08rako ildo politikoa, EH ezkerretik eraikiz,

"Hemen gertatzen dena Birmanian gertatuko balitz diktadura bortitz baten izango ginen"

marko demokratikorako proposamena... Honek erakusten du benetan zerk ematen dien beldurra Estatuei: euskaldunok gure etorkizuna erabakitzeke eskubidean oinarriturik, konponbidea ekarriko luketen proposamenak. Ezkerreko abertzaleontzat ere argigarria izan beharko luke zein bide hartu erabakitzeke. Estatuei aurre egiteko modu eraginkorrena gure proposamena gizarteratu eta autodeterminazioaren aldeko gizarre mugimendu indartsu bat bultzatzea da. Estatuetako eta euskal txiringitoetako agintariei oso ondo datorkie ekintza-erantzuna dinamika. Hor nahi gaituzte. Etorkizuna gurea izango da etsaiak baino argiago jokatzeko asmatzen badugu.

KULTURA > IKUSKIZUNA TALDEAREN EMANALDIA

Dantza eta musika, Ikuskizuna taldearekin

Txirritola elkarteak antolatuta musika eta dantza emanaldi berezia izango da zapatuan Aramaion

Ikuskizuna taldeak musika klasikoa eta gaur egungo dantzak nahasten ditu 'Geroago' lanean

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Txirritola euskara elkarteak ekitaldi berezia antolatu du zapatarako; musika, dantza eta erritmoz betetako dantza-antzerkia. Ikuskizuna taldeak *Geroago* lana antzeztuko du arratsaldeko zazpi eta erdietan Aramaioko kultura etxean.

Ikuskizuna taldea zortzi pertsonak osatzen dute, guztiak ere gaitasun eta arma bikainez hornituta. Koreografo, musikari, dantzari eta dekoratzaileak daude tartean. Horren guztiorren gainetik, baina, lagun talde baten ametsa da. Ikuskizun berezi eta originala egin nahi zute-la argi zeukatzen, eta hori lortze-

ko lanean hasita, mila bider errepikatu zuten *ikusizuna* hitza. Hortik taldearen izena.

Geroago lana da euren lehenengo antzezlana eta hainbat gauza konbinatzen ditu: gorpuzaren adierazkortasuna, imajinazioa... baina batez ere proiektu zehatz batean inplikatzeko gogoia eta indarra. Taldearen hitzetan, ahaztutako hainbat zaletasun berreskuratu behar izan dituzte proiektu hori aurrera eramateko, baina batez ere, ahaztutako zenbait sentimendu berreskuratu dituzte. Lan horrekin bizitzaren alde onak eta txarrak erakutsi nahi dituzte, azken finean bizitza hori da-eta.



IKUSKIZUNA TALDEA *Geroago* lana antzeztuko dute zapatuan kultura etxean.

IKUSKIZUNA.TALDEA

'GEROAGO'

Gaua eta eguna. Ongia eta gaizkia. Itsasoa eta basamortua. Hori xe da lanaren oinarria. Protagonistak esan gura digu egun alai eta tristeak daudela, baita gau triste eta gau alaiak ere. Deneta-

riko erritmoak erabiltzen dituzte antzezlanean, baina musika klasikoak protagonismo berezia dauka. Dantzak ere era guztietakoak dira, eta musika klasikoari aurre egiten dioten gaur egungo dantza asko daude. Eta euskal

folkloreak ere badu bere tokia. Emanaldiak ordubete irauten du eta ikusleendako sorpresarik ere izango da tartean. Ikuskizuna, beraz, Ikuskizunaren eskutik Aramaioko kultura etxean zapatu arratsaldean.

ERRETIRATUEN EGUNA

Salgai daude dagoeneko bazkarirako txartelak

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Datorren zapatuan, urriaren 27an, erretiratuen eguna ospatuko dute Aramaion. Udalaren eta herriko hainbat elkarteren artean egitasmo zabala antolatu dute egun horretarako.

Urtero moduan herri bazkaria egingo dute Aramaioko kiroldegian. Hori horrela, Udalak jakinarazi du dagoeneko salgai daudela herri bazkarira joateko txartelak. Hori ere ahalgo dira udaletxean bertan, Euskadiko Kutxan, Caja Vitalen edo auzo alkateei eskatuta. Urriaren 24ra arte egongo dira txartelak salgai.

Guztia prest dago, beraz, urriaren 27rako. Aurten, gainera, izango da nobedaderik erretiratuen egunean.

UDALA > UURIKO OSOKO BILKURA

Auzo alkateen gaia izango dute hizpide osoko bilkuran

Auzo alkateak elkar daitezen lokal bat ipini gura du herrian udalbatza berriak

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Udal gobernuak azkeneko osoko bilkuran azaldu zuen Nardaga eta Ibargoia kaleetan auzo alkateak izendatu gura zituela eta Udalaren eta auzo alkateen arteko elkarlana indartu nahi zuela. Bada, gaiak eztabaida sortu zuen, eta eguaztenean egingo den osoko bilkuran hartuko dute behin betiko erabakia.

Udalak, bestetik, auzo alkateen batzorde bat eratu nahi du auzoen eta Udalaren arteko elkarlana bultzatzeko. Eta batzorde horretan Udaleko ordezkariaren bat egongo da. Asier Agirre alkateak azaldu duenez, urtero Udalaren aurrekontuen zati bat auzolanetara

bideratuko da eta asmoa da batzorde horrekin batera erabakitzea aurrekontu horren zenbatekoa. Modu berean, auzo alkateen batzordeak erabaki behar du diru hori zein auzotara edo zein lanetara bideratu.

Auzo alkateendako lokal bat ere ipini gura du Udalak herrian. Bertan, suaren kontrako mangera eta palak egongo dira, baita auzolanetarako erabiltzen den materiala ere.

DURAKOGAIN MENDIA

Durakogain eta San Adriango mendiak birlandatzeko plegua ere aterako dute datorren osoko bilkuran. Aurreko Udalak baso hori birlandatzeko egindako proiektua atzera bota du udalbatza berriak, intsignis pinuez gain bertako zuhaitzak ere landatu nahi ditu-eta udalbatza berriak. Proiektuaren aurrekontua 77.144 euro da eta lanak bukatzeko epea datorren urteko irailean amaituko da.



ARRITXU BARRUSO

Margo lehiaketako lanak ikusgai

Itur-Zuri emakume elkarteak antolatuta 16. margo lehiaketa egin zuten joan den asteburuan Aramaion. Lehiaketara aurkeztu ziren lan guztiak Santiñan daude orain ikusgai. Lanekin osatutako erakusketa urriaren 22ra arte egongo da zabalik, arratsaldez. Margolanak berreskuratu ahal izango dira urriaren 17tik 22ra bitartean.

AZPIEGITURAK > UR-HORNIKUNTZA

Gaztainuzketako ur arazoa zelan konpondu aztertzen dabil Udala

Herriko ur-hornidura saretik eroatea edo alboko mendian beste iturburu bat topatzea aztertzen dabil Udala; biak ala biak irtenbide garestiak dira



GAZTAINUZKETA Sei mendi etxe eta jatetxea daude Gaztainuzketan.

F.B.H.

L.Z./M.A. > LEINTZ GATZAGA

Gaztainuzketa mendi etxeetan ur arazoak dituzte. Eta ur-hornikuntza arazook ez daukate irtenbide samurrik; horregatik, Udala oso kezkatuta dago.

Iazko Gabonetan Lapikozu-luetako iturburu lehortu zenen hasi ziren Gaztainuzketan ur-hornikuntza arazoak. Autobideko lanek lehortu zuten iturburu, eta Udalak hala jakinarazi zion Aldundiari. Adituak bidali zituzten orduan aztertzeraz, eta beregain hartu zuen Aldundiak bigarren iturburu batetik Gaztainuzketara ura eroateko egin beharreko lanen kostua. 27.000 euroko aurrekontua izan zuten.

MINUTUKO 6 LITRO UR

Maroto basoko iturburutik hartzen dute ura, urte berria ezkerro, Gaztainuzketako sei txaboletan eta jatetxean. Neguan ez zuten arazorik izan, baina uda iristerakoan konturatu ziren iturburuak ez duela ematen nahikoa ur. Horregatik zisterna-kamioian ekarri behar izan dute. Kezkek argitze aldera, hilabete honetan bertan, zenbat ur ematen duen

iturburuak neurtu dute: "Minutuko 6 litro ematen ditu. Aurreko iturburuak, osteraz, 11,5 litro ematen zituen minutuko", azaldu du Eusebio Villar alkateak.

IRTENBIDE GARESTIA

Oso kezkatuta dago Udala arazoarekin, eta irtenbide bila dabil. Alkatearen esanetan hiru aukera daude: "Lehenengo ideia ur-biltegia egitea zen, baina zertarako, urik ez badago? Beste aukera bat da herriko ur-hornidura saretik eroatea Gaztainuzketara". Mendi etxeak, baina, ez daude herrian, Gatzagainen baizik. "Eta hirugarrena, ondoko mendian

beste iturburu bat topatzea eta handik bideratzea. Aukera guztiak, baina, oso garestiak dira", bukatu du.

Azken bi aukerak ditu Udalak mahai gainean, baina aurrekontuak kezkatzen du. Alkateak dio Aldundiaren eskuartzea ezinbestekoa izango dela. Gainera, Arlaban gaineko plana aurreratu zuten aurreko agintaldian, eta turismorako gunea aurreikusituz Gatzagain ingururako. Alkateak dio urik ez badago, aipatutako planak ez daukala zentzurik; eta ondo baino hobeto aztertzeko asmoa dauka uraren arazoarekin batera plana.

GIZARTE ZERBITZUAK > TELEASISTENTZIA

GSR enpresarendako etxerik etxeko laguntza zerbitzuza

Teleasistentzia arautzen duen Udal erregelamendua onartu dute astean, apirilean eskaera egin ostean Udalak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Astelehenean onartu zuten behin betiko teleasistentziaren gaineko udal erregelamendua. Aretxabaletako Udalak duen erregelamendurekin egin du lan orain arte Gatzagakoak. Apirilaren 26an egindako osoko bilkuran erabaki zuen orduko udalbatzak erregelamendu propioa behar zuela, eta orduan abian jarritako eskaerak astean izan du bukaera.

ALDAKETARIK EZ ZERBITZUAN

Erregelamenduaren helburua da mendekotasun edo urritasunen bat duten herritarrek euren etxean jarraitzea eta bertan erantzutea dituzten beharrei. Hala, etxerik etxeko zerbitzuaren ardura GSR kooperatibari

eman dio Udalak, eta Ainara Gabilondo gizarte laguntzaileak haxe argitu digu: "Herritarrek ez dute igarriko inolako aldaketarik, lehen bezalaxe jasoko dutelako zerbitzua".

Etxerik etxeko zerbitzua jasotzeko eskaera egin duenari balorazioa egingo diote, mendekotasun gradua zehazteko. Emaitzak emaitza, hiru orduz jaso dezake zerbitzua gehienez ere. Zerbitzuaren kostua, osteraz, eskatzailearen diru sarreraren arabera zehaztuko dute.

EGUNEKO ZENTROA, ESKORIATZAN


Udalaren ardurapean daude autonomoak, hau da, norberaren kasa moldatzen direnak eta Aldundiarenean gainerakoak. Eguneko zentrorra joan beharra duten gatzagarrak Eskoriatzara bideratzen dituzte.

Zaharren egoitzari dagokionez, osteraz, bailaratan banatuta dauka zerbitzua Aldundiak. Hala, Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñatik osatzen dute bailara, eta horietako edozein egoitzatan lekua egiterakoan bertara bideratuko dituzte gatzagarrak.

> INTERNET

Interneten gaineko hainbat ikastaro egingo dituzte KZgunean, gaur arratsaldean

Gaur, egubakoitza, Interneten gaineko hainbat ikastaro egingo dituzte KZgunean. Aitor Madrid arduradunak ikastaroen zerrenda luzea ekarriko du eta herritarrek aukeratuko dute zeren gainean egin gura duten: sinadura elektronikoa, enplegua edo etxebizitza zela topatu, osasun txartel elektronikoa... 16:00etatik 18:00etara bitartean jardungo dute lanean. Hori bai, 16 urtetik gora izan behar dute erabiltzaileek ikastaroak jasotzeko.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

XAKEA

Aitor Alcaidek eskura du txapelketa

Aretxabaletakoak Alain Prietori irabazi behar dio Arrasate Hiria irabazteko

X.U. > ARRASATE

Gaur arratsaldean -19:00etan hasiko dituzte lehiak- erabakiko da nork irabazten duen aurtengo Arrasate Hiria xake txapelketa. Oraingoan, Aretxabaletako Aitor Alcaidek dauka abantaila, hura dago-eta sailkapenean lehenengo (4,5 puntu). Joan den astean Alejandro Franco faboritua mendea hartuta eman zuen Alcaidek jardunaldiko ezustea, eta baita txapelketakoa ere. Alcaideren kontrario Prietok, baina, asko du jokoan, atzetik datorrelako eta hark ere txapelketa irabaz dezakeelako.

HIRUGARREN HAUTAGAIA

Azken jardunaldiari emozio handiagoa emateko, partida hori gertutik jarraituko du txapelketa irabazteko aukerak dituen hirugarren hautagaiak: Fran Miguel aretxabaletarrak. Fran Miguelek Arrasateko Josu Tornay izango du aurrean.

Hirugarren taulan Antonio Miguelek Hernando izango du aurrean, eta laugarrenean Ortegak eta Francok neurtuko dituzte indarrak.

> PILOTA

Gipuzkoako txapelketa, bueltan

Joan den asteko deskantsuaren ondoren, Gipuzkoako pilota txapelketa bueltan da berriro ere. Hala, Arrasateko, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Bergarako pilotariak etxean jokatuko dute asteburuan.

Pilota partidu horien gutxienez 42. orriko kirol karteldegian daude.



DURANGOREN KONTRA Arrasatekoen defentsa, Durangoren aurrealdeak metroak egin ditzan ekiditeko lehiari, denboraldi-aurreko norgehiagokan.

XABIER URTZELAI

Seniorrek eta emakumezkoek asteburuan hasiko dute liga; horrekin batera, infantil mailako Gipuzkoako txapelketa jokatuko dute Mojategin

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldeko senior mailakoek eta emakumezkoek oraingo asteburuan hasiko dute liga txapelketa. Neskek izango dira estreinaldia egiten lehenak, Mikel Kerexetaren taldeak gaur, egubakoitza, arratsaldean hartuko du-eta Durango (19:30, Mojategi).

Bi talde horiek orain dela hiru aste jokatuta zuten elkarren kontra, Arrasaten antolatuta zuten lagunarteko partiduan. Orduan Durangok erraz irabazi zuen, Arrasatekoak hasiberriak dira-eta. Eta, gaur durangarrei zailtasun handiagok jartzen ahaleginduko dira Arrasateko neskek; dena dela, aurten emaitzek ez dute aparteko garrantzirik izango, taldea egite soilak baduelako

ERRUGBIA > LIGA HASIERA

Seniorrek Getxon hasiko dute liga eta gaur jokatuko dute neskek

meritua, eta kirol horretan bidea egiten hasia delako ART taldearen helburua.

SENIORRAK GETXON

Durangoko hirugarren taldearen kontra hasiko dute seniorrek liga, domekan (12:00). Etxetik kanpora hastearekin batera, Arkaitz Ibarguenen mutilek kontrario gogorra izango dute aurrean, hori adierazi du klubeko ordezkari Joseba Zabalak: "Getxok hiru talde ditu, eta jokalarien artean lehia handia egoten da, hirugarren taldean dagoenak bigarren taldean egon gura izaten duelako eta bigarren taldean dagoenak lehenengoan. Edozean ere, Arrasatek behin baino gehiagotan irabazi izan du Getxoren zelaian".

GIPUZKOAKO TXAPELKETA


Domekan, 10:00etatik 13:00etara infantil mailako Gipuzkoako txapelketa jokatuko dute Mojategin

Bera Berak, Irunek, Hernanik, Atletico San Sebastian taldeak, Ordiziak eta Arrasatek. Hainbat talde ekarriko dituzte.



BERRIRO Arrasateko neskek Durangoren kontra jokatutako partiduan.

X.U.



ION LEIHOAK

P.V.C., ALUMINIOA ETA POLIURETANOAK

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
- ATEAK • ZOLUAK



20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: 945 26 71 73



KIROLGI > DIPUTAZIOAK DITUEN ASMO BERRIEN GAINEKO AURKEZPENEA

Dirulaguntza handiagoak kirol ikuskizuneko taldeendako

Diputazioko Kirol Saila Gipuzkoako hainbat komunikabiderekin elkartu zen eguaztenean, lantalde berria aurkeztu eta Kirolgik dituen helburuen gainean berba egiteko

XABIER URTZELAI > LAURGAIN

Oriotik gertu dagoen Laurgain-go paraje ederra aukeratu zuen eguaztenean Diputazioak, hasi berri duten legegintzaldiko aldatketen berri emateko. Iñaki Galdos -kirol diputatu berria- eta Iñaki Ugarteburu izan ziren Kirolgiren berritasunen gainean berbetan, eta diputazioko teknikariak izan zituzten lagun.

Hala, berritasunen artean dago kirol ikuskizun taldeak deritzenek (Reala, Bruesa...), hau da, elite mailan zale askok jarraitzen

dituzten taldeen dirulaguntzek tratamendu berezia izango dutela; handitu egingo dituzte.

ERRONKEN GAIANEAN

Horrez gain, Iñaki Ugarteburu kirol zuzendariak beste helburu batzuk azpimarratu zituen: Gipuzkoako kirol txartela (kiroldegi bateko bazkideak gainontzeko kiroldegiak erabiltzeko aukera); kirol ekipamenduak hobetzen jarraitzeko asmoa; kirola kanpotik datozenak integrazteko tresna bilakatzeko ahalegina; emakumeen kirola bultzatzea...

Eta, Kirolgi elkartea eskualdeka banatzeko proposamenaren gainean honakoa esan zion Ugarteburuk GOIENKARIARI: "Horrela antolatzeko ordezkariak izango bagenitu, egitura finkoak, baliteke emaitza onak ematea. Baina hori gestionatzea oso zaila izango litzateke. Kirolgin baditugu Debagoieneko kirolariak, bakarka lehiatzen direnak, baina ez dira asko. Taldeei dagokienez, berriz, Kirolgik elite mailako taldeak laguntzen ditu, eta



HEDABIDEKIN Ugarteburu eta Galdos, eguaztenean, Gipuzkoako komunikabideetako ordezkariekin berbetan.

x.u.

pena da, baina ibarrean ez dugu horrelako talderik. Horrek ez du esan gura Debagoienak ez duenik Diputaziotik dirurik jasotzen, baina ez eliteko taldeei dagokiena. Esate baterako, kategoria

guztietan ordezkariak dituzten klubei lagundu egiten diegu, eta orain, Mankomunitatearen bitartez eskubaloian, atletismoan eta pilotan egitura bateratuak bultzatzeko egitasmoa jarri dugu mar-

txan. Asmoa da, adibidez, Oñatiko atleta batek Mojategiko pista berriak erabili ahal izateko erraztasun guztiak ematea. Eta gauza bera egingo dugu pilotarekin eta eskubaloiarekin".

Bakoitzari berea

Nork bere errezeta behar du, ez dute guztiek guztientzako balio

Gaur egun bizi garen gizarte moderno honetan, badirudi norberaren zainketak eta osasunak ez duela lekurik. Gainera, sedentarisismoak, autoaren gehiegizko erabilerak, telebistari begira butakan etzanda ematen ditugun orduak, elikadura ohitura eskasek (otordu azkarrak)... geroz eta leku handiagoa hartzen dute gure egunerokotasunean.

Baina zer egingo diogu, bada? Ez dugu denborarik, presaka bizi gara eta gure ongiza-

tea bilatzera medikuarengana jotzen dugu. Errezeta *magikoa*-ren bila jotzen dugu medikuarengana, hark gure gaitz guztiak konponduko dituelakoan.

Ahaztu egiten zaigu gure bizi kalitatearen hobekuntzak bizimodu aktiboan duela abiapuntua; gu geu gara gure osasunaren sustatzaile.

Errezeta *magikoa*-k ez du funtzionatzen, baina beheko taulan lagun zaitzakeen errezeta bat aurki dezakezu. Athloneko medikuek gomendatutakoa da.



OSASUN AZTERKETA Kirola egiten hasi aurretik egin behar da azterketa.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

DIAGNOSTIKOA

ASPERTZEA
SEDENTARISMOA
MITXELINEN AGERPENAK
40 URTE INGURU HORRETAN EGOTEA

PRESKRIPZIOA

SPINNINGA, AEROBIKA, TENISA, ARETO FUTBOLA, BASKETA EDO PALA PARTIDATXOA
FRONTENISA, PADDLEA, PILATESA, SAUNA, IGERIKETA
GIMNASIO ZIRKUITUA, SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA

PAZIENTEARENZAT ARGIBIDEAK

LEHENENGOZ, KIROL MEDIKUNTZA ZERBITZUA BISITATU
MAIZTASUNA: astean birritan eginda nahikoa da
INTENTSITATEA: kirol medikuntza zerbitzuan esango dizuetu
EKINTZAREN IRAUPENA: ordu bete
BEHARRAK: astean birritan 90 minutu edukitzea
kirol arropa egokia
ekintzaren aurretik beroketak egitea, luzapenak jardura aurretik eta ondoren ekintza egiten den bitartean ura edatea

TRATAMENDUAREN IRAUPENA

HIRU HILABETEAN PROBATU, GERO GEROKOAK
POSOLOGIA
ASTEAN BIRRITAN
HASIERA DATA:
ZERGATIK EZ ORAIN BERTAN?

UDAL KIROL MEDIKUNTZA ZERBITZUA-ATHLON

Arrasateko Musakola kiroldegia
943 77 16 77
kirolmedikuntza@athlon.es



PAZIENTEARENZAT ARGIBIDEAK

- Tratamendurekin hastean, sentsazio bitxiak sentituko dituzu, poliki-poliki joango direnak, hala nola:
 - Gihar-mina, nekea, giharretan zama
 - Tratamendu horrek adikzioa sor dezake
 - Pisuaren jaitsiera ekar dezake
 - Bigarren mailako ondorioak: umore ona, barre algarak, txantxetan aritzeko gogoia, norberarekin gustura sentitzea, egiten denarekin gozatzea, jendea ezagutzeko erraztasuna



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

FUTBOLA > PREFERENTEA

Aretxabaleta eta Aloña Mendi, oilarren aurrean

Aurreko postuetan dabilzan Hernaniren eta Real Unionen kontra jokatuko dute asteburuan ibarreko ordezkariak; Mondrak azken postuan dagoen Touring hartuko du

X.U. > BERGARA

Ligako oilarretako bi izango dituzte aurrean bai Aretxabaletak eta baita Aloña Mendik ere. Aretxabaletari dagokionez, sailkapenari begiratuta Arenazaren mutilek ez dute zertan arduratu, Hernani atzerago dago-eta. Kontua da, baina, talde bakarra dagoela aurretik, Ordizia.

Hala, Hernanik orain arteko norgehiagoketan erakutsi du maila oneko hamaikakoa daukala -hirugarren mailan jokatu berri duten hainbat jokalarirekin-. Hala ere, joan den astean sailkapenean erdi inguruan dabilen Ondarroako Aurrerak 2-1 hartu zuen mendean Hernani, kategoria horretan dagoen berdintasunaren erakusle. Kontuak kontu, Hernanik zapatuan hartuko du Aretxabaleta (Zubiye, 16:30).

Aloña Mendiri dagokionez, oñatiarrek baino puntu bat gehiago duen Real Union izango da



ILLART Joan den asteko partiduan, Zumaiaiko kontrarioa gainetik kendu guran. J.A.

domekan Azkoagainen (16:30). Joan den astean Hondarribian lortutako berdinketa ona izango da domekan Real Union etxera esku hutsik itzultzen bada.

AZKEN SAILKATUA MOJATEGIN

Orain artean, Touring taldea da preferenteko denboraldia okerraren hasi duen taldea. Erreterierako taldeak jokatu dituen sei nor-

gehiagoketatik bakarra irabazi du -Zestoaren kontra, lehenengo jardunaldian-, eta beste bat berdindu (Eibartarrak). Zenbaki horiekin iritsiko dira Touringekoak Mojategira, Mondraren kontra jokatzera (zapatua, 17:00).

Mondrari dagokionez, joan den astean Zumaia kok utzitako zapore gazia gozo bilakatzeko egin beharko dute lan Arrasatekoek.



JOSETXO ARANTZABAL

Ford Mugarrik eta Bergarak Bizkaian jokatu dute asteburuan

Euskadiko Txapelketan lehian dabilzan Ford Mugarri Arrasatek eta Bergarak Bizkai aldera egingo dute asteburuan ligako bosgarren jardunaldia jokatzera. Hala, laugarren postuan dagoen Ford Mugarri Urduliz izango du kontrario. Joan den asteburuan jarraian irabazitako bi partiduei jarraipena emateko asmoz egingo dute Urdulizera bidaia (zapatua, 17:00).

Bergarari dagokionez, Muniategiren mutilak Loiura joango dira domekan (12:30), atzealdeko postuetan dagoen Urdanetaren kontra jokatzera. Etxetik kanpo jokatu arren, oraindik partidurik irabazi ez duen taldearen aurrean liga hasiera zuzentzeko aukera izango dute bergarrek.

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Lehenengo maila
Real-Gijongo Sporting
Zapatua. 18:30. Anoeta.

Kadeteen Euskal Liga
Gernika-Aretxabaleta
Zapatua. 12:30. Urbietta.

Preferente maila
Aloña Mendi-Real Union
Domeka. 16:30. Azkoagainen.
Hernani-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Zubiye.
Mondra-Touring
Zapatua. 17:00. Mojategi.

Lehen erregionala
Bergara-Lazkao
Zapatua. 16:30. Agorrosin.
Antzuola-Urola
Zapatua. 16:30. Estala.

Bigarren erregionala
Mondra-Anaitasuna
Domeka. 12:00. Mojategi.
Ikasberri-BTLS
Zapatua. 17:00. Garendipe.
Aretxabaleta-Eibartarrak
Domeka. 16:30. Ibarra.
Elgeta-Zesto
Domeka. 19:00. Unbe.

Ohorezko mailako gazteak.

Beasain-Mondra
Zapatua. 17:00. Igartza.
Elgoibar-Bergara
Zapatua. 16:00. Mintxeta.
Aretxabaleta-Zumaia
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Oriko-Aloña Mendi
Zapatua. 15:00. Mendibeltz.

Lehenengo mailako gazteak
Ilintxa-Bergara B
Zapatua. 16:30. Legazpi.

Aretx. B Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Kadeteen ohorezko maila
Aloña Mendi-Real
Zapatua. 11:00. Ibarra.
Bergara-Elgoibar
Domeka. 12:00. Ipintza.

Kadeteak
Bergara B-Ilintxa
Domeka. 10:15. Ipintza.
Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 11:30. Almen.
Arrasate-Soraluze
Zapatua. 11:00. Mojategi.

Kadete txiki
Mundarro-Arrasate
Domeka. 11:00. Astigarraga.

Ohorezko mailako infantilak.
Ondarroako Aur.-Arrasate
Domeka. 11:30. Zaldupe.
Beasain-Bergara
Zapatua. 12:00. Igartza.
Aretx. Arizmendi-Eibar
Domeka. 09:45. Ibarra.

Infantil txikien maila
Eibartarrak-Aloña Mendi
Domeka. 15:00. Unbe.
Arrasate-Lagun Onak
Domeka. 10:30. Mojategi.
Ordizia-Aretxab. B Arizmen.
Zapatua. 10:00. Altamira.

Emakumezkoen Liga

Ordizia-Arizmendi
Zapatua. 15:30. Altamira.
Lazkao-Bergara
Zapatua. 17:00. Arizti Handi.
Mutriku-Mondra
Domeka. 16:30. San Miguel.
Anaitasuna-BTLS
Domeka. 11:00. Txerloia.

Arizmendi-Urola
Zapatua. 15:30. Almen.

Emakumezkoak F8 kadeteak
Bergara-Ilintxa
Domeka. 17:30. Ipintza.

Emakumezkoak F11 kadeteak
Aloña Mendi-Arizmendi
Domeka. 10:30. Ibarra.

Alebinak
Lagun Onak-Aloña Mendi
Domeka. 10:50. Unbe.
Arrasate-Aretxabaleta
Domeka. 10:50. Unbe.
Elgoibar-Bergara
Domeka. 09:45. Unbe.

SASKIBALOA

Lehenengo Maila
Tabirako Baque-MU
Zapatua. 19:00. Durango.

Seniorrak gizonzkoak
Candy BKE-Easo At.
Zapatua. 16:00. Labegaraite.
Oiarso-Mondragon Uniberts.
Domeka. 11:45. Erreteriera.

Junior gizonzkoak
Mondragon Unib.-Krafft
Zapatua. 10:00. Musakola.
Goierri Verkol-Aloña Mendi
Domeka. 12:15. Urretxu.
Bergara-Zarautz
Zapatua. 16:00. Bergara

Junior emakumezkoak
Internacional-Eskoriatza
Zapatua. 10:45. Donostia.
Bergara-Allerri
Zapatua. 18:00. Bergara.

Kadete gizonzkoak
Mondragon Unib.-Sein Mut.
Zapatua. 16:00. Iturripe.

Kadete emakumezkoak
Eskoriatza-Carnicas San Ma.
Zapatua. 16:00. Intxaurtxue.

Infantilak gizonzkoak
Arrasate Inst.-Mutriku
Zapatua. 12:00. Arrasate.

Arizmendi-Antoniano
Zapatua. 10:30. Musakola.
Aloña Mendi-Salleko
Zapatua. 11:00. Zubikoa.
Bergara-La Salle Zarautz
Zapatua. 10:00. Bergara.
LEK A-Zarautz
Zapatua. 10:30. Arrasate.

Infantilak emakumezkoak
LEK D-Zarautz
Zapatua. 12:00. Musakola.
Bergara-LEK B
Zapatua. 12:00. Bergara.
LEK A-Goierri
Zapatua. 10:30. Musakola.
Loyola Easo-LEK E
Zapatua. 09:15. Donostia.

ESKUBALOA

Euskadiko Txapelketa

Urduliz-Ford Mugarri Arras.
Zapatua. 17:00. Urduliz.
Urdaneta-Bergara
Domeka. 12:30. Loiua.

Lehenengo territoriala
Arrasate-Amenabar
Domeka. 10:00. Iturripe.

Bigarren territoriala
Aloña Mendi-Usurbil
Domeka. 11:45. Zubikoa.
Donibane-Bergara
Domeka. 12:00. Pasaia.

Gazteak gizonzkoak
Urola-Arrasate
Zapatua. 16:15. Zumarraga.
Hondarribia-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Hondartza.

Gazteak emakumezkoak
Verkol Aloña-Ereintza
Domeka. 10:00. Zubikoa.
Citroen C. Arrasate-Grosek
Domeka. 11:30. Iturripe.

Kadeteak gizonzkoak
Leizaran-Berezo Aloña M.
Zapatua. 16:00. Andoain.
Euskalduna Tab.-Bergara
Zapatua. 16:30. Zarautz.

Kadeteak emakumezkoak
Verkol Aloña-Ereintza
Domeka. 11:45. Zubikoa.
EHarialde A-Bergara
Zapatua. 17:00. Gasteiz.

ARETO FUTBOLA

Euskadiko Txapelketa
Lagun Onak-Eskoriatza
Egubakoi. 17:30. Galdakao.

Lehenengo maila
Gorka Pint.-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Usurbil.

Hirugarren maila
Naturista-UDA Izotz
Zapatua. 16:00. Oiarzun.

Gazteak
Aloña Mendi-Elgoibar
Zapatua. 12:30. Zubikoa.

XAKEA

Arrasate Hiria Txapelketa
Bosgarren jardunaldia.
Egubakoi. 19:00. Altamiran.

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa
Gaur, 19:15ean hasita, Uarkapen (Arrasate): Arrasateko2-Illunpe2 Arrasateko-Añorga Arrasateko-Behar Zana. Gaur, 20:00etan hasita, Udaltalekuan (Bergara) Bergara-Txapagaia Bergara-Aurrera Saiaz2 Bergara-Illunpe. Gaur, 20:00etan hasita, Eskoriatzako pilotalekuan: Eskoriatza-Hernani. Gaur, 20:30ean hasita, Iturrigorri pilotalekuan (Aretxabaleta): Aretxabaleta-Erriope Aretxabaleta-Eibar.

MENDIKO BIZIKLETA

Eskoriatzako irteera
Domeka. 09:30. Eskoriatza.



Mendiko bizikleta irteera, domekan, Eskoriatzan

Areka BTT taldekoek 09:30ean egin dute domekarako hitzordua; bi ibilbide jarri dituzte, motzak 22 kilometro ditu, eta luzeak 40.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **OSKAR ARANA**
Itzultzaileak Woody Allenen 'Mere Anarchy' liburua itzuli du > 45



> **TXAPA IRRATIA**
Bergarako irratia internetez ere entzun daiteke > 51

> **LIERNI ALTUNA**

Gaztetatik dabil aramaioarra bertsolaritzan; bertsoak botatzen hasi eta gai jartzailea da orain, eta Aramaion eta Arrasaten proposatu ditu gaiak > 50



Ikuskizunak hastear

AITZIBER ARANBURUZABALA > BERGARA

Heldu da ikasitakoa erakusteko unea! Aste bukarran hasiko dira Debagoiensean Kantari karaoke ikuskizuneko saioak. Oñatin eta Eskoriatzan, urrian; Arrasaten eta Bergaran, berriaz, azaroan.

Debagoineko 570 haur eta gaztek parte hartuko dute Goienak antolatutako ekimenean; 1995 eta 1999. urte bitartean jaiotakoak. Ikuskizunak doan izango dira eta interesa duen guztientzako aretoetako ate-

ak zabalik izango dira. Herri bakoitzeko saioetan, herrikoak izango dira agertokian. GOITBko kamerak ere areto guztietan izango dira saio guztiak grabatzen; azaroak 27tik aurrera eskainiko dituzte.

Ikuskizunen egiturari dagokionez, egun bakoitzean hainbat saio izango dira; hori horrela, taldeek banan-banan egokitutako kantua abestuko dute lehengo eta ondoren, guztiek elkarrekin *Kantari* abestiarekin borobilduko dute saioa. > 44

Ikuskizuna hastear

Lau dira Debagoiengan Kantari ekimenak dituen helburuak: ibarreko haur eta gaztetxoendako ekintzak sustatzea, euskal kultura bultzatzea, euskal kulturaren gurasoen inplikazioa izatea eta haur eta gazteek tokiko hedabideetan lekua izatea.

EKIMENAREN PROZESUA

Ekain amaieran jo zuten Debagoiengan Kantari ekimeneko antolatzaileek debagoieneko eskoletara, karaoke ikuskizunaren berri ematera. Uztail amaieran Debagoiengan Kantariko kantuak batzen dituen CDa eskeratu zuten parte-hartzaileek. Abuztuko oporrak kantuak ikasteko aukera izanda, irail hasieran hasi ziren kantariak Maite Albes eta Arantzazu Ugarte dantza irakasleekin koreografia entseguen. Urriaren 15ean bukatu zituzten herriz herriko dantza entseguak. Bihar, zapatua, ikuskizunekin hasiko dira Oñatin eta azkena Bergaran izango da azaroaren 25ean.

HARRERA ONA

Antolatzaileak pozik daude ekimenak izan duen harrerarekin, eta parte-hartzaile eta gurasoak asko inplikatu direla adierazi dute: "Ikaragarria da parte-hartzaileen kopurua, baina ez genuen inor kanpoan utzi nahi izan. Kontuan hartzekoa da ez dela lehiaketa, askotariko ikusleentzako sortu dugun ikuskizuna baizik", azaldu Iker Barandiaran ekimeneko koordinatzaileak.

Proiektuak aurrera eramateko lantalde zabala dago atzean, beste batzuen artean: Amaia Txintxurreta, ikuskizunetako aurkezlea izango dena eta abeslariak ikasteko erabili duten CDko kantu guztiak abestu dituen; Maite Albes eta Arantzazu Ugarte, dantza irakasleak; eta



KANTARI Ikuskizuna prestatzeko entseguak.

IKER BARANDIARAN

Txus Arriaran eta Domentx Uzin musikariak, hau da, Kantari saioaren kantuaren egileak. "Horiez gain, eskerrak eman nahi dizkiegu bailarako hainbat eskola, elkarte eta udalei entsegu lokalak uzteagatik, eta gurasoei", azaldu du Barandiaranek.

EUSKAL KANTUAK

34 euskal kantuk osatzen dute Kantariren errepertorioa. "Gustukoa dut aukeraketa, askotariko estiloak daudelako", esan du Albesek. "Beraientzako ezezagunak ziren kantu batzuk ikasi behar izana ere positiboa dela uste dut", gaineratu du dantza irakasleak. Eta hurrek ere abestiak gustatu zaizkiela esan dute.

Ikuskizunak

OÑATI

Non: Gaztelekuan
Noiz: Urriaren 20an, 17:00etan
Urriaren 21ean, 16:30ean

ESKORIATZA

Non: Huheziko aretoan
Noiz: Urriaren 27an, 17:00etan
Urriaren 28an, 17:00etan

ARRASATE

Non: Amaia antzokian
Noiz: Azaroaren 10ean, 16:30ean
Azaroaren 11n, 17:00etan

BERGARA

Non: Jam aretoan
Noiz: Azaroaren 18an, 10:30ean
eta 17:00etan
Azaroaren 25ean, 17:00etan

EGUN HANDIAREN ZAIN

Bihartik aurrera, ikasi eta presutakoak erakusteko aukera izango da. Tranparik ez da izango, zuzenean izango da eta guztia.

Guadalupe Teixidok prest du guztia biharko: "Azken entseguak egingo ditugu oraindik. Nire amak egin dizkigu arropak eta Leirek eramango ditu aurpegirako margoak". Teixidoren amari, Carolinari, lan egitea egokitu zaion arren, oso pozik dago: "Alabak eta lagunak erakutsi duten gogoia ikusita, oso pozik jardun dut haiei laguntzen. Gurasoei ere oso ideia ona iruditu zaigu Kantari antolatzea.

Merezi dutelako, bada, txalo bero bat artista guztientzako!

Maite Albes >
Dantza irakaslea

"Entsegu-egun asko izan diren arren, gustura jardun dut"

GOIENKARIA > BERGARA

Ogibidez ingeniaria da, baina txikitatik du dantza zaletasuna arrasatearrak. Karaoke ikuskizuneko koreografia irakaslea izan da Arantzazu Ugarterekin batera.

Nola moldatu zara entseguetan?

Oso gustura! Entsegu dinamikoak izan dira. Talde bakoitzarekin 45 minutuko saioak egin ditugu.

Zelako dantzak prestatu dituzue?

Dantza errazak eta politak dira, jolasean ikasitakoak. Parte hartzaileen eskaerak entzuten saiatu gara.

Serio hartu dituzte entseguak?

Bai, batzuk beldurtuta edo lotsatuta etortzen ziren, baina abestiak ondo ikasita ekartzen zituzten.

Ikuskizun egunetarako nola sumatu dituzu?

Urduri, baina era berean sekulako ilusioarekin. Neska eta mutilek urduritasuna adierazteko modu ezberdinek dituztela konturatu naiz.



GOIENKARIA

KANTARIKO PARTE HARTZAILEAK



Ainhize Barrainkua
10 urte-Aretxabaleta

"Kantari antolatzea oso ideia ona izan zela iruditu zitzaigun"

Kantariren berri izan eta segituan eman zuen izena. Lagunak konbentzitzeko ere ez zuen ahalegin handirik egin behar izan: "Nahiz eta gura izan, sekula ez dugu horrelako ikuskizun baten parte hartzeko aukerarik izan". Urduri dagoen arren, *egun handia* heldu bitartean dituzten entseguen lasaituko dela aitortu du.



Ander Zubia
11 urte-Eskoriatza

"Kantuaren zatiren bat ahaztuko zaidan beldur pixka bat dut"

Kantuarekin zailtasunik ez du izan, aurrez ezagutzen zuelako egokitu zaion *Sarri sarri* abestia. Hala ere, urduri dago, zatiren bat ahaztuko zaion beldurrez. Dantza entseguetan ederto pasatu zutela esan du, baina dantza pauso guztiak buruan izatea zaila dela aitortu du. Oraindik ere entseuetako asmoa dutela gaineratu du.



Guadalupe Teixido
8 urte-Oñati

"Desiratzen nago ahoko mikrofonoa probatzeko"


Nagusitan abeslari izatea du amets; horregatik, bada, pozik dago Kantarin parte hartzeagatik: "Artista handiek bezala, ahoko mikrofonoarekin kantatzeko desiratzen nago". Saioko diskoari makina bat buelta eman diote etxeko hamaika entseguetan. Aurpegirako margoak eta jantzi dotoreak ere prest dituzte.



Ainhoa Mardaras
12 urte-Bergara

"Koreografia entseguetan oso ondo pasatu dugu"

Egokitu zaien abestia ikasteko ez dute lan handirik izan Mardaras eta bere taldekideek: "Aurrez ikasita genuen, aurtengo kilometroak jaiko abestia da-eta". Gustura ibili dira, berriz, koreografia entseguetan: "Bi egunetan izan ginen eta oso ondo pasatu genuen irakaslearekin. Dantza erraza eta polita da gurea".



Itziar Elkorobarrutia
7 urte-Arrasate

"Eskolako jolas-orduan entseuetan dut lagunekin"

Ikuskizunaren egunerako lasai dagoela esan du Elkorobarrutiak; hala ere, lagunekin entseuetan jarraitzen du. Eskolako patioa dute entsegu toki eta han ibiltzen dira Latzen taldearen *Latzana* doinuekin dantzan eta kantuan. Ez zuten aurrez kantua ezagutzen; hala ere, erraz ikasi dutela gaineratu du.

LITERATURA > 'ANARKIA HUTSA' DA ITZULPENAREN IZENBURUA

Oskar Aranak Woody Allenen 'Mere anarchy' liburua itzuli du

Istorio ugari bildu ditu Allenek liburuan; guztira hemezortzi

Meetok argitaletxeak kaleratu du 'Anarkia hutsa', Oskar Arana aramaioarrak euskaratuta

MIREN ARREGI > OÑATI

Zinema eta hain maite duen klarineta alde batera utzi eta *Mere anarchy* liburua idatzi du Woody Allen zuzendari polifazetikoak. Istorio ugari bildu ditu Allenek liburuan; guztira hemezortzi. Horietako zortzi inoiz argitaratu gabeak eta gainontzekoak, berriz, *New Yorker* aldizkarian agertuak.

Mettok argitaletxeak kalera berri du *Anarkia hutsa* liburua, Oskar Arana itzultzaile aramaioarrak euskaratuta. Mettok argitaletxeak egin zion Woody Allenen liburua itzultzeko proposamena, eta, Aranaren esanetan, proposamen tentagarria izanik ezin izan zuen ezetz esan: "Woody Allen euskaratzeak eta gainera gaztelaniazkoarekin batera, plazer handia ematen dit", dio Oskar Aranak. Ez du denbora luzea izan itzulpena egiteko, *udako lana* izan da beretzat, baina merezi izan du: "Niretzat



OSKAR ARANA Itzultzailea, argitaratu berri den liburua eskuetan duela.

GOIENKARIA

erronka handia izan da, itzultzeko epe laburra nuen eta. Ingelesaren mugak ere gorri-gorrian ikusi ditut autore horrekin, oso erreferentzia lokalak eta hizkuntza bihurria erabiltzen ditu, eta, hori dela eta, dokumentazio lan handia egin behar izan dut ulertzen ez nituen gauzak ulertzeko". Allenek erabiltzen dituen ironia eta ziriak harrapatzea ez dela erraza dio Aranak, hizkuntza aldrebesa erabiltzen duela eta bihurria dela, filmetan bezain

bihurria. Liburuan zehar, oinoharren erabilpena egin du Aranak, irakurketa errazteko eta ulergarriago egiteko helburuarekin. New York hiriko judu jatorriko hitz asko erabiltzen direla eta, kontakizunak ulergarri izan daitezten erabaki du Aranak oinoharrek erabiltzea.

Meetok argitaletxearen gainean ere egin du berba Oskar Aranak. Argitaletxe txiki bat dela eta, beharbada, horregatik egiten dituela tankera horretako itzul-

penak ere esan du: "Irakurle euskaldunei eskaintza hori egitea txalogarria eta mesedegarria da, hizkuntzaren normalizaziorako, baldin eta nahi badugu euskarak munduko berri ematea".

'ANARKIA HUTSA'

Allenek egungo gizarteaz duen irudia erakusten du liburuak. Umorea, ironia eta adimena nahasiz, eguneroko bizimoduan gertatzen diren gauzak kontatzen ditu. "Bizimodu modernoaren burugabekeria erakusten oso abila da Woody Allen". *Anarkia hutsa* zibilizazioari eginiko kritika dela esan daiteke. Baina jorratzen dituen gaien zorrotzasunak ez die barreari eta ironiari tokirik kentzen, alderantziz. Barre asko egiteko liburua dela dio Aranak: "Allenek barre eragiteko duen erraztasunak harritu nau gehien; eta berak duen hizkuntza erabiltzeko estilo bereziak ere bai".

Nahi duenak eskuragarri dagoeneko liburua liburu dendetan. Zeresana emango du, ziur.

KABARETA

Haurrei eskainitako ikuskizuna etzi Oñatin

Etzi, hilaren 21ean, arratsaldeko bostetan Santa Ana aretoan izango da

MIREN ARREGI > OÑATI

Adiskidetasunaren eta gizarte-ko balio etikoen gaineko ikuskizuna da, modu dibertigarri eta berezian aurkeztuta. *Haur kabareta* lehen aldiz iritsiko da Oñatiko Santa Ana aretora, Agerre Teatro eta Mi Cabeza Que Habla antzerki taldeen eskutik.

Haurrentzako modu alai eta bizian aurkezten duten ikuskizunak bi neskatila ditu protagonista: bata liraina, ederra eta ameslaria da; eta bestea, berriz, handiagoa eta mutil itxurakoa. Desberdinak badira ere, lagun oso onak eta banaezinak dira. Azken batean, bidali nahi den mezua honako hau da: edertasunak ez duela izaera edo forma jakin edo zehatzik, eta denok daukagula nor bere xarma. Haurrei mezu edo balio horiek duten garrantzia transmititu nahi zaie ikuskizunarekin, eta, hala, Agerre Teatro eta Mi Cabeza Que Habla konpainiek *Haur kabareta* deituriko haurrentzako musika ikuskizuna antolatu dute.

TRANSMISIO BIDEAK

Haurrengan mezuak efektua izan dezan bi antzerki talde horiek erabiliko dituzten bideak nahiko bereziak dira; ez dira ohikoak, behintzat. Izan ere, batez ere musikaren bidez transmititzen dituzte mezuak ikuskizunean, eta horretarako, ikusleen artean aukeraturako neska-mutikoekin orkestra pepinofonikoa eratu dute; horrek esan nahi du frutaz eta barazkiz egindako musika tresnak joko dituztela. Ines Martínez de Iturrarte, Ainhoa Pineda eta Santi Ortega dira aktoreak.

IKUSKIZUNAK > 'EL ROMANCERO GITANO'

Antzerti Maitaleak taldeak Garcia Lorcaren poemak ekarriko ditu Elgetako Espaloira

Musika, hitza eta dantza uztartuz, Garcia Lorcaren 'El romancero gitano' bildumako poemak gaur, 22:30ean

M.A. > OÑATI

Eibartarrak dira Antzerti Maitaleak taldeko kideak. Gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloia Antzokian, izango dira Federico Garcia Lorca-ren *El romancero gitano* poesia bildumako lanak antzertzen.

Modu kuriosoan aurkeztuko dute, ikuskizuna; izan ere, musika, dantza eta hitza uztartu dute. Hiru modalitateak bat eginik, bada, saio interesgarria sortu dute.



IKUSKIZUNA *El romancero gitano*-ko une batean.

GOIENKARIA

Taulagainean hainbat izago dira: Maite Lorenzok, Eduardo Falcesek eta Ernesto Barrutiak errezitatuko dute poesia. Erik Delzak, berriz, gitarrarekin musi-

ka ipiniko du Amaia Bolunburuk dantza egingo duen bitartean. 1928an argitaratutako lana da *El romancero gitano* poesia bilduma, gaur Elgetan eskainiko dutena.

Mondeo gama: kontsumoa 5,8-9,3 l/100km. CO2 emisioak 199-326 g/km.

Ford Mondeo berria | Feel the difference

Mugarri Autoak
Araba Etorbidea, z/g.
ARRASATE-MONDRAGÓN

Bat nahi dut

INMOBILIARIA
IBARGARAI 3 • BERGARA
 Tel. / Faxa: 943 76 97 97
 www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zubiaurre 67 m². Berritua.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Martoko 92 m². Prezio ona.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berritua.
- Bidekuruzeta 60 m². Berritua.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Iraburu 84 m². Terrazarekin.
- Zubietta 60 m². Prezio ona.
- Masterreka 92 m². Prezio ona.
- Zubiaurre 70 m². Berritua.
- Zabalotegi 70 m². Prezio oso ona.

Antzuola:

- Biztinzuri 76 m². Prezio ona.
- Aiherra 123 m². Duplexa.

Elgeta:

- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Igogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA
GARAIA
 INMOBILIARIA
 Telefono Aranzadi 2
 T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Simon Arrieta, 88 m², erdialdean.
- San Pedro, 72m², ondo
- Masterreka, 90m², ondo
- Ibargarai, 80m², ondo
- Artekale, 70m², oso ondo
- Ortuibar, 100m², ia berria
- Ibarra, 130m², aukera ona
- Zubietta, 70m², ondo
- Matxiategi, 80m², ondo
- Bidekuruzeta, 200m²
- Iparragirre, 195m²
- Aranerrika, 87m², ondo
- Bidekuruzeta, duplex, 105 m² berritua
- Masterrekan etxebizitzak, 3 logelakoak eta duplexak.

SORALUZE

- Bategiela, 83m², berria

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU: GAINERAKOAK 18 EURO (+BE-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BE-A).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

lekuan batu, neure etxean lissitu eta entregatu egiten dut. Deitu ezazue telefono honetara: 656 75 04 43.

5/ IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. DBHko 3. mailako eskolak hartuko nituzke etxean. 943 76 16 42.

Bergara DBHko 1. mailako klase partikularrik hartuko nituzke etxean. Deitu 21:00etatik aurrera. Deitu ezazue telefono honetara: 943 76 03 75.

Debagoiena. LHko laugarren mailan dabilen neska batek eskola partikularrik jasoko lituzke, etxean. 943 77 15 58 edo 610 69 78 15.

502. EMAN

Aretxabaletan ingelesko klaseak ematen dira. Deitu ezazue telefono honetara: 943 79 03 83.

Arrasate. LHko eta DBHko eskola partikularrik emateko prest dagoen neska arduratsua naiz, gaztelaniaz edo euskaraz. Ingelesko eskolak ere ematen ditut. 679 23 25 64.

Bergara. Zientzietako gaietan arazoak? DBHko 3. mailatik gorako maila guztiak (unibertsitatekoak ere). 615 75 82 54.

Debagoiena. Ingelesko eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrik ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH, matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Audi A4 TDI. Bost urtekoa eta oso egoera onean. 12.000 euro. Aitziber. 605 72 41 51.

Beta 450 enduroko motorra salgai. Egoera onean. Telefonoa: 615 00 84 49.

Citroen C4 Coupe beltza salgai. 138 ZP. Diesela. 55.000 km. Estra guztiak. Oso egoera onean. 627 93 55 74.

Hiunday Tucson. 112 zaldi. Diesela. 2 urte eta 24.000 kilometro. Oso egoera onean. Telefonoa: 669 54 89 16.

Honda CB 600F motorra salgai. 25.000 km. 4.200 euro. Telefonoa: 699 37 15 11.

Honda XR 400R mendiko motorra salgai. Merkea eta fidagarria, eta mantentze lan gutxiak. 677 98 42 94.

Jeep Cherokee. 2.1 turbo diesela salgai. Oso egoera onean. 3.500 euro. 655 45 07 25.

KTM Enduro 450 EXC. 2004koa. Mendiko motorra. 646 05 74 78.

Renault Traffic furgoneta salgai. 2005koa. 70.000 kilometro. Oso egoera onean. Telefonoa: 647 81 92 05.

Seat Alhambra monobolumena salgai. 130 ZP. Zazpi lagunentzako. Egoera onean. 50.000 km eta 2004koa. 20.000 euro. 653 71 04 56.

Suzuki Katana R 503 scooter motoa salgai. 1999koa. Gutxi erabilia. Bi kasko ere bai. Telefonoa: 943 76 36 63.

Volkswagen Sharan. 1.800 cc. 1999koa. Oso egoera onean. 6.500 euro. 645 73 97 69.

Yamaha SR salgai. 250 cc. Beltza. 900 euro. 645 73 97 69.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Yorkshire Terrier arrazako hiru txakurkume saltzen ditut. Eri-

ka. 697 20 67 85.

703. EMAN

Yorkshire arrazako txakurra opari ematen dut. Arra da, gris kolorekoa, bi urte ditu eta maitakorra da. Deitu ezazue telefono honetara: 616 45 00 20.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Arrasate. Gela baterako altzariak saltzen ditut. Lizar egurrezko zubi-altzari bat eta 1,20 metroko ohea. 900 euro. Eskarne. Deitu ezazue telefono honetara: 680 98 60 15.

Automobilerako umearendako eserlekua salgai. Deitu ezazue telefono honetara: 943 79 41 31.

Baxu anplifikagailua salgai. Trace Elliot (Combo) markakoa. 300 v. 700 euro. Deitu ezazue telefono honetara: 639 27 25 56.

Egurra saltzen da. Bi kamioikada egur sutarako gertu. Telefonoa: 945 44 51 11.

Egurrezko bi mahai (90x72 cm) eta bi mahai obalatu (1,20x59 cm) salgai. 607 46 83 66.

Errepideko bizikleta salgai. Zeus etxekoa. 56 neurrikoa. Shimano 105. Egoera onean dago. Sigma BC 800 abiadura neurgailua oparitzen dut. 400 euro. 667 08 93 09.

Karabana saltzen da. Egoera onean dago. 610 81 25 21.

Kronometroa. Kronometro berria salgai. 125 eurotan. Nereagatik galdetu. 943 79 68 18.

Ordenagailuarendako mahaiak, hiru plazako sofa eta 1,05 metroko oherako koltxoia salgai. Egoera onean. Merke. 625 70 69 98.

Soldatzeko makina salgai. 600 euro. 655 45 07 25.

Teleskopioa salgai. Astrolon. Potentzia: 402. 943 79 41 31.

Tronpeta salgai. Berri-berria. 943 78 70 52.

Ume-kotxea salgai, bikiendako. Jane Twin Two markakoa + 2 Matrix Pro. Sei hilabete erabilia eta egoera oso onean. 645 00 99 35 edo 636 51 54 79.

Uso postuak. Hiru uso postu salgai Urizaharran (Peñacerrada). 630 72 33 93.

802. EROSI

Hezetasuna kentzerako makina erosiko nuke, bigarren eskukoa. 628 77 55 86.

804. HARTU

Debagoiena-Zumarraga. Taberna baten bila nabil errentan hartzeko. 661 17 48 07.

806. GALDU

Arrasate. Urre zuriko eskumuturrekoak galdutuan abuztuan. Seber Altuben edo Herriko Plazan baldin nuen. Balio sentimental handia du. Deitu ezazue telefono honetara: 943 79 13 68.

807. AURKITU

Aretxabaletan mendiko bizikleta bat aurkitu dugu. Helduena da. Deitu ezazue telefono honetara: 943 79 30 02.

Eskumuturreko bat aurkitu nuen Bergaran geltoki ondoan. 695 73 45 76.

Olympus. Kilometroen egunean Olympus markako kamera digitala aurkitu nuen autobus geltokian. Maritxu Kajoi eguneko argazkiak ditu barruan. Nerea. 699 09 47 76.

808. BESTELAKOAK

Gasteiz-Bergara ibilbidea aste-egunetan, egunero, autobiez egiten duen norbaitekin jarri nahi nuke harremanetan, bidaia-gastuak konpartitzeko asmoz. Deitu ezazue telefono honetara: 645 70 03 55.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Ibarre auzoan etxebizitza salgai. 82 metro koadro. 628 93 31 87.

Aretxabaleta. Erdigunean teilatupeko etxebizitza salgai. 72 metro koadro. Jantzia. 16 metro koadroko garajea. Deitu ezazue telefono honetara: 659 64 67 38.

Arrasate. Etxebizitza salgai. Atalora 2. azken solairua, ikuspegi zoragarria. 3 logela, 2 komun, bizitzera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

Arrasate. 79m². Sukaldea, komuna, 3 logela eta egongela. Eguzkitsua. 39.500.000 pta. Deitu ezazue telefono honetara: 688 62 68 88.

Arrasate. Etxebizitza salgai Grupo San Juanen. 60 m². Igogailua, ganbara eta sotoa. Azkeneko solairua. Deitu ezazue telefono honetara: 619 25 46 69.

Arrasate. Etxebizitza salgai erdialdean. Eraikin berria. 94,50 m². Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Igogailuarekin. 686 24 97 48.

Arrasate. Etxebizitza salgai. San Andresen. 57 metro koadro. Guztiz berritua. Bi logela, egongela, bainugela eta sukaldea. Kanpoaldera begira. Igogailua eta sotoarekin. 620 15 12 12.

Arrasate. Gorostiza auzoan (Malvinak). 77 m². Guztiz berritua. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea, patio ingelesa,

ELGETA

Zerbitzaria behar da taberna baten lan egiteko.
666 39 12 24

sotoa eta garajea. Deitu ezazue telefono honetara: 607 72 75 63.

Arrasate. Zigarrolan etxea salgai. Beheko solairua, 48 m². Berritua. 200.000 euro. 665 73 25 74.

Bergara. Elorregin 90 metro koadroko etxea, guztiz berritua. 100 metro koadroko ganbara dauka. Duplex bihurtzeko aukera. 218.000 euro, negoziagarriak. Deitu ezazue telefono honetara: 666 70 59 90.

Bergara. Erdialdean etxebizitza salgai. Eguzkitsua. 90 metro koadro. Bizitzera sartzeko gertu. la guztiz jantzia. Telefonoa: 685 72 40 30.

Bergara. Etxebizitza saltzen da Zubiaurren, guztiz berritua, ganbara eta berogailuarekin. 619 41 39 72.

Bergara. Ibarra. 50 metro koadro. Bi logela. Berritua eta berogailuarekin. Deitu ezazue telefono honetara: 635 71 04 55.

Bergara. Martokoz guztiz berritua dagoen etxebizitza salgai. Estreinatzeke. Bi gela, sala, sukalde handia guztiz jantzia, gasa, berogailua eta PVCzko

BERGARA

Taberna errentan ematen da.
943 76 54 75

leihoak. Deitu ezazue telefono honetara: 637 55 14 04.

Elgetan etxebizitza salgai, bigarren solairuan, igogailua, 3 gela, ganbara, aukera onean. 138.232 euro / 23.000 pezeta. Telefonoa: 645 71 76 25.

Eskoriatzan etxebizitza salgai, 80 metro koadro garajearekin. 686 92 55 71.

Getarian itsasoari begira 58 metro koadroko etxebizitza salgai. Estreinatua gabea. Telefonoa: 699 18 75 68.

Oñati. 120 m²-ko duplexa salgai. Herri erdian. Bizitzera sartzeko moduan. Argitsua eta material ederrekin egina. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta estudioa. 420.000 euro. 676 39 36 93.

Oñati. San Lorentzon, eguzkitsua. Hiru gela, bi bainugela, egongela, sukaldea eta ganbara. 52.000.000 pezeta / 312.000 euro. Garaje itxia aukeran (20 m²). Telefonoa: 656 74 80 47 edo 656 74 80 47.

Soraluze. Erdialdean dago. Hiru logela ditu, eguzkitsua da eta berritua dago. 28 milioi peze-

LORAMENDI KIROLAK

Neska bat behar da denda lan egiteko.
Euskaraz hitz egitea ezinbestekoa.
Interesatuak etorri San Andreseko dendara datuak uztera.

ta. Deitu ezazue telefono honetara: 687 08 33 00.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Urriben auzoan, lau logelako duplex batean logela bat errentan ematen da. 150 euro hilero. Berogailua, argia eta komunitatea barne. Telefonoa: 660 04 06 35.

Arrasate. Bi logelako etxebizitza ematen da errentan, erdialdean. Berogailua eta igogailua. Deitu ezazue telefono honetara: 618 20 31 85.

Arrasate. Etxebizitza alokatzen dut Erguin auzoan, ikasleendako. 943 79 71 74.

Bergara. Etxebizitza ematen dut errentan, Bolun. 20:00etatik 22:00etara deitu. Telefonoa: 943 76 07 89.

Eskoriatza. Etxebizitza alokagai daukat. Hiru logela ditu eta berogailua dauka. Ikasleendako aukera aproposa. 18:00etatik aurrera deitu. 617 80 26 19.

Vera (Almería). Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzia. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

Villanua (Huesca). Apartamentua errentan ematen da. Deitu 20:00ak eta 22:00ak bitartean. 615 78 78 41.

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan. 650 62 12 94 edo 943 53 30 61.

Bergaran etxe konpartitua errentan hartuko nuke. 943 78 70 16.

Oñati. Bikote batek etxea hartuko luke errentan. Presazkoa. Deitu ezazue telefono honetara: 649 42 26 30.

Oñati etxebizitza bila nabil errentan hartzeko. Neska eskalduna naiz, seme batekin. 666 74 14 33.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Gela bat alokatu nahi du neska batek. Deitu ezazue telefono honetara: 629 40 33 68.

Bergara. Etxebizitza osatzeko bi pertsona behar dira. Andoni. Deitu ezazue telefono honetara: 605 76 98 97.

Bergaran edo Arrasaten. Deitu ezazue telefono honetara: 943 78 70 16.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Otalora kalean garajea salgai edo errentan. Telefonoa: 656 75 52 28.

Bergara. Trastelekuia salgai Zurraderon, motorra gordetzeko egokia. Neurriak dira 5,80x1,80. Prezioa: 8.000 euro. Deitu 18:00etatik aurrera. 678 43 31 07.

202. EROSI

Oñati. Apaolaza kale inguruan garaje edo trastelekuia erosiko genuke. 675 71 69 35 edo 605 76 63 87.

203. ERRENTAN EMAN

Antzuola. Bustinzuri kalean. Deitu ezazue telefono honetara: 638 89 78 76.

Arrasate. Garajea errentan ematen dut Roneon. 615 70 22 68.

Arrasate. Roneoko etxeetan garaje bat errentan ematen da. Deitu ezazue telefono honetara: 943 79 16 64.

205. BESTELAKOAK

Garajea konpartitu nahiko nuke. Motorra edo quad bat gordetzeko. 680 35 25 22.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Aretxabaleta. Lokala salgai Gorbea kalean. 108 m². Telefonoa: 671 42 54 32.

Arrasate. 72 m² dituen lokal bat errentan ematen da Anboto kalean. Ura, argia eta komuna ditu. Deitu ezazue telefono honetara: 607 44 35 46.

303. ERRENTAN EMAN

Bergara. Pabiloi industrialak alokatzen da autokarabanak edo karabanak sartzeko. Telefonoa: 635 70 38 16.

304. ERRENTAN HARTU

Debagoiena-Zumarraga Taberna baten bila nabil errentan hartzeko. 661 17 48 07.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Emakume behar da etxeko lanak egiteko. Esperientziarekin. 669 53 97 03.

Bergara. Pertsona bat behar da bi ume zaintzeko 16:30etik 20:30era. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. Deitu ezazue telefono honetara: 628 48 52 34.

Bergara. Pertsona bat behar da gaztelaniazko eskolak emateko. 629 33 26 34.

ARETXABALETA

Sukaldaria behar da goizez edo arratsaldez lan egiteko.
675 70 82 36



Iban Arregi eta **Eli Ifurritegi** oñatiarrak bihar, urriaren 20an, ezkonduko dira Bidaurretako monasterioan. Bazkaria Gatzagako Gure Ametsa jatetxean egingo dute eta bidaian Venezuelara joango dira. Zorionak, etxekoen partetik, eta ondo ibili, bikote!



Iñigo Zabalo eta **Izaskun del Fresno** arrasatearrak aurreko zapatuan ezkondu ziren, Itziarren; gero, Salegi jatetxean egin zuten ospakizuna. Orain, Argentina aldean dago bikotea. Zorionak eta ondo-ondo bizi, lagunuen eta familiakoen partetik.



Rafael Fernandez Aresti eta **Amaia Gorroñoitia Gonzalez** arrasatearrek urrezko ezteiak ospatuko dituzte gaur, egubakoitza. Meza Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian izango da; gero, ospakizuna Baster-Alde jatetxean egingo dute. Zorionak!



Mertxe Bolinaga eta **Jesus Agirreurreta** arrasatearrak 1957ko urriaren 19an ezkondu ziren Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan. Gaur, egubakoitza, ospatuko dute; meza entzun ostean Gure Ametsa jatetxera joango dira familiarekin. Zorionak, bikote!



Leo eta **Jose** arrasatearrak urriaren 13an ezkondu ziren Urribarri auzoko Itxaropenaren Amaren elizan. Sorluzen egin zuten bazkaria eta ondoren Egipto eta Jordaniara joan dira ezkon-bidaian. Lagunen eta senitartekoen partetik, ondo ibili, bikote!

URTEURRENA

Jesusa Biain Markuleta

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, urriaren 20an,
19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiangeruaren parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

II. URTEURRENA

Mikel Odrizola Igartua

'Aixkirri'

*Nun hago, zer larretan
Aloñako artzaina.
Mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora,
ihesetan joan hintzana.
Gogoan zaitugu.*



Etxekoak
Oñatin, 2007ko urriaren 19an.

URTEURRENA

Vicente Iturbe Milikua

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 21ean,
12:00etan, Arrasateko Urribarri auzoko
Itxaropenaren Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Josu Andoni Ugalde Argatxa

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 21ean,
12:50ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Julia Gallastegi Urzelai

Honorio Agirregabiriaren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 21ean,
12:50ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Maria Pilar Murgoitio Gabilondo

Damian Azkarate Alberdiren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 21ean,
12:50ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Rosarito Letamendi Zelaia

Lehen urteurreneko meza zapatuan,
urriaren 20an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiangeruaren parrokian.
*Beti topatzen zenuen barre egiteko arrazoiren bat
eta horrela gogoratuko zaitugu, irribarrez.*




Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Jesus Murgizu Ezpeleta

Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 21ean,
12:50ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

MEZA

Angel Sanchez Frutos

Tenerifen hil zen 2007ko urriaren 4an, 45 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza
domekan, urriaren 21ean,
11:50ean,
Antzuolako Errukizko Amaren parrokian.



Zure familia.
Antzuolan, 2007ko urriaren 19an.



Babeslea:

OROILORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak

*Momentu txar horietan sortzen diren
galdera, kezka eta arazo guztiei
aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da*

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako


bilabila 7



hitzezidunak

* Irudiko fruitua		Funts		Sutondoko gakoa	
Altzoa		Garaipena		Beharra	
Bost bider bi		Soldado taldea			
Pozoiak	Txori mota				
Gizon izena	Zakur				
				Kanpo	
				Aiako	
Diru truk eskuratua					Kontso-nantea
India					Zintzoa
		Jolaslekua			
		Tantaloia			
Ate, hitz elkarketan			Mendebaldean, zen		
Bizkaiko ibaia			Kontso-nantea	Iodoa	
		Aldi, aro			

GOIENKARIA



umore giroan

Kike Amonarriz

Zaharra

Egin kontu!

Gizon hura hain zen zaharra! Espermatzoideak izan beharrean, espermatosauruak zituen.

Galtzerdien begiak

Edurnek galtzerdi berriak erosi dizkio Gorkari bere urtebetetze egunerako. Etxera joan eta Gorka komunetik biluzik eta galtzerdiak jantzita atera da:

- Edurne, izugarri gustatu zaizkit galtzerdiak. Pentsa zein politak diren nire isipua ere beraiei begira dagoela.


- Aizu, bada bihar bertan kapela berri bat erosiko dizut!

sudokua

8		7	4	2		
	3		9	2	4	
9			1	8		4
7		9	6			1
8		5	7		3	
2	5	3		6		8

hieroglifoa

Non darama pistola?




hizki salda

Nafarroako 5 herriren izenak

A	C	E	A	E	Ñ	U	R	I
N	G	B	I	C	H	K	M	L
D	E	O	H	A	A	O	R	U
A	T	U	I	E	N	O	I	G
R	I	D	Y	T	K	E	N	A
E	N	K	L	A	Z	S	O	R
T	O	G	F	N	I	I	O	E
U	S	M	E	O	T	O	T	S
T	D	E	A	S	O	D	O	L

soluzioak



I	V	A	R	V	G	V	A	K	O
N	V	Z	V	A	T	V	A	T	
V	O	I	T	V	P	N	I		
Z		S	I	A	S	O	R	E	R
T	V	A	T	A	R	T	A	D	O
V	N	A	R	I	N	A	T	E	
R	V	A	M	A	H				
V	A	L	A	G	A	M			
L		M		M					

bono fotoa



Zein da Gerra Zibilean Elgetan ezarri zuten defentsa-lerroa gogoratu, aurtan jarri duten Juan Jose Arangurenaren eskulturaren izena?

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorobereizbar

Super BM IFA

Super BM emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA.....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Nesquik txokolate-tableta
100 g

0,80 €

Eskaintza: 3 eramanda, bakoitzak 0,53 €
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Bergarako JUANA ALUSTIZArendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzuna: San Migel Parrokian (Plazak eta San Juan kaleak bat egiten duten puntuan).

8	6	1	6	4	3	5	5	2
9	2	3	1	7	1	4	5	6
6	2	3	2	9	2	8	1	6
5	4	7						
2	1	5	3	6	6	8	4	7
9	8	6	7	6	7	4	2	3
4	3	4	1	8	7	6	2	5
3	6	9	5	8	1	7	2	4
7	4	7	2	8	4	6	3	1
1	5	3	6	9	2	8	4	7
8	6	9	7	3	4	2	5	1

Jeroglifikoak: Besapean
B - SA - Behaan

L	D	O	S	A	E	T
S	T	O	T	O	S	M
E	O	I	N	F	G	O
R	S	O	R	A	K	N
A	V	K	E	N	A	
I	G	O	I	E	N	O
U	R	A	V	A	O	R
L	M	L	C	H	K	M
I	R	I	A	E	N	U



Karaoke Ikuskizuna

Oñatiko Gaztelekuan

Urriaren 20 eta 21ean

Urriak 20an:


- 1. saioa: 17:00ean
- 2. saioa: 18:15ean
- 3. saioa: 19:15etan

Urriak 21ean:

- 1. saioa: 16:30etan
- 2. saioa: 17:30ean
- 3. saioa: 18:30ean
- 4. saioa: 19:30ean

Zatoz zure herriko kantariak animatzera!!

BABESLEA



**gaztetxo
elkartea
club juvenil**

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Lierni Altuna > Bertsozalea eta irakaslea

"Lanean hartzen dudan tentsioa errugbian jokatzeko botatzen dut"

Lierni Altuna aramaiorra da; jartzaile izatera pasazen. Herrian saioetan aritzen da gaiak jartzen. Bestalde, filosofia irakaslea da Antropologia ikasketak egiten dituen EHUn. Orain, errugbian hasi da Arrasateko taldean.

ARANTZAZU EZKIBEL > ARAMAIO

Lanpetuta dabil azkenaldian Lierni Altuna; goizetan irakasle lanean dabil eta arratsaldeetan hura da ikaslea. Hala ere, gurekin egoteko tarte hartu du Aramaiokoak: Arrasaten harrapatu dugu, errugbiko entrenamendurako bidean.

Nola sartu zinen bertsoari-tzaren munduan?

Txikitik hasi nintzen, 15 urte ingururekin, lagun batek animatuta. Hasiera batean bertsoan egin nuen, baina gero, utzi egin nion publikoan bertsoan aritzeari eta gai jartzaile hasi nintzen. Hori orain dela 6-7 urte izan zen; normalean Aramaion bertan egiten diren saioetan edo Arrasaten aritzen naiz, baina Arabako elkarteak deituta joan izan naiz beste toki batzuetara ere.

Aramaioko bertso eskolaren ardura ere badaukazu.

Bai, Aramaion bi talderen ardura daukat eta Arrasaten beste batena. Aramaioko taldean, 12 lagun daude gaztetxoentzako taldean eta nagusienean, berriz, zazpi.

Orain jokatzeko ari den Gipuzkoako txapelketa jarraitzen duzu? Nor da zure favoritoa?

Ez dut hartu tarterik txapelketa ikustera joateko, asti barik nabil. Hala ere, uste dut maila polita dagoela; betikoak ibiliko dira goian. Aitor Mendiluze, Jon Maia, Amaia Agirre... goian ibiliko dira; gero ikusi egin behar zeinek irabazten duen.

Filosofia ikasketak egin dituzu EHUn. Beti izan duzu argi filosofia ikasi gura zenuela?

Ez, nik beti esan izan dut Kazetaritza ikasi gura nuela. Baina institutuko azkeneko urtean gustuko irakaslea izan nuen, eta, hala, filosofia ikastea pentsatu nuen.

Pertsonalki, zertarako balio izan dizu filosofia ikasteak?

Ikuspegia zabaldu eta baita pentsamendu ezberdinak ulertzeko balio du filosofia; ikuspegi irekiagoa izateko balio izan didala uste dut.

Bestalde, lan ere filosofiaren inguruan egiten dut; filosofia irakaslea naiz. Ordezkapenen listan nago eta egokitzen zaidan tokira joaten naiz; gaur egun Oreretan nago. Gustura nabil irakasle, baina gogorra ere bada. Hala ere, toki berean denbora luzeagoan egotea gustatuko



LARRAITZ ZEBERIO

PERTSONALA

Herria: Aramaio. **Adina:** 25 urte. **Ikasketak:** Filosofia amaitu du eta orain Antropologia egiten ari da. **Zaletasunak?** Lagunekin egotea, mendira joatea eta bertsoari-tza. **Gorrotatzen duzu zer edo zer?** Bai, hipokrisia gorroto dut. **Baduzu maniarik?** Ez; agian

izango dut baten bat, baina ez dut uste. **Gizateria-ren asmakizun onena?** Hizkuntza bera da asmakizun onena. **Inoiz ahaztuko ez duzun bidaiak?** Aurten-go udan egin dudana: Norvegia, Danimarka eta Suedian izan naiz. **Amets bat?** Pozik bizi izatea.

litzaidake, benetan gustatzen zaidan edo ez jakiteko. Baina oraingo gustura nago; gainera, jendearekin egotea gustatzen zait. Ez da egiten monotonoa irakasle lana, egunero gauza ezberdinak egiten ditugu-eta.

Eta zu zeu zer-nolako ikaslea zinen?

Nahiko justu ibiltzen nintzen. Ahalik eta gutxien egiten nuen, gaia gaitzeko behar zen gutxienezko egiten duten horietako nintzen. Gaitzeko nahikoa izaten zen.

Bestalde, bertso udalekuetan begirale ibili izan zara.

Azken bi urteetan 15 urteko gazteekin ibili naiz; haiekin bertsoari-tza da lantzen duguna. Azken batean, bertso promes gazteak dira; hortaz, maila oneko neska-mutikoak dira udalekuetara etortzen direnak. Haiekin bertsoan egiten dugu eta giroa aparta izaten da. Txikitxo-agoekin, berriz, ohiko udalekuen antza izaten du: jolas egiten dugu bertsoaren inguruan eta ariketen bidez bertsolari ezberdinak ezagutzen ditugu. Elgoibarren izaten dira udalekuak.

Hortaz, gustuko izango duzu umeekin egotea.

Bai; oraingo bai, behintzat!

Orain, Arrasateko errugbi taldean hasi zara. Zer dela-eta animatu zara?

Orain dela urte batzuk Donostiako talde batean hastekotan egon nintzen, baina azkenean ez nintzen animatu. Orain, Arrasateko taldea ateratu duenean, Arrasateko lagun batek animatuta hasi naiz. Aurretik ere kirola egin izan dut; mendira eta igerian egitera joan izan naiz.

Ikusten den bezain bortitza da errugbia?

Kanpotik ikusita kirol bortitza ematen du; kolpe asko jaso behar dituzula dirudi. Baina, errealitatean, ez da horrenbeste-erainokoa. Erortzen ikasi egiten da; horrenbestez, jausi egin behar zarenean zuk zeuk botatzen duzu zeure burua.

Zer da gogorragoa: errugbia ala irakasle izatea?

Nik uste dut osagarriak direla errugbia eta irakasle lana; irakasle lanean hartzen dudan tentsioa gero errugbian jokatzeko botatzen dut.



IRRATI LIBREA Debagoienean dagoen irrati libre bakarra da eta 24 orduz emititzen dute.

GOIENKARIA

KOMUNIKABIDEAK > IRRATIA

Bergarako Txapa Irrati beteteranoa Internetez entzun daiteke

Luzaroan zeukaten asmoa egia bihurtu da azkenean, eta 'www.txapairratia.org' webgunean entzun daiteke Txapa Irratia, egunean 24 orduz, zuzenean

aren arabera dauden aukerak agertuko dira. Hala, Windows, Windows Media Player, Windows 95-98, Mac 8.0-9.0 zein GNU/Linux sistema operatiboekin entzun daiteke sarean Txapa Irratia; bakoitzerako zehaztu dituzten argibideak jarraitu besterik ez dute erabiltzaileek.

Txapa Irratiak egunean 24 orduetan emititzen du, eta orain, Internetez, FMko 97.25 sintonian entzun daitekeen programazio berbera, zuzenean, entzun daiteke.

JOKIN GURIDIREN LANA

Internetera salto egitea ez da gauza erraza izan. Hala, batetik, irrati ekonomikoki larri ibili da azkenaldian -emisora berria erosi behar izan dute-, eta, bestetik, irrati arduradunek ez zuten teknologia jakintza nahikorik irratiaren emisioa digitalizatzeko.

ko. Honela diosku irrati kide Lander Juaristik: "Azken bi urtetako asmoa zen irrati Interneten jartzea, baina ez genuen lortzen". Ezustean iritsi zitzaizkien laguntza Txapakoei; izan ere, orain urtebete sartu zen lantaldia Jokin Guridi, eta hark egin du lan hori.

HERRITARREK EGINDAKOA

Txapa irrati libreak hamarkadak daramatza Bergararik emititzen eta herritarrei hitza ematen; izan ere, irratsaioa egin nahi duten bergararrak gonbidatzen dituzte urtero euren gaitasuna jotzera. Euren emisioetan, euskara bultzatzen dute, nahiz eta ez duten mugarik ipintzen.

Oraingo ikasturteko programazioan, bergararrek egindako saioez gain, Arrosa irrati sareko eta Info7 irrati saioak ematen ditu Txapa Irratiak.

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Bergarako Txapa Irratia badago Interneten: www.txapairratia.org webgunetik bertatik dago entzuteko aukera. Irrati beteterano horrek urteetako helburua bete du horrela.

Euren webgunean, sarrerorrian bertan, lotura bat jarri dute; horri klik eginda, norbere ordenagailuko sistema operatibo-

teknologia berriak

> ARGAZKILARITZA

Nikon D300 eta D3 argazki kamerak azaroan kaleratuko ditu enpresa japoniarrak

Nikon enpresa japoniarrak bi argazki kamera berri kaleratuko ditu urrian, D300 eta D3 modeloak.

Bi modeloek 12 megapixelean erresoluzioa dute, eta hiru hazbeteko pantaila Live View sistemarekin; horrek eszena zuzenean pantailan ikusteko aukera ematen du. Gainera, biek fokatzeko automatikoa eskaintzen dute, eta 51 puntu ko autofokatzeko sistema, mugitzen dabilena hobeto jarraitzeko.

Salneurriak gutxi gorabeherakoak dira: D300ak, 1.700 euro; eta D3ak, 4.500 euro.



Nikon D3 (irudian) argazkilari profesionalentzako kamera da.

> PDA

Glofish x600, GPSa duen eskuko ordenagailua

Glofish enpresak X600 modelo aurkeztu berri du.

Aukerak honako hauek dira: 2.8 hazbeteko ukimen pantaila, bi megapixelean kamera, 400 MHz-ko Samsung prozesatzailea, 64 MBko RAM memoria, FM irrati sintonizadorea, wi-fi eta Bluetooth 2.0 eta MicroSD txartelentzako erreten bat. Gainera, GPS hartzaile bat eta 512 MBko Micro SD txartelean Garmin mapak dauzka.

Azaroan erosteko moduan egongo da, 500 eurotan.



Aurreko modeloekin alderatuz gero, txikiagoa, arinagoa eta meheagoa da.

> TELEFONIA

Nokia N810: GPSarekin eta wi-fi teknologiarekin

Nokia N serietako modelo berria aurkeztu du. N810 modeloaren aukerak honako hauek dira: WVGA pantaila (800x400), QWERTY teklatu osoa, GPSa, bi GBko barne memoria eta wi-fi. Bateriaren iraupena, dituen aukera guztiak erabiliz gero, lau ordukoa da; gainera, aste bateko itxarondubora eta, piztuta badago, bost egunekoa.

AEBetako salneurria 479 dolar da; eta gainerako herrialdeetarako salneurria zein izango den ez dute oraindik jakinarazi.



Nokia N810 modeloak QWERTY teklatu irrastakorra eta euskarria dauzka.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko **blog komertzialak**

www.goiena.net/blogak

- | | | | | |
|----------------|------------------|--------------------|----------------|---------------|
| /aebpn | /denetik | /gertu | /korozabaleta | /richimaier |
| /aiastui | /dragon-oriental | /gorkataxi | /markiegi | /tabernaberri |
| /aretxargi | /dukiena | /gurea | /maulanda | /udalaitz |
| /argi-plastik | /ego | /gutzieder | /mayte | /urdeki |
| /arregi | /ekilore | /hamaika | /merkeopari | /urbieta |
| /atai | /ekin | /itxaseder | /multiopticas | /urko |
| /azkarate | /elejalde | /irudisport | /ohiak | /vitoria |
| /bastida | /ezkutuorly | /ixaun | /ogizun | /zainduz |
| /briz | /galgorri | /jracing | /okipark | /ziripot |
| /aseguruak | /gallastegi | /joseba | /otzeta | |
| /BZ-sistemas | /ganesha | /lamaino-etxeberri | /pando | |
| /bolusukaldeak | /garaia | /loreelan | /puerta-ingles | |

Eta baita ere:

- www.aizue.com
- www.amgautoak.com
- www.baster-aldejetexea.com
- www.ehmff.com
- www.gelatzu.com
- www.goikobenta.com
- www.haurtxoa.com
- www.klorofila.com
- www.landaluze.com
- www.lilura.com
- www.toldosiete.com
- www.uxarte.net



berriak

> PROGRAMAZIOA

Bihar hasiko dira 'Kantari'-ko ikuskizunak, Oñatin

Amaitu dira dagoeneko *Debagoienean Kantari* karaoke ikuskizuneko entseguak. Hala, bihar bertan, zapatuan, hasiko dira ikuskizunak, Oñatiko gaztelekuan arratsaldeko bostetan. Zapatuan eta domekan egingo dira grabazioak Oñatin, eta guztira zazpi saio grabatuko dituzte; bihar hiru eta etzi lau. Saio bakoitzean lau edo bost talde arituko dira. Lehen emisioa, azaroaren 27an.

> PROGRAMAZIOA

'Zaharrak berri'-n izango da Iñaki Agiriano medikua

Asteroko Amaia Diaz de Monasterioguren dietistaren tartean, dilisten (lentejak) gainean arituko dira. Bestalde, hilean behin egiten duten medikuaren tartean, Debagoieneko ospitaleko larraldi zerbitzuetako sendagile Iñaki Agiriano egongo da. Hirugarren adinekoei zuzendutako kirola izango du berbagai. Zein kirol mota den gomendagarriena, zein momentutan den egokia... azalduko du.

> ARRASATE IRRATIA

Hezkuntza kontuak eta beste, datorren astean irratan

Dagoeneko badira hainbat hitzordu irratan kontuan hartu beharrekoak datorren aste-ari begira. Besteak beste, lan esparrua euskaratzeko EMUN kooperatibak 10. urteurrenaren ekitaldi jendetsua egingo du; Ibai-Arte merkatarien elkarteak ere iragarri du eguaztenerako ekimena; eta egubakoitzerako, berriz, Euskal Herriak Bere Eskola etorriko zaigu. Hori guztia landuko dugu Arrasate Irratian.

> ARRASATE IRRATIA

Federico Luppiren ikuskizunerako sarrerak barikuan

Arrasate Irratian ohi dugun moduan, asteburuan Arrasaten izango diren hainbat ekitaldirako sarrerak zozkatuko ditugu. Oraingo honetan, Federico Luppiren *El guía del Hermitage* izeneko antzezlanera joateko sarrerak zozkatuko ditugu. Parte hartzeko nahikoa da mezua bidaltzea; bi bide daude horretarako: telefonoz, 943 71 17 31 zenbakira; edo Internetez, irratia@goiena.com helbidera. Zozketa egubakoitzean egingo dugu.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Oihana Maritorea aktorea izango da 'Ilunpean' saioan

Donostiarra da Oihana Maritorea, eta hainbat telesail eta filmetan aritu da aktore lanetan

GOIENKARIA > ARRASATE

Oihana Maritorea aktore donostiarra da. Gaztea bada ere, jada hainbat telesail eta filmetan hartu du parte. Guztiok ezagutu dugu *Goenkale*-ko eta *Hasiberriak*-eko Tere-saren paperean, eta, horretaz gain, Tele5 kateko *Hospital central* telesail arrakastatsuan ere hartu izan du parte. Bere azken lan ezaguna *Eutsi!* filmean egin zuen; Zuriñe izeneko neska bat zen filmean. Beste film batzuetan ere hartu du parte, besteak beste, *Aita gurea* filmean, Jon Anduezarekin batera, eta *Nola esan* filmean ere bai.



OIHANA MARITORENA Goienkariarako egindako argazki batetan. IKER BANDIARAN

'ERREPORTAJEA' > MARTITZENA 23:30

Perretxiko bila abiatuko dira Julen Iriondo eta Joxe Mari Larrañaga

GOIENKARIA > ARRASATE

Garai onean gaude arratsalde baten etxetik irten eta mendira perretxiko bila irteteko. Bada, Julen Iriondoren datoren asteko erreportaje saioa perretxikoen gainekoa izango da. Izan ere, Iriondo eta Joxe

Mari Larrañaga bergararra, perretxikozale eta aditua, basora irtengo dira horien berri zuei emateko. Horren ezagunak ez diren moten berri emango du Larrañagak, eta tartean, zenbait kultura eta giza taldetan drogatzeo erabiltzen dituzten perre-

txikoez arituko dira. Gainera, zuhaitz bat oso osorik lehor dezaketen perretxikoak ere ezagutu ahal izango dituzue. Esan bezala, Joxe Mari Larrañaga bergarar adituarekin irtengo da Julen Iriondo, eta basoan bilatuko dituzten aleen gainean arituko dira.

Horrez gain, haiek sailkatzeo erak eta mota bakoitzaren ezaugarriak ere ezagutu ahal izango dituzue, Joxe Mari Larrañagaren eskutik.

Aukera aparta, beraz, gurean hain ugariak diren perretxikoen gainean gehiago jakiteko.

telebegi

Leire Kortabarria

Mingarritasunaren balorea

Lehen, Espainian telebista kate bakarra zegoenean eta denak balio ez zuenean, gauzak beste modu batera egiten ziren, eta, albistegietan, abisatu egiten zuten aurkezleek: "Ohartarazten dugu segidan botako ditugun irudiek ikusleen sentsibilitatea mindu dezaketela". Orain ia barregura ematen du hori gogoratzek, gaur egun horixe da eta botako diren irudiak —eta, hortaz, albisteak— aukeratzeko orduan jarraitzen duten irizpideetako bat: mingarritasuna, edo, eufemismo batekin esanda, irudiaren inpaktua. Barregura, bai, hain ohitura higuigarria izango ez balitz.

Ez dakit zuk, irakurle, baina ni, behintzat, edozein telebistako albistegi ikustera noanean, adi egon behar naiz ea zer datorren beste alde batera begiratzeko. Gehien haserretzen nauena da irudi horiek ez dutela inongo balio informatiborik, %99an. Errumaniar gizagaixo hark bere burua erre zuenean, irudi haiek gutxienez bi astean jarraian ia egunero eman zituzten, eta zertarako? Ez zioten ezer gehitzen albisteari. A! Barkatu; inpaktua, balore garrantzitsua.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu. Juan Luis Zabala idazlea, *Ilunpean* saioan; *Danbaka.com* eta *Kantari* saioetako musika kontuak; hirugarren adinekoen gainekoa *Zaharrak berri* saioan eta beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearen errepasoa
Elkarrizketak
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31 irratia@goiena.com).
11:55 Arrasateko albistegia, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

GOITBko
programazioa**Egubakoitza, 19**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Ur eta Lur. 14:15 Animaliak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Eltze beroa. 16:15 Musikantoi. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Zu kazetari. 18:45 Albisteak. 19:15 Ikusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 2x2. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 20

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Ikusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Klipa. 12:30 Erreportaia. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Bertsoak: Zaldibia. 14:00 Bertsoak: Zumarraga. 14:30 Jazmina. 15:00 Zu kazetari. 16:00 Solasta. 16:30 Ilunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Animalia. 19:30 Klipa. 20:00 Ur eta Lur. 20:30 2x2. 21:00 Jazmina. 21:30 Bertsoak. 22:00 Astekoak. 22:15 Klipa. 22:30 Ilunpean. 23:00 Erreportajea: Argi gorriean. 23:30 Musikantoi. 00:00 Jazmina. 00:30 Emisio amaiera.

Domeka, 21

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Solasta. 11:30 Musikantoi. 12:00 Jazmina. 12:30 Klipa. 13:00 Eltze beroa. 13:15 Klipa. 13:30 Animalia. 14:00 Zu kazetari. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Bertsoak. 18:30 Animalia. 19:00 Eltze beroa. 20:00 Ur eta Lur. 20:30 Erreportajea: Argi gorriean. 21:00 Jazmina. 21:30 Musikantoi. 22:00 Astekoak. 22:00 2x2. 23:00 Teknopolis. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 22

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea-Ttiti Ttapa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Bertsoak. 16:15 Animalia. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ikusmira. 18:15 kusten. 18:45 Berriak. 19:15 2x2. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Harmailatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea: Perretxikoak. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 28 Klipa. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 23

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea-Perretxikoak. 14:15 Harmailatik. 14:45 Berriak. 15:15 2x2. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klipa. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Harmailatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Horry. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Animaliak. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportajea-Perretxikoak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 24


13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Bertsoak. 14:15 Eltze berioa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animaliak. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 2x2. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Hitz bitan. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Bertsoak. 22:15 Ur eta Lur. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 25

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrazki bizidunak. 14:15 Bertsoak. 14:45 Berriak. 15:15 Ikusmira. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ur eta Lur. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Kirolari. 18:45 Berriak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Horry. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Hitz bitan. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Teknopolis. 00:15 Emisio amaiera.



Jatetxe Gida



Azpeitxi jatetxea

Aranerrika 13 / BERGARA
943 76 55 00

Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan

Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.



Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita



Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza

- Menua
- Afari informalak



Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitarakoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

Urriak 19-26

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



BERGARA

> Loreto Aramendi organo-jotzaileak saioa egingo du Naroa Intxausti sopranoarekin

Organo erromantikoaren nazioarteko emanaldi sortari itxiera emango dio kontzertu horrek. Loreto Aramendi organo-jotzailea Naroa Intxausti sopranoarekin arituko da. Bihar, zapatua, 20:00etan, San Pedro parrokian.

Antzerkia



OÑATI

> 'Haur kabareta' delako ikuskizuna domekan Santa Ana antzokian

Agerre teatro taldearen *Haur kabareta* ikuskizunaz –musika eta antzerkia uztartzen ditu– gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek domekan, 17:00etan, Santa Ana antzokian. Sarrerak 3 euro balio du.

Hitzaldia



BERGARA

> 'Vietnamgo gerra zineman' delako hitzaldia eguaztenean

Iñigo Marzabalek egingo du hitzaldi hori. Udal Agiritegiak historia eta zinema ardatz hartuta antolatutako sortaren barruko hitzaldia da. Hilaren 24an, eguaztena, izango da, 18:30ean, osoko bilkuren aretoan.

misterioetatik izeneko hitzaldia egingo dute Mila Gallastegik eta Asier Aranzabalek.

Hilaren 25ean, eguena, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

Erakusketak

ARRASATE

> Fernando Martinezen margo erakusketak

Arrasatearrak 20tik gora natura hil erakutsiko ditu.

Gaurtik hilaren 29ra arte, Harresi aretoan.

BERGARA

> Aranzadik ehungintzaren gaineko erakusketak antolatu du

Artisautza mota desberdina erakutsiko dituzte: artilea, zeta, lihoa, kotoia... Nafarroako Aurrezki Kutxan (CAN) dago, Ibargarai 7an.

Urriaren 22tik 27ra arte.

BERGARA

> Esther Galartza artistaren zeramika erakusketak

Disonante armonia du izena Eibarko artistaren erakusketak. Formatu askotariko lanak –muralak, eskulturak...– aurkeztu ditu.

Azaroaren 28ra arte Aroztegi aretoan.

BERGARA

> Matias Azkarate margolariak erakusketak du ikusgai

15 margolan zintzilikatu ditu Azkaratek Nahikari tabernako paretetan. Natura hilak eta paisaiak dira, batik batik, Ricardo Azkargortaren ikaslearen lanen ardatza.

Hil bukaerara arte egongo da ikusgai.

ESKORIATZA

> Perretxikoak batzeko irteera egin eta ikusgai jarriko dituzte

Luis Ezeiza guraso elkartek antolatu du ekitaldia. Bihar, zapatua, mendi irteera egingo dute perretxikoak batzera joateko. Domekan, berriz, batutakoa erakutsiko dute, 12:00-14:00, Herriko Plazan. Dastatu ere ahal izango dira.

BERGARA

> 'Tratu txarren aztarnak' delako erakusketak

Avaim elkartearena da erakusketak eta Udaleko Ongizate sailak ekarri du. Tratu txarrak jasan dituzten umek marrazkiek osatzen dute.

Azaroaren 7ra arte, kultura etxean.

Ikastaroak

BERGARA

> Ahozko narrazioaren gaineko tailerra Oihulari Klownekin

Taller permanente de narracion oral: *la respiracion de los cuentos* deitzen da tailer

Musika

ARRASATE

> Zuzeneko kontzertua Gure Leku tabernan

Requiem taldeak egingo du emanaldia.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

TOLOSA

> Oñatiko hiru taldek kontzertua egingo dute Bonberenean

Golpe de Estado, Sospechosos eta Combat Rock taldeek egingo dute kontzertua.

Gaur, egubakoitza, 22:00etan.

ARRASATE

> Disko jartzaileen saioa 3.60 aretoan

Ene! disko jartzaileak eta Aitor Muk hartuko dute parte.

Bihar, zapatua, 04:00etan.

BERGARA

> Zumarraga eta Bergarako abesbatzen kontzertua

Zumarragako Goizalde abesbatzak eta Bergarako San Joxepe elkarteak abesbatzak egingo dute emanaldia. San Joxepe elkarteak antolatu du.

Bihar, zapatua, 20:00etan, Santa Marina parrokian.

ARRASATE

> Bi taldek kontzertua egingo dute gaztetxean

Psychosonicos eta Foxy Boxy taldeek egingo dute saioa.

Bihar, zapatua, 22:30ean.

BERGARA

> Udal Musika Bandak kontzertua egingo du

Lau obra egingo ditu: *Agüero*, pasodoblea; *Ramuntxo*, euskal rapsodia; *Merry-Go-Round*; eta *L'Arlésienne* suitea.

Etzi, domeka, 12:30ean, Udal Pilotalekuan.

Antzerkia

ELGETA

> Garcia Lorcaren poesia Espaloia antzokian

El romancero gitano delako ikuskizunean antzerkia dantzarekin eta Lorecaren poemekin uztartuko ditu Antzerti Maitaleak taldeak.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean.

ARAMAIO

> 'Geroago' musika eta dantza ikuskizuna

Ikuskizuna taldeak antzeztuko du lan hori. Ekitaldia Txirritola elkarteak antolatu du.

Bihar, zapatua, 19:30ean, kultura etxean.

ARRASATE

> 'Mokaua' delako multimedia ikuskizuna

Elorrioko Logela Multime-

dia taldeak azkeneko lana egingo du. Musika, irudiak eta mugimenduak uztartzen dituzte ikuskizunean. Prezioa da 5 euro.

Etzi, domeka, 20:00etan, Amaia antzokian.

OÑATI

> Umeendako ipuin kontaketa saioak haur liburutegian

Bi saio egingo dituzte. 8 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta daude eta ipuinak entzuteaz gain panpina bat ere egin beharko dute. Udal Liburutegiak antolatu du ekimena.

Hilaren 23an eta 25ean, 18:00etan, haur liburutegian.

ESKORIATZA

> Umeendako ipuin kontaketa antolatu dute bibliotekan

Osasuna eta urtaroen ipuina delakoa kontakutako

dieta 6 urtetik aurrerako umeei.

Hilaren 24an, eguaztena, 18:00etan.

Hitzaldiak

ARRASATE

> Merkataritzagune irekien gaineko jardunaldiak Kulturaten

Arrasateko Ibai-Arte merkatarien elkarteak antolatu du. Jardunaldion helburua da Eibar eta Irungo kasuen berri ematea eta, haiez baliatuta, merkataria, udal teknikari zein ordezkaritza politikoko sentsibilizatzea.

Hilaren 24an, eguaztena, 19:00etan.

BERGARA

> Sahararen bihotzean barrena egindako trekkinga berbagai

Trekkinga Sahararen bihotzean. Txango bat Tassili N'Ajjerreko hare, harkaitz eta

PROPOSAMENA

ARETXABAETA

> XI. gastronomia eta folklore jaialdia ospatuko dute etzi

Hainbat tokitatik etorritako taldeek jatekoa eta edatekoa eskainiko dute. Gainera, Laudiotik etorriko den Gaztela Leongo taldeak eta Donostiako Casa Galiciakoek dantza erakustaldia egingo dute. Gastronomia ezagutzera emateko hainbat postu jarriko dituzte plazan. Esandako bi etxez gain parte hartuko dute Errioxako eta Extremadurako etxe banak eta Aretxabaletako Aratz taldeak.

10:30etik 19:00etara izango da.



hori eta urriaren 28an hasi eta ekainera arte izango dira eskolak –hileko domeka batean–.

Izena emateko deitu 607 20 45 03 zenbakira.

BERGARA

> **Taila ikastaroan izena emateko epea zabaldu dute**

Bergarako Taila Eskola kultura elkarteak antolatuta du ikastaroa. Eguaztenetan izango dira eskolak, 18:00-20:00 ordutegian, Zabalotegi dorrean duten egoitzan. Ikastaroa hasiko da azaroaren 7an eta iraungo du maiatzera arte.

Izena emateko jo Zabalotegi 11n duten egoitzara eguaztenetan, 18:00-20:00 ordutegian.

ARRASATE

> **Arrasateko euskalkiaren gaineko ikastaroa**

AED elkarteak antolatuta du. 20 ordukoa izango da eta bihar, zapatua, hasiko da. Prezioa da 50 euro; 40 euro, bazkide izanez gero.

Izenematea eta informazioa: 943 77 12 28 (Mirari).

ARRASATE

> **Gazteendako ikastaroak Gazte Bulegoaren eskutik**

Bost ikastaro antolatu ditu: Argazkigintzari dagokionez, urriaren 16tik abenduaren 18ra izango da, martitzenetan, 18:30-20:30 ordutegian, Kulturaten. Antonio Murillok emango ditu eskolak. Dantza afrikarrak ere egongo dira, urriaren 15etik azaroaren 14ra, astelehen eta eguaztentean, 18:30-20:30, Kulturaten. Euskal dantzen ikastaroa, berriz, Lore Gazteak taldeko kideek emango dute hilaren 19tik abenduaren 14ra, egubakoitzetan, 19:00-20:30, Lore Gazteak taldearen lokalean. Alboka ikasi nahi duenak hilaren 20tik martxoaren 15era egin ahal du, zapatuetan, Angel Agirianoren eskutik, Monterronen. Azkenik, perkusio ikastaroa ere izango da hilaren 15etik abenduaren 17ra, astelehenean, Gazteluondo eskolan, Iñaki Bruñaren eskutik. Ikastaroon matrikula da 20 euro; 12, ikasle edo langabeendako.

Izenematea Gazte Bulegoan (943 77 00 65).

Lehiaketak

ARETXABALETA

> **Billar txapelketa antolatuta du Loramendi elkarteak**

Azkena tabernan izango da lehiaketa bihar, zapatua, eta 16:30ean hasiko da.

Izenematea egunean bertan izango da, 15:30etik 16:30era.

ANTZUOLA

> **Gaztetxoendako pintxo lehiaketa antolatuta dute**

Frontoi txikian jokatu da pintxo lehiaketa eta eguraldi txarra egingo balu, elizako arkupeetan izango litzateke.

Bihar, zapatua, 16:30ean.



El orfanato **

Zuzendaria: J.A. Bayona.

Aktoreak: Belen Rueda, Geraldine Chaplin, Fernando Cayo. Espainia. 2007. 100 min.

Dudarik gabe *El orfanato* datozen asteetako film famatuena izango da: lehenengo lau egunetan lortutako dirukopurua ia 6 miloi eurora heldu da, kritikariekin denetarik idatzi dute, batzuek filma gogor astinduz eta beste batzuek kritika txarrak egin dituztenei erantzuten. Horrenbestez, badago saltsa.

Egia esateko, *El orfanato-k* baditu goraiatzeko gauza batzuk, baina baditu ere akatsak. Filmari hurbiltzerakoan kontuan izan behar dugu J.A. Bayonaren lehen film luzea dela eta horrela izateko zuzendariak erakusten du badakiela atmosfera bereziak eta kezagarriak sortzen; gainera, nahiko modu garbian lortuta. Badaude efektu kolpe batzuk edo nahiko modu eztabaidagarriak filmatutako eszenak (hondartzan beste abiadura baten filmatutako eszena), baina orokorrean, nahiko filmatzeko modu klasikoa erabiliaz, dekoratuei, argiari, musikari eta soinuari etekina ateratzen, eta aktoreen lan ona lortzen, ondo murgiltzen gaitu halako istorioek duten giro goibelean.

El orfanato-n zuzendari-tzak gidoiak baino hobeto funtzionatzen du. Gidoia ona baino gehiago, trebea da. Ez dizkigu datu guztiak ematen, gauzak pixkanaka aditzera ematen zaizkigu eta horrela, ikuslearen jakin-mina areagotzen da. Puzlea ematen du, eta azkenean pieza gehienak ondo kokatzen badira, ateratzen den emaitzak ez du pisu eta funts handirik eta pastichera hurbiltzen da. Filmean, *Los otros*, *Poltergeist* eta *ET*-ren eragina ikusten da, eta genero fantastikoan erabilitako osagaiak agertzen dira. Denek nahiko modu egokian nahasturik ekoizpen itxuroso bat ematen dute, baina lan handi bat izateko istorioari garapen dramatiko falta zaio.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

El ultimatum de Bourne

Egubakoitza: 22:00
Zapatua: 19:30
Astelehena: 20:30.

La telaraña de Carlota

Zapatua: 17:00.

Alpha dog

Eguena: 20:30.

ELGETA ESPALOIA

El perfume

Eguaztrena: 21:30.

OÑATI KULTURA ETXEA

Hairspray

Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Ratatouille

Zapatua eta domeka: 17:00.

Cartas desde Iwo Jima

Eguena: 20:00.

EIBAR UNZAGA

El orfanato

Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15
Astelehena, martitzena eta eguaztrena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

El orfanato

17:30, 20:00, 22:30.

Irabazle&Galtzaile

16:30.

Los seis signos de la luz

16:30, 18:30.

Matrimonio compulsivo

17:30, 20:00, 22:30.

Promesas del Este

18:30, 20:45, 22:30.

La huella

20:30, 22:30.

Supersalidos

17:00, 19:45, 22:30.

Mataharis

17:30, 20:00, 22:30.

Fracture

17:00, 19:45, 22:30.

13 rosas

17:00, 19:45, 22:30.

Nocturna

17:00.

Quiereme

17:30, 20:00, 22:30.

Lucio

22:30.

Siete mesas de billar frances

17:30, 20:00, 22:30.

Conversaciones con mi jardinero

17:00, 19:45.

La joven Jane Austen

17:30, 20:00, 22:30.

Querida Bamako

17:30, 20:00, 22:30.

Un funeral de muerte

17:30, 20:00, 22:30.

Eskasa:* Balekoa:** Ona:*** Oso ona:**** Bikaina:*****

Ratatouille ****

AEB, 2007. Zuzendaria: Brad Bird. Marrazki bizidunak.

110 min.
Remy sagu mokofina da, eta ez da konformatzen zaborrontzietako jakiekin. Parisko jatetxe onenetako baten chef izan nahi du.

Amor y otros desastres

Erresuma Batua, 2006. Zuzendaria: Alek Keshishian. Aktoreak: Brittany Murphy, Matthew Rhys, Orlando Bloom, Gwyneth Paltrow. 90 min.

Bere lagun onenei bikotekidea aurkitzen iaioa da Emily Jackson Jacks. Baina besteei maitasun kontuetan laguntzen dien arren, ezagutuko ote du bere maitasun handia, agertzen denean?

Bratz: La Película

AEB, 2007. Zuzendaria: Sean McNamara. Aktoreak: Nathalia Ramos, Janel Parrish. 110 min.

Yasmin, Jade, Sasha eta Cloe betiko lagun minak dira. Institutuan hasten direnean, arazoak izango

dituzte, ikasgelako neska zaharrago batek ezarritako arauak ez betetzeagatik. Euren lagun taldea osatuko dute, hari aurre egiteko.

El ultimatum de Bourne ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Paul Greengrass. Aktoreak: Matt Damon, Julia Stiles, Joan Allen. 111 min.

Bi kazetari desagertu egingo dira CIA ikertzen ari direnean. Jason Bourne ikerketa horrekin jarraituko du, iragana argitu nahian eta erakundearekin zorrak kitatu nahian jarraituko du Bourne ikerketarekin.

Locos por el surf ***

AEB, 2007. Zuzendaria: Chris Buck. Animazioko filma. 85 min.

Pinguino batek lehiaketa ikusgarri eta arriskutsu batean parte hartu behar du. Pinguinoen Munduko Surf Txapelketan, hain justu ere. Cody Maverick pingüino gaztetxoarendako lehen txapelketa profesionala izango da. Nola jardungo du txapelketan? Zer ekarriko diotxapelektan parte hartzeak?

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Fracture

12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

Supersalidos

12:15, 15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.

Las 13 rosas

12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

La joven Jane Austen

12:15, 15:30, 17:45, 20:00, 22:15, 00:30.

First snow (La primera nevada)

12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:30, 00:35.

Quiereme

12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

El orfanato

12:15, 15:40, 17:50, 20:00, 22:10, 00:20.

Los seis signos de la luz

12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

Matrimonio compulsivo

18:10, 20:25, 22:40, 00:50.

Un plan brillante

20:10, 22:15, 00:20.

Siete mesas (de billar frances)

20:15, 22:25, 00:35.

El asesino

20:40, 22:40, 00:40.

Promesas del Este

18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Hairspray

12:15, 16:20, 18:30.

La jungla de cristal 4.0

19:20, 21:45, 00:45.

Movida bajo el mar

12:15, 16:00, 17:40.

El ultimatum de Bourne

22:10, 00:10.

Papa canguro

12:15, 16:30.

Locos por el surf

12:15, 16:20.

La extraña que hay en ti

12:15, 15:35, 17:55.

Ratatouille

12:15, 15:50, 18:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatuan. Eguerdiko saioak, dome-

kan. Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Fracture

17:15, 19:45, 22:15, 01:00.

Las 13 rosas

16:20, 19:20, 22:20, 01:00.

Supersalidos

17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

Quiereme

16:05, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

Nocturna

16:20, 18:10.

La extraña que hay en ti

17:00, 19:30, 22:05, 00:45.

Hora punta 3

18:30, 20:25, 22:25.

Sin reservas

15:50, 18:05, 20:20, 22:35, 01:00.

Salir pitando

18:25, 20:30, 22:35.

Os declaro marido y marido

16:00.

Hairspray

16:00.

La jungla 4.0

16:10, 19:10, 22:10, 01:00.

Los ojos del mal

20:00, 22:05.

Movida bajo el mar

16:30, 18:15.

Sigo como Dios

20:05, 22:10.

Gauerdiko saioak, egubakoitza eta zapatuan. Eguena, ikuslearen eguna.

nire aukera



Carlos Etxaniz
Opel etxeko saltzailea

Egunaren arabera, plan bat edo beste

Barikuan koadrilakoekin batzea du gustuko: "Ogi-tartekoak enkargatu eta elkartean jaten ditugu. Seme-alaba eta guzti joaten gara".

Zapatuari dagokionez, hamabostean behin lan egin behar izaten du, baina lanik ez duenean, goizetan umeekin igerilekura joatea du gustuko, edo kalean bueltatzea ematea... Arratsaldean, berriz, etxekoek siesta egin eta gero, egunaren arabera plan bat edo beste egiten dute: kalean bueltatzea eman, merkatalguneetan erosketak egin eta umeekin zinemara joan... Domekan eguraldi onarekin, Urkulura joatea dute gustuko.

Orfeoian abestea betebeharrarekin ala aisialdiarekin lotzen duzu?

Aisialdiarekin inongo zalantza barik. Familia da lehenengo nire bizitzan, eta bigarrena, Bergarako Orfeoia.

Debagoienara datorren lagunari zer erakutsiko zenioke?

Bergarakoa naizenez, bada Bergara. Erakutsiko nioke herria orokorrean, ikusteko asko duela uste dut eta. Bestalde, beti gustatu izan zaidanez asko gastronomia, bazkari edo afari on bat egitera ere eroangu nuke herriko jatetxeren batera.

Debagoieneko kultura eskaintzari zer deritzozu?

Oraingoaz ere Bergaran zentratuko naiz. Hala, iruditzen zait gabezia nagusi bat dugula herrian: kultura emanaldietarako areto egoki bat. Bestalde, eskaintzari dagokionez, badaude gauzak, Udazken Kulturala egitaraua, esaterako nahiko ondo dago.

Kultura aretoaz gain, beste hutsunerik ikusten diozu?

Zinema areto bat ere behar luke. Agorroingo igerileku berrian gustatu zaizu? Bai, asko gustatzen zait. Hantxe sartu zait igeriketarako zaletasuna.

Pol-Poleko Duniri omenaldia

25 URTE 25 urte bete dira Dunixik Pol-Pol taberna hartu zuenetik; urteotan egindako lanagatik omendu zuten

IREKIA Pol-Polen egoten diren lagunek azpimarratu dute taberna hori oso irekia izan dela beti, Dunixi den modukoa

GIROA Pol-Pol taberna izateaz gain, askoren topagune eta elkargune da, eta kultura ekintza ugari antolatzen dituzte

IKER BARANDIARAN > BERGARA
Dunixik 25 urte darama Bergarako Pol-Pol tabernaren mostradore atzean edariak zerbitzatzen eta beste ehunka lan egiten; hain zuzen ere, herriari giroa ematen.

Kanpotarrok Pol-Poleko eskailerak jaisten ditugun bakoitzean gauza berak harritzen gaitu, adin eta mota guztietako jendea izaten dela bertan: txikiteoan dabilen jende heldua, familiak, eskolatik irten berri diren gazte txoak, *Juven*-en ibilitako gazte helduak eta beste asko. Nor ez da, esaterako, kafea hartzeko Pol-Polen elkartzten?

TABERNA ETA JENDE IREKIA

Pol-Polen askotan egoten den bergarar batek kontatu digu taberna hori herriko gune irekiarena dela. "Hain jende desberdina batzen da, hiria ematen du; baina aldi berean oso giro berezia egoten da, laguntasun handikoa".

Horrez gain, bergarar horrek nabarmendu du urte hauetan guztietan hainbat eta hainbat kultura ekitaldi egin dituztela

tabernan: ipuin kontaketa, kontzertuak, erakusketak... Are gehiago, gaztetxerik ez zegoenean han batzen ziren gazteak eta han egiten zituzten batzarrak".

DUNIXIREN FILOSOFIA OMENDU

Pol-Polen batzen diren lagunek omenaldia egin gura izan zioten Dunixi: "Dunixi oso solidarioa izan da beti, eta hark eta tabernak duen filosofia omendu dugu". Hala, bazkaria antolatu zuten Dunixiren anaia Woodyren laguntzarekin. 130 bat lagunek eman zuten izena, eta bakoitzari txartel pertsonalizatua eman zioten, betiere Pol-Polen ikur den toretzailearen buruarekin.

BAZKARIA ETA ANIMAZIOA

Joan den zapatuan epaitegiaren alboan, Ariznoa plazan, elkartu ziren bazkaltzeko heldu, gazte zein ume ugari. Dunixiri *Oxanek* eta *Txapi*-k bertsoak abestu zituzten. Eta Leire *Jeneralak* lore sortak eman zizkien Dunixiri eta Woodyri. Eder to bazkaldu, gutzia jaso eta kalejira egin zuten.



ESKER ONA Argazkian Leire *Jenerala* Pol-Poleko arduradun Dunixiri lore sorta ematen.

ISMAEL GONZALEZ

ahobero

"Nik ez dut inoiz esan PSOEk negoziazioan Nafarroa emango zuenik"

Miguel Sanz > Nafarroako presidentea

Politikari askok uste dute herritarrek ez dutela politikarien esanak oroitzeko gaitasunik. ETaren eta PSOEn arteko elkarrizketek iraun zuten bitartean, Sanzek, PPkoekin batera, behin eta berriro salatu zuen PSOEk Nafarroa *saldu* egingo zuela.

iturri onetik

Fagor Arrasatek 50 urte beteko ditu azaroan, eta hainbat ospakizun egingo ditu

Fagor Arrasate enpresak 50 urte beteko ditu azaroaren 13an. Abenduaren 1ean langileek bazkaria egingo dute hori ospatzeko, eta enpresaren asmoa da gerora herrira begira bestelako ekintzak antolatzea.

Fagor Arrasaten prentsak eta txapak lantzeko makinak egiten dituzte. Gaur egun 500 langile daude Arrasateko, Markinako eta Donostiako eraikinetan banatuta.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Mahats kontuak

Batu dugu aurtengo mahatsa. Pilarika egunez, gurean inoiz baino beranduago. Irailak ez ditu ekarri bere ohiko hego-haize eta eguzkiak, eta mahatsa heldu ezinda ibili da. Tomatea bera, noiz jan da aurten baserrietan? Hortik atera kontuak.

Bestela ere, urte zaila izan da, gorrinak hainbat eraso jo ditu eta, batean ez bazen bestean, inor gutxi libratu da batera barik. Azken orduan botritisa ere ez da ibili oso urrun, eta honi ezin zaio aurre egin, azken txanpan ezin baita botikarik erabili. Katastrofeak aparte: Oñatiko Upainen, esaterako, iraila amaieran txingorra izan zuten, kalte dezentearekin.

Hala eta guzti, Esteñibarren uzta ona izan dugu: 8.400 kilo. Eta, ohi bezala, lehenbizi lana eta gero jarana. Egun ederra, inondik ere.

ai, ene!



Minutuak eta orduak banatuta dituen erlojua

III Phil bildumagileak Errusiako erlojuak dauzka erakusgai. Horietan, orduak ezkerrean daude eta minutuak eskuman.

www.netgrafik.ch/soviet_collection



Eraman dotoretasuna zure etxera



gelatuz

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51